


MARTARI

IL VEST

ATV
2306



N. - 9925
R. - 14358

A.T.V.
1806





ANDRE DENA MARIAREN

HILABETEA

ETA ARROSORIOCO HILABETEA

Imprimatur :

INCHAUSPE, *vic. gen.*

ANDRE DENA MARIAREN
HILABETEA

ETA

ARROSORIOCO HILABETEA



BAIONAN
LASSERRE BATHAN IMPRIMATUA

—
1890

THE HISTORY OF THE

WEST INDIES

IN THE SEVENTEENTH CENTURY



BY SAMUEL JOHNSON

AND JOHN WATSON

1795

Andre Dena Mariaren hilabete hau frantsesez egina izan da duela hogoi eta zonbeit urthe. Hunen egilea, Mr de Segur, aitoren seme, familia handi eta famatu batetarik jalgitzen cen; bainan gizon saindu eta aiphatu hartan ethorkia eder hortaz bertzerik bada miresteco. Jaincoac eman ciozcan jite esti bat, bihotz bat hanitz ona, izpiritu bat ernea eta idekia.

Oraino aski gazte celarik, jadanik cargutan cen Erruman, eta orotaz maitatua cen. Ageri cen hel citakela grado gorenetara eta ohore handietara. Bizkitartean Jaunac bertzerik eman cion gogora. Betbetan, hogoi eta bi urthetan, harentzat zauden cargu handi guciei ukho eginic, hartu zuen chedea apheztasunean sartceco.

Errumatic Pariserat ethorri cen; eta zonbeit urthe sainduki semenarioan iraganic, igan cen

aldarera, 1847^{an} abendoaren 19^{an}. Lehen meza emaitzarekin Jaincoari galdegin cion. Sainduei baicic gogoratcen etzaiotena, galdegin cion gaitz bat, bere eginbiletaric gibelatu gabe, bici gucian paira-aracico cioena.

Gero hortz urthez, aphez saindu horree bere bihotz bero eta cartsuarekin egin zuen Parisen ongi hanitz, bereciki gazten artean. 1852^{an}, berriz ere gobernamentuac cargu ohoragarri bat escaini cion Erruman, Aita Sainduaren aldean. Bainan etzuten hartarat aise bildu aphez cartsu hura; hortchaz eta obediteco baicic etzuen onhartu bere gazte maitei adio erraitea.

Erruman cen beraz, bere gradoco eginbideac, bethi bezala, oroen gogora bethetcen cituela; Aita Sainduac bereciki maite zuen. Bainan huna nun Jaincoac ohart-arazten duen ez duela ahantzi haren lehen mezaco galde hura. Behin begi bat eritcen zaio, eta gero bertcea. Medicuen ahal eta jakitate gucien artetic laster osoki itsutu cen. Batere khechatu ez lotsatu gabe, hartu zuen gaitz hori, Jaincoaren ganic igurikitcen zukeien gracia bat bezala. Haren ahaide eta adichkideac aldiz harrituac eta


tristatuac zauden; eta Aita Sainduac berac barna hartu zuen bere aphez frantses maiteari erori citzaion curutcea. Zonbat estimatcen zuen iracusteco, Franteiarat itzultceracoan, Pio IXgarrenac eman izan cion izcribuz, aphezpicuwi zor zaioten ohoren izaiteco, eta heiec dituzten marca berecien ibiltceco dretchoa.

Zonbat aldiz, mundu huntan, gu lotsatcen eta icitcen gaituen nahi-gabe batec guretzat edo bertcentzat badauzca guc uste ez bezalaco ondorioac! Aphez saindu hunec sortcetie izan zuen bihotz on eta estuac orai ekharrico ditu bere fruituac. Beroc galdegin zuen bezala, ethorri citzaion gaitzac uzten cion ahala bere estatuco eginbide sainduen bethetceco. Hasi cen beraz oraino ere Parisen predicatcen, cofesatcen, arimen consolatcen eta conbertitcen. Jaincoac daki cer ongi egin duen hogoi eta bortz urthez handiei; bainan hanitz gehiago egin duke ttipiei, gaztei, oficiate-aprendiceei. Heientzat, aphez lagun batec izcribatuz, egin ditu asco liburu eder eta iracaspen baliosez betheac, bainan bethi jende chehearen eta haurren menecoac. Liburu hetaric bat da escuaralat itzuli dutan Mariaren hilabete hau.

*Eta orai Maria Birjina dohatsis, ene Ama mai-
teari escaintcen diot liburutto hau. Heda bedi Es-
cual-herri gucian, sar bedi etche gucietan Ama on
horren gehiago ezagut-ara-teco eta maita-ara-teco.*

*Ustaritzeco comentuan, Martchoaren 25^{ean}
1890^{ean}.*

M. HÉGUY, Apheza.



ANDRE DENA MARIAREN HILABETEA

BEZPERACO

**Cer da Mariaren hilabetea eta nola behar da
iragan?**

Mariaren hilabetea maiateco hilabetea da. Mariaren hilabetea deitzen dute, ceren ehun urthe huntan, Birjina Maria aindu aincoaren Amaren bereciki ohoratceco hautatua den.

Hogoi eta hameca egunetaco phesta luce eta eder bat da beraz maiatza. Hilabete huntan arima jaincotiarrec Ama Birjina bertcetan baino gohiago dute othoi ten, eta urthe gucian ba no berecikiago ohoratcen. Horra cer den Mariaren hilabetea : Maiateco hilabete osoa Birjina sainduari consecratua.

Eta certaco Ma atceco hilabetea, eta ez bertce bat? Maiatza primaderaren eta loren hilabetea delacotz, sasoin ederraren abiapena. Lore eder bat da Birjina Saindua; Jaincoaren graciaren

usain ona hedatzen du mundu gucian, haren fruitu baliosa da Jesus-Haurra, gure Jaincoa eta gure Salbatzailea. Gauaren ondotic, sornabalac eguna bere argi ederrarekin hitz-emaiten duen bezala, munduan agertu cenean Birjina Saindua, Jesu-Cristoren sornabala bezala cen, becatoros gaichoei agintzen baitcioten eroszailearen ethortcea.

Bertzalde maiatza garizumaco berrogoi penitenciazco egunea ondotic heldu da. Giristinoac, denbora ser os horren garratzasunean akhituac, maiatceco debocione bozcariozcoac sobera phausatcetic eta aisia hartcetic begiratzen ditu. Lan errech eta alegera bat da akhitgarri baten ondotic.

Eta gero, primaderac gaztetasun suerte bat emaiten dio naturalezari, nola hegastinei, bici berri eta arinago bat. Amoreagatic eta primaderaren alegrancia hori ez dadien arinkeria lanjerosetarat terra, chuchen heldu da Ama Birjinaren amodioa, bere amultsutasun, bere innocentia, bere alegeratasun gozoarekin, bicitasun horren ezitceco, gure gogoen, bihotcen eta mihién Jainco maitea ganat itzultceco.

Nori ethorri othe zaio burura lehenbicicoric Maiatzaren Birjina Sainduari contsecratcea? Ez seguric debruari. Piciki heldur da debrua Maria Sainduarentzat. Badaki Mariaren ondotic heldu

dela bethi Jesus, argi hastearen ondotic eguna, lorearen ondotic fruitua bezala; egin abalac egiten ditu giristinoen Maria ganic urruntceco. Arrazoin gebiago guretzat Mariaren hilabetearen ongi bethetceco.

Erruman, Elizaren hiri buruzagian berean, Lalomia deitzen cen jesuist batec izan zuen Mariaren hilabetearen egiteco gogo dohatsua, juanden mendearen erditsutan, duela chun urthe baino gehichago. Errumatic debocione balios hori hedatu cen Italia gucian, Francian, Espainian, mundu gucian.

1815^{an} Pio VII Aita Sainduac eman cioen bere baimena goraki. Eta Mariaren hilabetearen egitera giristinoen lehia-arazteco, eman zuen, Birjina Saindua hilabete hortan bereciki ohoratuco duten gucientzat, hiru chun egunen indulgentcia egun bacotch, eta maiatcean behin indulgentcia osoa, comunione saindua deboki egiten dutelarie. Irabaz ditezke indulgentcia horiec beretzat edo purgatorioetaco arima gaichoentzat.

Bainan berrogoi edo berrogoi eta hamar urthe huntan, carisutasun eta edergailu gehiagoeekin ohoratcen da Mariaren hilabetea. Orai ez da mundu gucian giristino catolico herri bat Birjina on horren hilabetea egiten ez duenic. Celebratcen dute Misione urrunenen zolan, Oceanian, Chinan, African, Ameriketan. Bozcariozco

phesta bat da salbaia batheiatuentzat berentzat. Zoin eder eta consolagarri den lurraren pharte gucietaric ceruco erreginaren tronurat hegaldacatcen diren othoitcei eta laudorioei juntatcea maiatceco egun guciez.

Nahi duzu zuc ere, giristinoa, Mariaren hilabetea segurki egin, bainan hortacotz cer da egiteco? — Deus errechagoric. Oroz gainetic, debocionea eta Mariaren amodioa bihotceco gauza batzu dire. Eta behar bada zoubet pratica, ez da biciki hanitcen beharric, eta ez gaituzte secular gure eginbidetaric gibela-araci behar.

Huaa nola Andre Dena Mariaren hilabetea deboki iragan ditakeien.

Lehenbicoric, ahal becen bat, giristinoec elizan elgarretarat bilduric egiten duten debocionean aurkbitu behar da. Ez da deus hoberic, ederragoric eta baliosagoric. Han giristinoec elgar sustatcen dute, elgarrekin othoitz egiten, Birjina Sainduaren laudorioac dituzte cantatcen, haren berthuten chehetasunac aditcen.

Bainan ez ditazke oro elizaco bilcurarat hel, hartacotz egin behar da Mariaren hilabetea familiar. Ganbara batean moldatcen da aldaretto bat, Andre Dena Mariaren potret bat lorez inguraturic. Arratsean familia gucia biltcen da, iracurtce labor bat egiten : erraiten dire Ama Birjinaren litanias, arrosorioa, edo bederen pharte,

eta nahi bada, acabatceco, cantica bat canta ditake.

Etz balin badezakezu ere : gin familian Mariaren hilabetea, ez lotsa, gizu zure Aingeru begiralearen compainian : lagun horrec bertce bat balio du. Ganbara chokho batean ezar Mariaren potrettoa, belhaunica goiz arrats haren aintcinean, Ama onaren benedicionea galdugiten duzularic.

Haurren lana da bereciki aldaretto haren bezitcea, loren aldatcea, berriac ekharriz egun guciez, ahal becen ederrac, beren arimen iduricoac. Eta Ama Birjinac heien arima maitatuco du, Jesu-Cristo Parabisuco eta Aingeruen lorea maite duen bezala.

Erruman, Italia guctan, Espainian, bertce ascotokitan, fededunec, eta ascotan pobrenec, atchikitcen dute lampatto bat bethi piztoa beren etchentan Ama Birjinaren aincinean, usaia hunkigarria eta ederra baita.

Escain ditzogun gero gure Amari zonbeit mortificacione, zonbeit amona pobre eginen ditugunac; eta oroz gainetic bihotz garbi bat, bekhatu gucietaric urruntcera lehia ua. Horra hilabete huntaco egun bacotchean, gure Aingeruac Mariari bozcariorekin helduco dioen buketa, eta ordainez ekharrico deraucu Ama on horren benedicione gozoa.

LEHEN EGUNA

Cer den Birjina Saindua eta certaco behar den hainbertce ohoratu eta maitatu

Badakizu segurki, girstinoa, Birjina Maria Saindua Jaincoaren Ama dela, gure Creatzaile eta Salbatzailearen Ama. Badakizu, bainan behinere ongi phentsatu duzuia?

Jesusen ondotic, Jesus Jainco baita, ez da ceruan ez lurrean deus handiagoric, hoberic, perfetagoric, miragarriagoric, maitagarriagoric Birjina Maria Saindua baino. Egia da creatura choil bat dela, zu eta ni bezala, bere baitharic deus ere ez da, eta deus ez du; oro ukhanac ditu Jaincoa ganic; bainan hainbertce ukhan du, hainbertce graciaz berhea izan da, hain gora altehatua da, nun ez baita creatura bakhar bat urrunetic ere hari compara ditekenic.

Eta ez da miresteco Jaincoac creatura bat hainbertce aberats cezan, ezen creatura hau Aita Cerucoac egia du bere lurreco espos; semeac, bere Ama; eta Izpiritu Sainduac bere templo eta egoitza garbia. Deus etcen beraz ederregi Jaincoaren espos, Jaincoaren Ama eta Jaincoaren egoitza cenarentzat. Hortacotz Birjina Sainduac ceruan badu toki bereci bat, Saindu eta Aingeru guciec baino biciki gorago. Bakharra da Jain-

coaren Ama; Aingeru eta Saindu guciac ez dire haren sehi baicic.

Ama Birjina handi eta on horren ikhusteco zoriona izan zuen ascotan presuna gazte berthutos batec. Maria Latasta deitzen cen; ez du hanitz dembora hil izan dela serora. Bihotz sacratuco comentuan, Reneco hirian. Haren inocentcia eta saindutasun goiztiarraren gatic, dudaric gabe, Jaincoac haurretic graciatic handienex fagoratu zuen. — Egun batez, Jesusec iracutsi cion bere Ama, ceruticaco argi eder baten erdian, bere herrico eliza itipian, aldarearen aitecinean : « Be-
« hatu nion atentcionerekin, dio Maria Latastac,
« haren begitartea iguzkia becen distiranta cen,
« haren arropa churia eta izarstatua, ilea zuen
« gibelarat, estalia belo churi argiaren pareco
« batez; buruaren gainean, izarrac baino disti-
« rantagoco diamant coro bat. Egundaino ikhusi
« ditudan argi gucietan etcen halacoric, salbu
« ene Salbatzailea baithan ikhusi dutana. Iguz-
« kiaren argia hits liteke haren aldean. Eta biz-
« kitartean iguzkiaren samintasuna ez dezakete
« ene begiec jasan, eta Mariari behatcen nion
« haren distiradurac lilluratu gabe. Ene arimari
« haren ikhusteac zoriona emaiten cion.

« Jesusec erran zautan : « Munduaren salba-
« menduaren eta munduari emanac zaizcoo gra-
« cien ithurburua ni naiz. Bainan ez ditut ni-

« haurec chuchen munduari emaiten, Mariaren
 « escuetan gairdi igortcen ditut. Jainco Aitare-
 « kin eta Izpiritu Sainduarekin hautatu dut ene
 « Ama, creaturetan handiena, ceruco dohainen
 « lurrerat ichurteco. »

Holacoa da Ama Birjinaren handitasuna eta edertasuna; ez, egin ahala eginic ere, ez dugu aski ohoratuco. Entseiu guciekin ez dugu behinere Jesusec bezala maitatuco. Adoracioneaz canpo, ez baita Jaincoa baicik adoraticen, emanzkiotzu ohore, laudorio, amodio ahalac oro, ez duzu eginen Birjina Sainduac mereci duen becenbat, eta zor zaion becenbat. Ceruan berean gure ahalac zucen litekenetic urrun geldituco dire.

Saindu guciec maitatu eta ohoratu dute Birjina Saindua debocione bereci batekin. San Frantse-sen ordreco fraide humil bat, Pascal Baylon, miragarria izan da Mariaren alderat. Lau bortz urthetaco, loriaticen cen arrosorioaren erraiten, eta haren elicen bisitaticen. Emazte pobre eta langile bat baicic etcena, bainan giristino cartsua, haren ama entseiatcen cen artharekin debocione gazte horren hazterat eta emendatcerat, bere haurrari iracutsiz othoitz andana bat.

Andre Dena Mariaren cerbitzari ttipitto hori obediencia eta errespetuduna cen bere aiticine-coentzat, bere haurride gucien modela. Etcen

menturatzen bat gaizkiric egitera haren aitcinean. Bizkitartean etcituen zazpi urthe baicic. Aitac eman zioen arthaldea zaintcerat. Haur jaincotiarrac eramaiten zuen alhatcera Mariaren capera bati buruz; eta han belhaunico, amac iracatsi othoitzac oro erraiten cituen. Caperatic urrunchago juan behar zuenean bere arthaldearekin, bere buruaren consolatceco ibiltcen zuen berekin Mariaren potretto bat. Estecatcen zuen makhilaren puntan curutcetto bat; eta belhaunico hasten cen Birjina Sainduarekin solasean, erraiten ziozcalaric bere othoitz guciac batzu berteen ondotic.

Sarthu cen gazteric San Fransesen ordrean, eta bilhacatu saindu handi. Fraide ichil eta apha bat baicic etcelaric, Italia eta mundua bethe ditu bere miraculuen famaz.

Bertce saindu handi bat, gazteric hil dena, gazteriaren etsemplua eta patroina, San Stanislas de Koska, hain cen Mariaren maitatzaile eta ohoratzaile. nun bertce Jesus bat iduri baitzuen. Haur haurretic bere Ama eta Erreginatzat hartu zuen Birjina Saindua. Etciteken haren aiphaticetic ichil. Bethi escuetan zabilcan harren arrosorio, potret edo liburu bat. Sustatcen cituen oro haren cerbitzari sartcerat. Galdegin zuen Andre Dena Maria agorrilacoan hiltcea. Hortaco, bere chinplecian, Birjina Sainduari letra bat

izcribaturic, bethi bere bihotzaren gainean zuen comunione saindua egitean. Entzuna izan cen. Eritu eta hil cen Andre Dena Maria goicean, arrosorioac escuan. Ceruco Erreginari bidali cion bere arima, jadanic saindu handi, nahiz etzuen hemezortci urthe baicic.

O Birjina Maria Saindua, indazu niri ere gracia zure cerbitzatceco eta maitatceco ene bicico egun guciez, azken hatseraino.

BIGARREN EGUNA

Nola den Birijina saindua Jaincoaren egiazco Ama

Jaincoaren Ama izaitea denaz geroz Birjina Mariaren loria handiena, eta gure errespetua eta ohoreac oroz gainetic merci dituena, ikhus dezagun egiazki Jaincoaren Ama dela Andre Dena Maria.

Errazu, zure ama egiazki zure ama deia? Zure presunaren ama, ala choilki zure gorphutzarena? Badakizu, presuna bakhotchac baditucla gorphutza eta arima. Ihardetsico dantazu: Ene ama nere presuna osoaren ama da, eta ez choilki ene gorphutzarena, osoki haren haurra naiz. » — Ongi. Bizkitartean zure arima ez dautzu zure amac eman, zure arima Jaincoaren ganic heldu da chuchen. Eta nahiz zure arima, zure

pharte principala ez duzun amaren ganic, zure ama egiazki zure presuna osoaren ama da, eta zu haren haurra zare.

Hortic ikhusico duzu nola den Birjina Saindua Jaincoaren Ama.

Jesu-Cristo baithan badire bi naturaleza, Jaincoaren naturaleza eta gizonarena. Bi naturaleza horiec elgarrekin batean ez dute egiten presuna bat baicic, eta Birjina Saindua presuna haren Ama da, Jesu-Cristoren Ama, zure ama zure ama den bezala. Bai, nahiz ez dion eman Birjina Sainduac Jesus bere Semeari gizonaren naturaleza baicic, eta ez Jaincoarena; nola Jesu-Cristo ez baita presuna bakhar bat baicic, Maria Jesu-Cristo osoaren Ama da. Eta nola Jesu-Cristoren presuna Jaincoaren Semearen beraren presuna izari gabe eta eternala baita, orotan Aita eta Izpirtu Saindua becenbat dena, egiazki Jesu-Cristoren Ama, Jaincoaren Ama da, Trinitate sainduco bigarren Presunaren Ama.

Jesu-Cristo Jaincoaren eta Birjina sainduaren semea da, Jainco bat gorphuz eta arima bat jauntci dituen. Jesusen gizontasuna Jaincoaren gizontasuna da, eta Birjina Saindua Jainco gizontasunaz bezituaren Ama.

Izan cen bertce orduz, Constantinopleco hirian aphezpicu bat, Nestorius deitceu cena. Horiec oro bere buruan nahasiric, atrebitu cen erraitera

Birjina Saindua etcela Jaincoaren Ama, bainan choilki Cristoren Ama, erran nahi baita gizon haten Ama, Jaincoaren Semeari juntatua den gizon batena.

Predica alkhiairen gainetic blasfemio hori predicatu zioten Constantinopleco girstinoei. Bainan haren azpicoec bazakiten catichima; samurturic, ihardetsi cioten: « Ez, Jesu-Cristo ez da choilki gizon, Jainco da, eta Birjina Saindua egiazki Jaincoaren Ama da. »

Aucia juan cen Aita Sainduaren aitecinerat, hura delacotz aphezpicuen aitecindaria, eta fedezco gancen juie ecin enganatua. Orduan Erromaco alkhian cen san Celestin I^o. Bildu zuen Asian, Efececo hirian, mundu gucico aphezpicuen concilio jeneral bat, Nestoriusen iracuspén gezurrezcoaren condenatececo.

Efececo concilioa ideki cen 431^{en} solenitate handienarekin. Goicetic Efececo jendea, concilioco Aitac bilduac ciren elizaren inguruan zagon. oihuz galdegiten zuela Birjina Sainduaren ohorea garbi ezaten Nestorius, hiruetan concilioaren aitecinerat deithua, eicen agertu nahi izan. Gord a zagon, bere etchea zain-araciz soldado tropa bati, populuaren beldurrez.

Arratsean azkenecotz, concilioco atheac ideki ciren, eta san Cirilo Alexandriaco patriarca jalgi cen concilioaren phartez populuari adiaraztera:

« Egiazki Birjina Saindua Jaincoaren Ama dela. Nestoriusec blasfemio bat cioela contrarioan thematuz, etcela gehiago Constantinopleco aphezpicu. » Efececo hiria ordu berean airatu zuten alegrantciazco cantuec. Etcen bazter gucietaric bozcariozco oihuric baicen : « Ohore Maria Jaincoaren Amari! Bentzutua da Birjinaren etsaia! Ohore Jaincoaren Ama handi, errespetegarri, loriosari!!! » Ilki cirenean concilioco Aitac, lagundu cituzten beren etchetarat, mila argiren erdian. Laster Asiaco giristinoen bozcarioa hedatu cen mundu gucian.

Ordu artino *Agur Mariac* etcituen Aingeruaren eta Santa Elizabeten solasac baicic; egun handi horren orhoitzapenetan eratchikiac izan citzaizcon hitz labur eta hunkigarri hauc : Maria Saindua Jaincoaren Ama, egizu othoitz gu becatorosentzat, orai eta gure heriotceco orenean. »

Nestorius gaichtoa jazarri nahi izan citzaioten Aita Sainduari eta Concilioari. Bainan enperadoreac jakin zuenean egia, utci zuen, eta desterrurat condenatu. Etcen behinere sumetitu; zortci urthe bici izan ondoan errabia bere bihotz urgulutsuan eta blasfemioa mihian, hil cen tristeki, gorphutza usteldua. Eta mihia, Birjina saindua blasfematu zuen mihi atrebitu hura, cioena : « Nihorec erraiten badu Maria Jaincoa-

ren Ama dela, madericatuia izan bedi, » mihi hura harrec jan cioten oraino bici celaric.

Erran ditzagun beraz cartsuki Jaincoaren Ama ohoratcen duten *Agur Mariaco* hitz horieci. Lauda dezagun Jesu-Cristo, ceren hautatu duen Birjina saindua bere Amatzat, alichatuz hain grado handi eta miragarrira, nun ez baitezake creatura bat Jaincoac berac gorago hel.

San Domingoren Ordreco presuna saindu bat, Margarita deitzen cena, Hongriaco erregeren alaba, bere aita amec Birjina sainduari consecratua, hasi cen Jaincoaren Amaren cerbitzatcen cerbeit conprenitu zuen phundutic, zonbeit solas eta urhatsen egiten hasi orduco. Hiru urthe eta erditan eman zuten serora Dominicanoen escuetan. Sei hilabeteren buruco, doidoia lau urthe cituelaric, bazakien Birjina sainduaren officioa gogoz, eta erraiten zuen serorekin. Josteten artetic, bere lagunac eramaiten cituen elizarat, Mariari agur erraitera. Andre Dena Mariaren phesiac bozcariozco egun batzu ciren harrentzat, escaintcen cion orduan mila *Agur Mariaco* buketa handi bat.

Imita ditzagun debocione eder eta gozo horieci. Galdegin dezogun Jesusi, sainduec ohoratu eta maitatu duten bezala, Mariaren ohoratceco eta maitatceco gracia.

HIRUGARREN EGUNA

Birjina Saindua Aingeruen erregina miragarria dela.

Mila miliunca badire Izpiritu garbiac, gure anaia ageri ez direnac, mundu hau bethetcen dutenac gure arimac gure gorphutza bethetcen duen bezala; eta Jesu-Cristo gure Jauna, Jaincoaren eta Mariaren Semea, Aingeruen Jainco da, Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin heien Creatzaile eta Nausi soberanoa. Beren Errege eternala bezala maitatcen eta adoratcen dute Aingeruec.

Birjina Saindua bere Ama eginez Jesu-Cristoc ceruco Erregina egin du. Manatu diote bere gorteco cerutiar cerbitzari guciei ohora, errespeta, maita eta obedi dezaten.

Birjina Saindua Aingeruen artean, lurrean Errege handi baten ama bere azpicoen erdian bezala da. Ceruco Erreginaren alderaco egitate char guciac erregeri egin afrontu batzu litezke.

Badire Aingeruetan bederatci grado; aphaleuac berac arras botheretsu dire; ttipienac biciki handi.

Cerutiar Izpiritu heien lehenbicico gradoa da Aingeruen, Aingeru chinplen gradoa. Aingeruec cheheki condu daucate munduan gauza guciac juan ditecen Jaunaren manuen arabera. Gerla

egiten diote izpiritu gaichtoei, eta gu laguntzen gaituzte, beren ahal gucietz, Jesu-Cristo beren eta gure Jaincoaren cerbitzatzen eta maitatzen. Bada Aingeru horietaric conda ahal baino gehiago. Eta Birjina Saindua da Aingeru horien oroen Erregina.

Aingeruez gorago da Arcanjeluen gradoa, handiago eta perfetago baitire, armada batean aiticindariac soldadoez gorago diren bezala. Arcanjeluen aiticinean dire izpiritu dohatsu batzu Elizac Principalac deitzen dituenac, heien cargua baita herriei eta erresumei conda emaita. Birjina Saindua Arcanjeluen eta Principalen Erregina da, Jesus heien Jaun eta Errege soberanoa delacotz.

Zoin eder diren horiec oro. Egun batez ikhusicu dugu ceruan becoz beco Aingeru mundu miragarri hori. Heiekin eternitate gucian adoratuco dugu Jainco maitea, laudatuco eta benedicatuco Birjina Saindua.

Bainan ez da oraino aski. Gorago badire ceru-tiarren bertee gradoac, Dominacioneac, Puchantiac eta Berthuteac. Heiec gobernaten dituzte izarrac, argia, sua, airea, ura, lurra..... Eta azkenecotz hiru gradoric gorenac eta ederrenac dire Tronuac, Cherubinac eta Cerafinac.

Jaincoac gauza guti agertu izan daucu Aingeru horien gainean, choilki badakigu heien loria

handia dela, eta heien edertasuna pare gabea. Badakigu Cerafinec khar bici batekin Jaincoaren amodio izari gabea adoratzen dutela; eta Cherubinec bereciki Jaincozco Argia, bethiereco Egia, Jaincoa bera dena, Tronuec beren adoracione bereciez ohoratzen dituzte Jaunaren indarra eta botherea.

Aingeruen bederatzi grado horien aitcindaricen hastetic Cerafinic handiena Lucifer, erran nahi baita argicaria. Jaincoaren creaturetan ederrena, Jaincoaren Seme, Ceruco Errege, egun batez gizon egin behar cenaren azpicoetan lehena. Lucifer urgulutan sarthu cen bere grado eta indar espantagarriez; Jainco Seme, gizon egin beharra etzuen adoratu nahi izan. Eta atrebentcia hobendun berarekin jarraiki citzaion Aingeru andana handi bat. Heiekin ceruco loriatic casaturic, aurthiki zuen Jaincoac betiereco su leicetarat. Berice egun batez mintzatuco gare aingeru gaichtoez, eta ikhusico dugu nola Birjina Sainduac debruac icitcen dituen.

Aingeru onec, Jaincoari leial gelditu direnec, Birjina Saindua beren Erreginazat daucate. Haren loriaz eta zorionaz bozcariatcen dire; baratu gabe, laudatcen, benedicatcen, maitatcen dute.

Aldi batez, san Frantses Asisacoac izan zuen zoriona Mariaren ikhusteco, cerntiar Izipirituez inguratua, izar bat bere argiaren distiraduraz

bezala, Asisan berean, Porcioncula deitzen den capertatoan. Frantses bere ganbaran zagoen, caperatic hurbil, othoitza iraun-araciz gauaren erdian harat, nigarrekin becolorosen conbersio-nearen galdez. Betbetan aingeru distirant bat agertu citzaion, cioela : « Frantses, haugi cape-raralat. Jannac igurikitzen hau bere Amarekin eta Aingeruekin.

Saindua badoba laster Porcioncularat, handic ageri baitciren canta ezti bat eta argi eder bat. Athea idekitceare! in ikhusten du, gauza es-pantagarri eta choragarria! ikhusten du alda-rearen gainean, ceruticaco distiradura batekin, Jaincoaren Ama, Jesus-Haurra besoetan. Haren inguruetan milaca Aingeruac, argiz beztituac, cantatzen cituztela lurrac behinere entzuten ez dituen canta batzu.

San Frantses ahuspez, cerafin baten amodio eta zorion berarekin, menturatzen da Jesusi erraitera : « Ene Creatzailea, ceru lurren Jauna, ene Salbatzailea, Amodio etiza, nola zure handi-tasuna aphaltu da nitaraino? Eta nola hautatzen duzu capera errumes hau zure Amarekin eta Aingeruekin jausteco? »

Gero galdegin ciou induljentcia handi eta bereci bat, deitua izan dena (Tiers-Ordrean sar-thuac direnec dakiten bezala) Asisaco barca-mendu handia, edo Porcionculaco induljentcia.

Behin Jesusec iduri zuen etzuela othoitz hori onhetsi nahi. « Galdegiten ducana handia duc, cioen, eta ez diat nere cerbitzarietarie bihibati holacoric eman; baina eue Amac galdegiten badaut, emanen daiat baren gatic. » San Frantses itzultcen da Birjina Sainduaren alderat, eta othoizten du ararteco balia dakion; Aingeruec ere egiten diote galde bera. Mariac bere cerbitzariaren othoizta bere Semeari heldu orduco. Jesusec eman cion galdegin fagorea, baina choilki san Frantses juaen celacoan baimenaren galdatcera Aita Sainduari, Elizaren aitecindari eta induljentcien emale soberanoari. Aita Sainduac onhartu ondoan, Porcioncalaco indulgentcia hedatu izan da emeki emeki Franciscauoen eliza gucietarat, eta bertce ascotarat.

Guc ez dugu mereci Sainduac bezala mundu huntarie Aingeruen Erregearen eta Erreginaren ikhustea; baina ethorrico da egun bat Jaincoaren misericordiac ceruco erresuman sar-aracico baititu bere cerbitzariac; eta izanen dugu zoriona Birjina Sainduaren Aingeruekin eta Arcanjeluekin, Cherubinekin eta Cerafinekin ikhusteco, laudatceco eta maitatceco.

Arte huntan erran dezogun bihotcez eta cartsuki Elizarekin batean : *Ave Regina caelorum*, *Ave Domina Angelorum*, Agur ceruco Erregina, Aingeruen Erregina.

LAUGARREN EGUNA

Nola Birjina Saindua egiatzki giristinoen Ama den

Hala nola baitire gure baithan gorputza eta arima, arras bat bertzea ez bezalacoac, gisa berean badire bi bici osoki bereciac : Gorputzaren bicia eta arimarena; gorputzarena materiala, arimarena izpirituala; gorputzarena naturala, arimarena naturalezaz goragocoa; gorputzarena, gizonarena eta arimarena jaincozco bici bat.

Gorputzaren bicia egiten du arimaren eta gorputzaren batasunac. Batasun hori barreiatcearekin, gorputzaren bicia gelditcen da, jendea hila da. Arimaren bicia aldiz egiten du Jaincoarekilaco batasunac. Graciac egiten duen batasun hori trencatcearekin, arimaren bici izpirituala gelditcen da, hila da arima Jaincoaren aĩtcinean. Jesusen ganic berechia, graciaz gabetua, heriotce izpiritualean dago, ifernuco haci. Bekhatu mortalac berechten du arima Jainco maitearen ganic, eta graciaz harekin bat egiten.

Eta orai, giristinoa, erran ezadazu : Norc eman derautzu gorputzaren bicia? Zure aitac eta zure amac? Zure amac zure aitac becen ongi? Gauza bera da zure arimaren biciarentzat; heldu zautzu zure Aita cerucoaren eta Birjina Saindu zure Ama cerucoaren ganic. Eta Jaincoac ez

derautzu emaiten Birjina Sainduaren bidez baicic. Zure ama, gorphutzaren bicia eman dautzulacotz, zure ama den bezala, Birjina Saindua zure arimaren Ama da, ceren eman dion, eta ichtant guciez emaiten arimaren bicia, Jaincoarekin batasunean ezarten gaituen gracia. Horra nola den Birjina Saindua giristino gucien, Jaincoaren haurren, Jesu-Cristoren anaien Ama.

Saindu handi batec, Gertrude, Pepin Brabanece dukearen alabac ikhusi zuen, egun batez, Birjina Saindua heldu citzaiola begitarte amultsu eta maiestatedun batekin. Eguberri cen, eta ebanjelioa cantatcen ari cen : ebanjelioac cioen Mariac eman zuela mundurat bere Seme lehen-sorthua. Santa Gertrudec egiten zuen bere buruarekin Ebanjelioac hobeki egin zukeiela erraittea Seme lehen-sorthuaren orde, bere Seme baxharra, ceren lehen-sorthuac adi-arazten baitu bertceric izan dela. Bainan hupa nun Birjina Saindua agertcen zaion, ihardesten duela haren gogoetari : « Ez, Seme baxharra baino hobeki da Seme lehen-sorthua, ceren Jesus, ene Seme amultsuaren ondotic, eman baitautzuet orori arimaren bicia, ene haur bilhakatu baitzarete eta Jesusen haurride. »

(Bertce Jaincoaren cerbitzari batec, santa Mathildac iracurtcen cituen egun batez Jesu-Cristoc curutcearen gainetic Mariari eta Jondoni

Juaniri erran hitz hauc : « Horra zure Semea — Horra zure Ama. » Ethorri citzaion gogora, behar ciola Jesusi galdegin Jondoni Juaniri egin cion gracia : « Ene Salbatzaile ezta! Errozu ene fagoretan zure Ama Sainduari Jondoni Juaniren fagoretan erran ciniona; errozu : « Horra zure « alaba. » Eta ordu berean entzun zuen Salbatzailea bere gomendatcen Birjina Sainduaren amodioari eta arthari. « Ichuri dut ene odola, cioen Jesusec Mariari, Santa Mathilda iracutsiz; sofritu dut, hil naiz horren arimarentzat. Osoki euea da, emaiten derantzut alabatat. »

Mathilda, bozcariotan eta confidentciaz be-thea, menturatu cen gebiagoren galdegitera. Othoitztu zuen Jesus, eman cezoten gracia bera fede bici batekin galdatuco zuten guciei. Eta Jesusec ihardetsi cioen : « Bethi emanen dut gracia hori, cartsuki galdeginen duenari. »

Hamabi urthetaco haur, doidoia lehen comunionea egin zuen batec, bere ama baicic etzuen; czagun den bezala hanitz maite zuen, eta amac behar bada gebiago haurra. Eman zuten semenario tipian escolatceco. Handic zoubet hilabeteren buruan, ama betbetan eritu cen, eta bizpahiru egunic barnean hil. Umazurtz gaichoac etzakien oraino berri ikharagarri hori, eta Semenarioco superiora etcitekeien erraitera mentura. Oharturic Birjina Sainduarentzat bazuela

debocione bereci bat, gogorat ethorri citzaion behar zuela Mariaren laguntza galdegin. eta hari umazurtz gaichoa gomendatu. Paratcearen zolan bacen Birjina Sainduaren potret bat, haren aitecinerat baitzobacin haurrac, eta bereciki hau, beren othoitcen egitera. Ekhar-arazten du beraz superiorac haurra, hartcen du escutic eta juaiten, deus erran gabe, Birjina Sainduaren oinetarat. Belhaunicatcen da haren aldean, eta es-curearekin iracutsuric Mariaren potreta, erraiten dio : « Ene haurra, huna hemendic aitecina zure Ama. » Haur gaichoac comprenitu du : hasten da nigarrez, besarcaccen du bere superiora. Gero bere nigarren artetic Birjina Sainduari behatuz, amodio eta confidentcia handi batekin egiten dio othoitz hau : « O Birjina Saindu ona ! galdu dut ene lurreco ama, barca dietzadatu ene nigarrac. Gomendatcen derautzut, ezar azu zurekin ceruan ; eta har nezazu egun zure haurizat, aitaren eta amaren ganat cerurat altchatu artino. »

Guc ere gomenda ditzogun gure arima eta arimaco bakea egun guciez Mariari, eta erran dezagun : « Amodio eta ohore giristinoen Amari, gure Ama maiteari ! »

BORTZGARREN EGUNA

Andre Dena Maria bereciki haurren Ama eta Begiratzaillea dela

Ongi zucen da hala izan dadien : girstino haur batec ikhusten du bere aman, ceruco Ama Birjina Mariaren potret bicia; gisa berean Birjina Sainduac ikhusten du haur girstino batean Be-telemen eta Nazareten bere besoetan zuen Jesus-Haurraren potreta. Girstino haurrac Jesus berri batzu dire Birjina Sainduarentzat, haren bigarren semeac, Seme lehen-sorthuaren iduricoac. Zonbatenez ere inocentago eta cartsuago, hobego eta eziago, obedientago eta Jaincoari fidelago baitire, hanbatenez gehiago Ama Birjina orhoit-arazten dute bere Jesus-Haur maite eta adoragarriaz. Horra certaco Mariac maite dituen haur prestu eta jaincotiarrac, eta certaco haurrac beren baitharic ekharriac diren Birjina Sainduaren maithatcera eta othoitztera.

Oroc badakigu zoin agradatzen zaioten haur ttipiei Andre Dena Maria Jesus-Haurra besoetan; behatzen diote bozcario bici batekin. Birjina Sainduaren icena johan zaiote bihotcera. Segurki hor bada graciazco jite bat, heldu zaiotena bathaiotic eta Jesu-Cristo heien bihotz ttipi eta garbian bici denaren ganic. Haurrac ez du oraino comprenitcen ceruco Jaincoa, bainan compre-

nitzen du eta laster maitatzen Jainco-Uaurra, bera bezala amaren besoetan eta bihotzaren aldean ikhusten duena.

Saindu gehienec haurretic senditu dute Birjina Sainduaren alderat bere baitiaric bihotza ichuria. Hamabortzgarren mendean, Belgican guciz famatua cen sainda bat, santa Luduina, haur haurretic Birjina Sainduaren amodio eta gracia bereciez izan cen fagoratu. Ougi mintzateen ikhasi baino lehen, entzuten zuten *Agur Maria* mothelca erraiten. Gaztedanic hasi cen aurkhitzen cituen lekhu gucie an Misericordiazco Ama horren potretel agur egiten. Zazpi zorci urthetaco saricen cen auzoco eliza batean, Mariaren potret baten ahuspez ohoratceco. Echeceoc igortzen zuten bere anaien hascariarekin, eta haur saindu horre juaitean eta etcheracoan, ichilic bisitatzen zuten ceruco Ama ona. Egun batez, uste baino gelichago egon cen Mariaren oinetan, eta amac gaizkiac erran ciozcan bidean denbora galduric, eta galdegin cion idorki nun abusatu cen hain luzaki : « Ez samur, ama, ez samur, othoi, ihardetsi cion haurrac, izan naiz Birjina Sainduari agur erraiten. Be atcen nice-laric eta besoac hari buruz hedatcen utuelar c, ikhusi dot irri batez ihardesten zantala. » childu cen ama, eta bihotzaren zolaraino hunkitua, hasi cen eskerren emaiten Birjina Sainduari, ceren

egiten zuen haren Luduina ttipja hain ona eta hain saildua.

Eta berriki, Afr caco beltce aric, nechca gaicho bat, misionest batec eresia Turco gaichto bati, Italiaco hiri bate n. Bisitacioneco serorei izan cen gom udatua. Bathaio sailduan eman cioten izena Josefina. eta hil cen haur gaicho hori bederatci urthean, orotaz saildu ezagutua. Egun batez juan citzaion comentuco superiorari: « Ama, behar derautzut erran gauza bat biciki gogoan dutana. Bainan beldur naiz etzaren content izanen. » — « Cer duzu, haurra, zonbeit pena? » — « Ez, ama, nahi, zaitut othoixtu, content bazira, utz nezazun botu egitera, urthe batez arropa urdinaren ibiltceco Birjina Sailduaren ohoretan. » — « Norc eman dantz u hori burura? » — « Nihorec ere, nihorec ere; ene Aingeru onac erran daut. » — « Bainan certaco nahi duzu egin botu hori? » — « Birjina Sailduac eman dezadan aurthen hilceco eta haren ganat cerurat heltceco gracia, edo bertcenaz aphur bat sendatcen banaiz, serora egiteco. O hain nahi nuke serora izan! » Desiratcen zuen fagorea ardietsi zuen. 1855^{ean} Abendoaren 8^{an}, Concebicione garbieren egunean, comuniatu ondoan, beltch ttipitaco juantci zuen Birjina Sailduaren colorea. Eta alderdi gucietaric behatuz haren larru beltzarekin hain eite guti zuen bere arropa urdi-

nari, erraiten cion : « O Birjina Sainduaren arropa maitea, zoin content naicen hi juanteiric. O! Maria, Ama ona, eman derautazu zure arroparen ibiltceco gracia, eta emanen seroren beztimendaren hartceco ohorea. » Izan zuen fagore hure ere, bainan heriotceco mementoan, urthe bat gabe hil baitcen, galdegin bezala.

San Pascal Bailon hamabi hamahiru urthetan igorri zuten artzain, jaun aberats batentzat, Andre Dena Maria Loretacoaren inguruetarat. Lorientua hain hurbil izanez Birjina Sainduaren eliza, bethi alderdi hartarat alhatcen zuen bere arthaldea, Nausiac jakinic, beldurrez ardiac etcitecen balia toki idor eta beilariee tapicatu hartan, galdegin cion certaco etcituen eramaiten alha lekhu hobetarat. Pascalec ihardetsi cion seriestasun ezti batekin : « Ene arthaldea eta ni ongi gare Birjina Sainduaren begiaren menean, haren laguntzac arthaldea gicen-aracico daut lekhu goriee baino hobeki. » Nausia hunkitua izancen fidantcia saindu eta miragarri hortaz. Ikhusiric arthaldearen estatu ederra, utci zuen nahi zuenaren egitera. Bere artzain lagunec maitezuten, errespetatcen zuten; cioten Andre Dena Mariac zaintcen cioela arthaldea. Heiee lanac cituztelarie otsoetarie ardiene begiratcen, hura, gauaz eta egunaz, elizaren ahetan othoitcean zagoen, eta etcizaioten haren ardiei behinere

dens gerhatcen. Escuetan edo lephotic zabilzcan bethi arrosoriac. Ardura erraiten zuen atencione gartsu batekin, eta bertceac biltcen cituen gauza beraren egitera. Ichtant guciez haren aha-paldiac ciren : « Birjina >ainduac lagun nezala. — Jaincoaren Amac begira nezala. »

Iracurtcen dugu oraino san Frantsesen Ordreco >rispin be>thutosaren bician, bere amac ttipitic iracusten cioela : « Ene haurra, hire behar orduetan ihes egizac Mariaren ganat, lanjere-tan errac berehala : Birjina Saiudua, zato ene laguntcera, eta ethorrigo zauc. » Haurrac atchiki zuen hiltz hori. Egun batez igana cen arbola batetara hiru lagunekin. Adarra hausten da, eta erortcen dire harri batzuen gainera. Crispin ttipiac oihu egiten du berehala : « Zato, Birjina Maria, ene laguntcera! » Bertce hirnac handizki colpatuac dire, hura bakharric chutitcen da, Mariac begiratua, den gutieneco minic gabe.

Beraz, ama giristinoa, gomenda zaitzu zure haurrac ceruco Amari. Zar azu goizdanic haren icen salbagarria heien mihian, eta haren debocione ezta heien bihotz ttipittoan. Eta zuc, haur maitea, entzun dituzun saindu gaztetto horiec bezala, Ama Birjina maita zazu. Eranezozu bantz othoitz, eta egin ahalac oro egin zaitzu haren gogora bicitceco. Eta ceruco Ama horrec han-

di-aracico zaitu, eta giristino on bat jalgiric, cerurat hel-aracico.

SEIGARRIN EGUNA

Birjina Sainduaren Concebicione garbia

Birjina Saindua notaric gabea da, osoki Saindua, bekhatuic batere gabe, ez orijinal, ez mortal, ez benial.

Garbia izan da bere Concebicionean. Erran nahi da Santa Anna bere amaren sabelean concebitua izan cenean, Jaincoac, bere Semearen Amazat zaucanac, bekhatu orijinaletic begiratu zuela. Adamen haur guciac bekhatu orijinalean concebituac dire, errege erori eta desterratu baten haurrac zorigaitcean eta desterruan sortcen diren bezala. Heien aitac ez du choilki coroa galdu beretzat, galdu du bere haur eta ondoco gucientzat. Adamen eta Ebaren ondocoac garelacotz, estatu triste eta zorigaitz izpiritual hortan sortcen gare. Birjina Saindua ez da estatu hortan izan, hortaric begiratu zuen haren Seme laster izan behar zuenaren amodioac, ez baitzuen Jesusen sorthu nahi, ichtant bat ere bekhatuac cikhindu zuken Ama baten ganic.

Concebicione guciz garbia, Mariac izan lehen gracia eta bertce fagore gucien cimendua da.

Hartacotz gracia hori hanitz prezatcen dute harrec eta haren haurrec. Gu bici garen mende hunc berec ki consecratua dela iduri du Birjina Sainduaren Concecibione garbico misterioari. Gerochago aiphatuco ditugu mende huntaco bertce agericeac. gun mintza gaiten Aita Sainduaren 1854^{an} declaracioneaz eta Mariaren Lurdeseco agertceaz.

Abendoaren 8^{an} 1854^{an}, Pio IX Aita Saindu loriosac, Birjina botheretsuaren arartecotasuna berecikiago Elizari eta munduari segurtatzeco, declaratu zuen bere Concecibionearen eta izaittearen lehen mementotic, Birjina Saindua bekhatu orijinaletic miraculuzki begiratua izan dela; egia hori Jaincoaz iracutsia, fedezco articulu bat dela; eta nihor ere ez sinhetsi nahiz thematcen bada, ez dela gebiago catolico, bainan heretico eta giristino arnegatu. Cerua eta lurra bozcariatu, debruac eta gaichtaginac aldiz beren erresuma ilhuetan ikhara-araci cituen egun hura, egun handi bat cen. Han cen jarriric bere tronuan, Londoni Betirico el zan, Pio IX Aita Saindua, han ciren berrehun cardinale, archapezpicu eta aphezpicu; berrogoi eta hamar mila giristino, munduco mintzairc gucietaric, bilduac eliza handi hartarat. Oroc aditu ahal izan zuten Aita Sainduaren boza, fedezco articulu declaratu zuenean. Haren begitarte on eta eder-

ra nigarretan cen, eta hanitcetan gelditu behar izan zuen, acabatu baino lehen.

Handic hiru urtheren buruan, Birjina Mariae nahi izan du berac berriz bere Concebicione garbia declaratu, bere cerbitzari Pio IX^o ihardesteco bezala. Ortegun batez, otsailaren 11^o 1858^o, eta handic hamabortz egunez lerruan, agertu cen Lurdeseco hiri ttipiaren aldean, Bernadeta deitzen cen haur errumes bati. Nechca ttipi eta inocentño hori hautatu zuen Jaincoaren Amac populuen, erresuma osoen, Concebizione guciz garbiaren debocionerat biltceco. Etcen jakintsuna. Erlisionearen beraren gainean deus etzakien. Bainan bazuen khar bereci bat bere arrosorioarekin othoitz egiteco; arrosorioa cen haren jakitate gucia.

Otsailaren 11^o beraz, Bernadeta juana cen, bere heineco bi lagunekin, chotch biltcera, Lurdesen iragaiten den uraren inguruetararat. Harroca cilho baten aitcinera heldua cen. Oinetacoen khentcen ari celarie urean pasatceco, aditu zuen haice handi bat bezalaco harrabots bat. Harritua dago; behatcen du. Ur bazterreco zuharrac geldi zauden, deusec etcituen adarrac igitcen. « Deusic ez da, » egin zuen bere baithan haurrac. Eta berriz ere gurthu cen oinetacoen khentceco. Hainan harrabots bera berriz hasten da. Bernadetac altchatcen du burua eta beha-

teen, membro guciac ikharatcen zaizco. Icitua, eta ikhusten duenac lilluratua, belhaunico erortcen da.

Harroca cilhoan chutic, argi miragarri baten erdian zagon emazte bat, ezin erranezco distiradura batekin. Etzuen lurreco argien egiteric, eta bizkitartean clarki ezagun cen; egiazco jende gorphutz bat, presuna bici bat, bertce jendeac bezalacoa, salbu argi hura eta ceruticaco edertasun bereci bat.

Handitasun ordenario batekin, gazte emaiten zuen. Bainan bacituen, oro betan, haur baten inocentcia eta lañotasuna, birjina baten garbitasuna eta modestia, ama baten seriotasuna eta amultsutasuna. erregina baten maiestatea eta noblecia. Begitartea gracia zarioela, bere begi argietan eztitasun bat bihotz gogorrena urtharaz cezakena; ezpaine an a re ezin erran baino gozoago bat.

Beztimendac cituen munduac ezagutcen ez duen oihal batetatic, mendietaco elhur thonaric gabecoa baino churiagoac eta distirantagoac. Arropa luce zuen lurreraino, bainan oinac uzten ciozcan ageri harrocaren gainean; doidoia zaphaitcen zuen basa arrosa baten adarra, eta oin hutsen gainean cituen bedera urhezco arrosa.

Gerrian ceru colore cintura eder bat, eta har-taric bi banda zabal sabetsean behera abantzu

zolaraino. Belo churi bat buruan, sorbaldac estalitz gibelerat jausten cena. Ez erhaztun, ez colier, ez bertce amaztekien aphaïnduretaric batere.

Arrosorio batzu, bihiac esue chortac becen churiac eta cadena urhezcoa, zauzcan Andre misterios horrec bere bi escuen artean. Arrosorioen bihiac iragaiten ciren, batzu bertcen ondotic, haren erhietan, bainan expainac etcituen igitcen. Etzuen erraiten arrosorioa, bainan erraiten aditcen. Ihardesten zuten haren beharrietan munduco bazter gucietan erraiten diren *Agur Mariec*.

Ichilic zagoen. Etcion bere icena erran Bernadetari berant baicic, Martchoaren 25^{en}, azken aldicotz agertcearekin. — « O Andre ona, galdegin cion haur dohatsuac, erran-ezadazu nor zaren eta cer duzun icena? » Ceruticaco agertceac irri exiti bat egin cion, bainan ez ihardetsi. — Galdegin cion berriz Bernadeta : « O Andre ona, erran ezadazu, othoi, nor zaren eta cer duzun icena? » Argitcen eta bozcariatcen cela gebiago iduri zuen, bainan oraino ere etcion ihardetsi haurraren galdeari. — Hirugarrenean oraino Bernadeta : « O Andre ona, othoi, othoi, erran ezadazu nor zaren eta cer duzun icena? » Agertce miraculuzcoac distiratcen zuen gero eta gebiago, parabisuco zorion batec nasaikiago argitcen cion begitartea. Escuac zabaltcen ditu eta

uzten arrosorioac beso escunerat lerratcera. Besoac zabalduric itzultcen ditu lurrerat, benedictionen ichurtceco bezala, eta gero berriz goiti altchatcean, mintzo garbi eta ezti batekin dio : « NI NAIZ CONCEBICIONE GARBIA. » Hitz horieci erran eta eceztatcen da, ez du gehiago Bernadeta aiteinean harroca hutsa baicic.

Horrela nechca pobre horreic ikhusi zuen Lurdeseco harpean, hamabortz aldiz, Birjina Saindua. Eta nola, ceruco Erreginaren beraren manuz, oro condatu baitcicuen lehen egunetic, jende ospe handi bat jarraitkitcen citzaion. Laugarren eguneco hamar mila presuna baciren haren inguruetan, Ama Birjina agertcean. Oroc ikhus cezaketen haur dohatsua, Agertce misteriosac citraueno, bere baitharic canpo bezala, eta erran baditake, bertce bat egina. Birjina Saindua estealtcearekin, Bernadeta lehenagocoa cen, haur errumes inocent bat, deus marcatcen etzuena. Comentu batean sarthu cen geroztic, eta badu orai zombait denbora hila dela.

Hamabortzgarren agertcea baino lehen beilarriac helicen ciren berrogoi miletara. Handic lau urtheren buruan, Elizaco erregla eta precocione guciekin agertce espantagarri hori segurtatu zuenean Tarbeseco jaun aphezpicuac, baciren ehun eta berrogoi eta lau miraculu ezin ukhatuac. Eta egungo egunean Lurdeseco Andre

Dena Mariac eta hango ithurri miragarriac egin dituzten sendatce eta fagore gucien condua ez da ceruan baicic atchikitcen abal.

O Birjina Saindua, eskerrac deraitzugu obra miragarri horientzat. Bainan oroz gainetic oraino gracia bat galdegiten dugu, emaguzu garbitasun thona gabeco bat, eta egizu gure bihotza zure bihotz garbiaren idurico.

ZAZPIGAREN EGUNA

Medalla miraculuzcoa

1825^{an} Ospitaletaco serora batec izan zuen Jaincoaren misericordia izari gabecoaren ganic fagore bat, Lurdescoac becen estimagarria.

Parisen bere comentuco caperan zagou, Sacramendu Sainduaren aiticinean, adoracione cartsu batean, ichilic eta begiac hetsiac. Ichtant baten buruan, begiac alchatcen ditu, tabernacleari behatceco. O! icusgarri espantagarria! aldare zola gucia hartua cen, argi lilluragarri batec. Haren erdian chutic, besoac lurrerat buruz itzuliac, escuac idekiac eta zabalduac, emazteki bat, mundu huntan, ez den bezalaco edertasun batekin. Capa aberats bat ceru colore, aiticin an gainetic estecaua, estaltcen ciotcila sorbaldac eta besoac ezcuetaraino, jausten citzaion gibe-

lerat, erregina baten beztimenda bezala. Arropa churia zuen, egunaren argiaren parecoa. Oin hutsac bola handi baten gainean, lehertua zaucatela suge baten burua. Bi escuetaric jalgitcen citzaizcon argizco bedera ithurri, graciazco ichurki batzuen pare. Hamabi izar, zolaco argia baino oraino saminagoec, inguratcen cioten burua.

Agertce misterios horren inguruan bacen izcribu lerro bat. Serorac iracurtu cituen clarki hitz hauc frantsesez : « O Maria bekhaturic gabe concebitua, egizu othoitz guretzat, zure laguntza galdegiten baitugu. »

Birjina guciz garbiac (Hura cen agertcen) manatu cion, begien aiticinean ikhusten zuena, deus ere canbiatu gabe, jalgi-araz cezan medaila batean, eta hitz-eman cion medaila hura izanen cela, lizarentzat eta mundu guciarentzat, ocin agortuzco graciaen ithurri bat.

Behin, gibelamenduric handienac, izan cituen bere superioren phartetice; burutic aldaratutzat atchiki zuten. Handic bortz urtheren buruan choilki, 1830^{ea} hasi cen hedatcen medaila miraculuzcoa. Icen hori jarraiki zaio geroztic. Oficiale bat, esperantza handiric gabe, debocionez cargatu cen haren jalgitceaz; bainan betbetan medaila ttipi hori hainbertcetaraino galdegina izan cen nun oficialea, bere aferac heinic hitse-

nean cituena, aberastu baitcen. Geroztic graciën eta miraculuen ithurri hori ez da Lurdeseco ura baino gehiago agortcen. 1830^{tie} hunat ehun miliun baino gehiago egin dituzte. Gutartean nihor guti da medaila hoitaric bat edo gehiago berekin ez duenic, potret eta izcribu berarekin.

1860^{ean}, Andre Dena Maria ikhusi-eta hogoi eta hamabortz urtheren buruan, serora hura bici cen, eri, gaitz handiez herstua, bainan berthutez bethea; eta doidoia bere serora lagun zonbeitez bakharric ezagutua.

Medaila miraculuzcoaren berthutez milaca gerthatu diren gauza espantagarrietaric huna ederrena eta famatuena.

1842^{ean} urtharrilean, judu gazte bat, bankiera, bazter ikhusten zabilana, heldu izan cen Errumarat, zonbeit asterentzat. Alfonso Ratisbone deitzen cen. Batere errelisioneric gabe, aditcen eta ikhusten cituen gucientzat, gustu dremendenic ere ez, lakhetceco orde, jadanic enuatcen ari cen.

Theodore de Bussières, protestant conbertitu, giristino cartsu bati gomendatua cen. Harrec eraman zuen Laferronetarren aitoren familiara. Eta horra nun, egun batez, aingeru baten pareco haur gazte batec har-arazten eta lephotic eman-arazten dion medaila miraculuzco bat, erranez irri batekin : « Ikhusico duzu horrec conberti-

tuco zaituela. » Ratisbone etcen menturatu ez hartcera; hitz-eman ere cion haurrari, erdi bortchatz, erranen zuela medailaco othoitz ttipia : « O Maria bekhatuic gabe concebitua, othoitz egizu guretzat, zure laguntza galdegiten baitugu. » Gaineracoan ecin gehiago hein makhurrean cen, errelisione hitcic jakin gabe, arina eta ergela, munduco muthil gazte aberats hanitz bezala. Urtharrilaren 19^{ic} eta 20^{uaco} gauean, ikhusi zuen ascotan ametsetaric marca bat ezagutcen etzuen, M bat, curutce bat gainean, eta hamabi izarrez inguratua. Ez baitzuen asmatcen biharamunean salbatu behar zuen miraculuaren hastapena cela. Ondoan ohartu cen, medaila miraculuzcoac bertce alderdian marca bera zuela.

Biharamunean beraz, Errumaco edergailuen ikhusten goiza emanic bere adichkidearekin, eliza ttipitto baten aitcinean iragaitean gelditu ciren, eta Bussières sarthu cen hil baten ehortzteaz elgar aditeco aphecekin. Bizpahiru minutaren buruco, enuaturic, judua ere jausten da carrosatic, eta sartcen elizan, othe den deus ikhustecoric. Begi colpe batez eliza gucia curritcen du, etcen deus ederric, murru hutsac, hitsac eta cikhinac. Bethetan bazterreco aldare batean ikhusten du argi espantagarri bat. Emazteki bat cen maiestatez bethea, iguzkia baino distirantago, churiz beztu, capa bat ceru colore sorbalden

gainean, besoac eta escuac zabalduac, ceruticaco eztitasun batekin. Berac ez dakiela nola, judu gaztea elizaren bertce bazterretic heldu da emazteki haren oinetara, eta belhaunicatcen da. Nahi luke burua altchatu, bainan Birjina Sainduac, medailaco Birjina Saindu harec, bietan escu escuinaz zaphatcen bezala dio. Ikhusi zituen bizkitartean Mariaren oin hutsac aldarearen gainean, eta haren escuac argia zariotela bere gainerat aphalduac.

Haren adichkidea, Theodore de Bussieres, bere egitecoa acabatu-eta, presan jalgi cen sacristiatic, beldurrez laguna berantetsia zuen. Eta huna cer condatcen duen berac : « Elizan sartcean, cerbeit gehiagocoric senditu nuen ene baitthan, eta nere gogoarekin egin nuen, jakin gabe certaco : Cerbeit gerthatcen bide da hemen. Nola bichta laburra baitut, doidoia ikhusi nuen, bazter batetaco aldarearen aiticinean, gizon bat belhaunico. Ratisbone ene laguna cela idurritcen zautan. Egiten ditut zonbeit urhats, eta gelditcen naiz harritua; hura cen, hura bera!... Belhaunico zagon eta harrizco potret bat becen geldi. Hunkitcen dut sorbaldan eta deitcen bere icenaz; ez da igitcen. Behatcen diot hurbilagotic. Ghuri churia cen eta begitartea nigarrez bustia : « Ratisbone, erraiten diot bicikiago, adichkidea, cer ari zare hor? Cer duzu? Cer gerthatu zau-

tzu? » — Orduan chutitcen da, eta ni ikhusirie, besareatcen nau. — « Laster, dio, laster eraman nezazu aphez baten gana. Han condatuco dauzkitzut oro. Ikhusi dut; Hura cen, ez daut deus erran, bainan oro comprenitu ditut! »

Igaiten gare berriz carrosara. Doïdoia chutic zaukeien. Eramaten dut jesuist baten gana. Ich-tant baten buruan oro condatcen ditu. Eta bethi ganza bera cioen : « Oro comprenitu ditut, oro badakit zat, nahi naiz bathaiatua izan! »

Egiarki Andre Dena Mariac berac argitua cen. Errelisioneco egia aphezac iracustean : « Bai, bai, badakit hori, cioen, ez daut deus erran, eta oro comprenitu ditut. »

Handic zortci egunen buruan, Maria garbiki Concebituac coubertituric, Ratisbone juduac, Aita Sainduaren beraren manuz, errecebitu ci-tuen bathaioa eta confirmacionea.

Pariserat itzuli eta mundua utciric, aphez egin cen. Jerusalemen emazte judu coubertitu bat-zuen comentuco aircindari izan on Joan, berriki hila da.

Horra Maria garbiki Concebituaren laguntzac; horra medaila miraculuzcoaren indarra. Gau eta egun ibil dezagun gurekin, eta gure ezagunci har-araz, erabil dezaten gure orhoitzapenetan.

O Maria bekhatuic gabe Coucebitua, othoitz egizu guretzat, zure laguntza galdatcen baitugu.

ZORTCIGARREN EGUNA**Concebicione garbiaren abitu urdina**

Oroc badakigu abitua dela beztimenda ttipi bat, sorbalden gainetic aitcinerat eta gibelerat erortcen dena; Mariari consecratuac garelaco marca bat, Hala nola erregen, erreginen eta printcen sehiei, beren nausien marken ibiltcea ohore baitzaiote, gisa berean, Mariaren cerbitzariet eder eta ohore zaiote beren Erreginaren marken ibiltcea, abituaren bidez bethi orhoitceco haren cerbitzuan sarthuac direla.

Bi abituric ezagutuenac dire : Carmeloco abitua lur colore edo beltza, eta Concebicione garbicoa ceru colore. Azken hortaz mintzatuco gare choilki, ceren hori bereciki Concebicione garbiari baitoaco.

Abitu urdina manatu cion Birjina Sainduac berac Benincasa, Italiaco serora errespetagarri eta berthutos bati. 1616^{an} Otsailaren 2^{an}, Purificacioneco phestaz, agertu citzaion Birjina Saindua serora horri, capa urdin eder batekin. Manatu cioen bere serora lagun guciei colore bereco abitu bat jauntz-araz cezoten, hitz-emaiten cioelarie, manera bereci batez begiratuco eta benedicatuco cituela, Concebicione garbiaren marca debot hori ibiltcen zutenac. Iracutsi cioztan gero giristino ospe handi bat, adin eta hein

gucietacoac, abitu hortaz bezti, eta Mariaren caparen itzalean bezala cirenac.

Laster abitu urdinaren debocionea hedatu cen Eliza gucian. 1671^{an} Cleman X^{ac} bere baimena eman cion. Abitu horren icenean Confrario handi bat egina izan cen, Aita Sainduac onhetsia eta hanitz induljenciez aberastua. Induljencia horiec arras nasaiac, eta casic izarigabecoac dire, bainan osoki segurac. 1845^{an} Uztailaren 12^{an}, Gregorio XVI Aita Sainduac berriz ere fincatu cituen.

Induljencia da, ongi dakigun bezala, jadanic barkhatuac zaizcun bekhatuentzat zor dugun denbora bateco penen barkhamendua. Bigarren barkhamendu bat bezala beraz, bertce barkhamenduaren ondotic. Egiazco contricione batekin izaiten dugunean absolucionea Penitentciaco sacramenduan, Elizac, Jesu-Cristoren phartez, barkhatcen deraizcu bekhatuac eta heiec mereci duten seculaco gaxtigua. Bainan gelditcen zaucu zor bat pagatceco, erreparacione bat egiteco Jaincoaren justiciari. Zor hura behar da pagatu mundu huntan penitentciazco obrez, edo bertcean Purgatoriotaco sofricario dorpheac jasanex. Bertzalde bekhatu benialac ere denbora bateco penac merecicen daizkigu. Bainan denbora bateco pena horrentzat ere Elizac baditu urricalmenduac eta misericordiac. Jaincoac utci dio

escuetan Jesu-Cristoren merecimendu neurrigaben, Mariaren eta Sainduen merecimendu nasai eta gaindizcacoen aberatstasuna, dretchoarekin betaz gure balia-arazteco, eta heien medioz gure zorren pagatceco. Zor gucia pagaturic, Jaincoaren justiciarekin kito bezala ezarten gaituenean, induljencia osoa da. Zorraren pharte pagatcen duenean eta pairatceco denbora choilki laburteen, induljencia deitzen da phartezcoa. Induljenciac irabazten dire, graciazco estatuan delaric, manatuac diren condicioneac phunduren phundu bethez.

Abitu urdiuaren Confrarioan, beretzat edo purgatorioco arimentzat, irabazten ahal diren induljencia osoac eta phartezcoac, hainbertce badire nun ez baicare hemen condatcen hasico. L'ainan baditu bertzalde Confrario horrec bi abantail ecin aski estimatuac.

1º Abitu hori duenac eta dabilcanac, erraiten dituen aldi guciez sei *Gure Aita*, *Agur Maria* eta *Gloria* (Trinitate Sainduaren eta Concebicione garbiaren ohoretan eta Aita Sainduaren chedetara), irabazten ditu Lur Sainduen, Errumaco Elicen, eta Asisan san Frantsesen caperaren bisitatceari eratchikiac diren induljencia guciac, eta gehiago oraino. Induljencia horiec ecin condatuac dire. Errumaco zazpi Eliza principalez berez, Pio IX erraiten cion egun batez aphez

bati : « Indulgentzia horiec hainbertce eta hain aspaldicoac dire, nun ez baitiot erran : Izanazu chedea oroen irabazteco, hori aski da. » Cer misericordiazco eta barkhamenduzco aberastasunac! Balitake hor purgatorioaren hustecoa eta zeruaren bethetecoa. Badaea deus miragarriagoric eta denbora berean errechagoric?

2º Bigarren abantaila ez da ttipiagoa. Hil ondoan guretzat emanen diren meza guciec ekharico deraucute indulgentzia plenarioa(1), eta Purgatorioetaco su icigarrilic laster jalgico gaituzte.

Abitu hori ile oihal urdinez egiten da. Errumatic podorea duen aphez batec sarthuco zaitu. Ibilazu gau eta egun. Hingatcen denean, azki da surat emaita eta bertce baten hartcea, benedictatu gabe. Ardura erianzkitzu sei *Gure Aita*, *Agur Maria*, eta *Gloriac*. Bederen goicean eta arratsean, goiceco indulgentciac, nahi baduzu, zuretzat atchikiz, eta arratsecoac purgatorietaco arimentzat, eta bereciki zonbeit ahide hurbilentzat, aita edo amarentzat irabaciz.

Haur gazte prestu batec ibiltcen zuen abitu hori. Jaincotiarra cen, astean behin comuniatcen zuen, eta egun guciez arrosoria erraiten. Sukhar gaichtoarekin hil cen 1858^{an}. Aita amec nahi izan zuten ehortcia izan zadin bere abituarekin.

(1) *Altare privilegiatum.*

Handic bortz urtheren buruan hobia ideki zuten. Hezurrez eta abituaz bertce guciac, arropa, arrosorio, curutce, oro lurraren umiac janac ciren, choilki abitu urdina cen osoric eta berrico colore biciarekin.

Muthil gazte bat hogoi eta bat urthetaraino izan cen bide on guciei jarraikia. Haur haurretic Ama Birjina hanitz maite zuen, eta debocionerekin zabilcan haren abitu urdina. Haren ama, alhargundua, lorietan zagon bere horri beha. Bainan bi adichkidec eraman zuten placeretarat. Hain prestu eta gisacoa cen gizon gaztea arindu cen, galdu, eta laster bicitceric zarreneraino lerratu. Ez amaren othoitcec, ez nigarrec, ez gaizkiec, ez mehatchuec etzuten hunkitcen. Urrundu cen amaren ganic bere gostura aiseago bicitceco. Eta hiru urtheren buruco gorphutza liberticionetan higatua, hil hurrana cen, Genebaco ondoan, jauregi batean.

Ama, jakin duenean haren estatua, heldu zaio, oro ahantciric. Arthatcen eta tratatcen du, amec tratatcen duten bezala. Ikhusiric lanjerean dela, ezti eztia mintzatcen zaio Jaincoarekin baketceaz. Bainan gorphutza baino arima oraino eriago zuen, eta ihardesten dio : « Ez aipha niri holacoric ; alferretan litake, sobera egin dut. » Dietan igorri zuen gibelerat apheza idorki. Iduri zukeien beraz harrenac egina zuela.

Orduan amac orhoit-arazten du Ama Birjina garbiaz, bere haurtasun jaincotiarraz, bere lehen comunioneaz : « Nun duc hire abitu urdina, galdegiten dio. Muthil gaieho hil hurranac iracusten dio erhiarekin tireta bat. Amac harteen du abitua eta othoitzten du bere haurra utz dezon lephotic emaitera orhoitzapen maite hori. Uzten du, deus errau gabe. Mariaren marca saindua jauntei orduco, bihotza hausten zaio, begiac bustitcen zaizco, eta nigarretan hasten da Jaincoari barkhamendu galdatcen. Cofesaturic eta comuniaturic sendimenduric ederrene-tan, hil cen biharamunean amaren besoetan, Jesusen eta Mariaren icen Sainduac aiphatuz.

Horra nola diren Birjina Sainduaren haurrac, bician, heriotcean, eta hil ondoan, Jaincoaz benedicatuac eta fagoratuac.

BEDERATCIGARREN EGUNA

Andre Dena Maria Bitorietacoaren Confrarioa

Andre Dena Maria Bitorietacoa, Parisco eliza bat da. Huna nola condatcen zuen eliza hartaco jaun erretor cenac confrario hunen hastea :

« 1836^{co} Abendoa cen, concebicione garbico phesta iria. Zonbeit denbora hartan jadanic eliza hartaco erretor nintcen. Nigar egingarri cen hango moldea. Banituen hemezortzi mila

arima nere gain, eta secular nihor elizan. Hogoi eta hamar edo hamabortz emazteki meza nautsian igandetan. Gizon bakhar bat ere ez phazcoric egiten zuenic, ez bat bakharric.

« Lotsatua nintcen. Beldurrez-eta fede escas hura ene bekhatuen gaztigua othe cen, hartu nuen chedea, carguaren uzteco. Abendoco egun hatez beraz, ortciralea cen, are tristeago eta lotsatuago nintzalaric, hasi nuen meza saindua, bakharric ene betterarekin. *Sanctus*era heltecan, nahasmendu bat hanitz handia, lothu citzaitan, nun bortchatua izan bainintcen gelditcera. Berriz aiticina abiatcean, betbetan entzuten dut boz bat garbiki eta azcarki erraiten dautana : « Contsecra-zac hire eliza Mariaren Bihotz saindu « eta garbiari. » Harritua itzultcen naiz; etcen nihor ere. Betterra bera bere erhiekin josteta ari cen. « Eneac egin du, erran nuen nere baitan, burua galtcen ari dut. Ez da gehiago « dudatceco, egun berean jua behar naiz ar- « chapezpicuaren gana, carguaren uzteco. » Chede horrec aphur bat barnea descantsaturic, meza acabatu nuen, aditu boz hartaz gehiago orhoitu gabe. Meza ondoan othoitzean nindagolaric, boz berac harricen nau eta lazten, azcarkiago eta clarkiago manamendu bera emanaz : « Contsecra-zac hire eliza eta hire arthaldea Mariaren Bihotz saindu eta garbiari. »

Aldi hartan ongi aditu nuen. Gauza bitchia, behinere ez nuen gosturic izan debocione horrentzat, haurkeria bat citzaitan.

Ahuspez Jaincoari eskerrac emanic eta othoitz luce bat eginic, sartcen naiz etchean, berehala izcribatceco Andre Dena Maria Bitorietacoaren confrario berriaren erreglamendua, Mariaren Bihotz garbi eta sainduaren ohoretan, eta bekhatosen conbersionearentzat.

« Hasten naiz, eta gelditu gabe bururen buru izcribatcen dut geroztic bethi atchikia den eta Aita Sainduaz onhetsia izan den erreglamendu hura.

« Bizkitartean galdegin nion oraino Andre Dena Mariari horiec oro, Jaincoaren ganic cirelaco froga berribat. Jaun archapezpicuac onharreen badu erreglamendua, egin nuen nere gogoarekin, Jaincoaren nahiaren seipalea izanen da.

« Banoha egun berean erreglamenduaren archapezpicuari iracustera. Ez nintcen sobera fida etcela nitaz eta ene chedeaz trufatuco. Ez nion batere aiphatu bietan entzun nuen boza. Bainan huna nun archapezpicuac espantitcen nauen, batere dudacic ez gogoetacic gabe erranez : « Ene jaun erretor maitea, onhesten dut zure Confrarioa, manatcen derautzut establi dezazun, eta nahi dut has zaiten helduden igandean berean. »
— Erran dudan bezala, ortciralea cen.

« Biharamunagoan beraz, igandean, predica alkitic erraiten diotet meza nausian ciren hogoi eta hamar edo berrogoi emaztekiei, arratsaldean hasico direla Confrario berriaren bilkhurac. Bihotza ttipi nuen, eta confidentzia net guti.

« Predica alkitic jautsi naicenean, gizon bat capa batez estalia heldu da niri buroz, eta denbora hortan behinere gerthatcen etcena, galdegiten daut cofesa dezadan.

« Arraisean ikharan nindagon. Egiten nuen elizaracoan : « Ez da nihor izanen, irri egingarri jalgico gare gure confrarioarekin ! »

« Elizan sartcearekin huna ecin sinhestsizco ikhusgarri bat! Eliza gucia bethea cen, eta hiruetaric bat gizon, zahar, gazte, jaun, orotaric. Iracurtcen diotet erreglamendua, behar ciren chehetasunekin. Cantatcen ditugu gero Birjina Sainduaren litaniae. *Refugium peccatorum* era heldu garenean, batere elgar aditu gabe, jende gucia belhaunicatcen da, eta cartsutasunic miragarrienarekin hiruetan cantatcen du : REFUGIUM PECCATORUM, ORA PRO NOBIS. BEKHATOROSEN IHESLEKHUA, OTHOITZ EGIZU GURETZAT. » Hauf bat bezala nigarrez nindagon, ikhusiz gure Confrarioa jadanic establitua.

« Biharamunean bizkitartean galdegin nion Birjina Sainduari froga berri bat, Jaincoaren nahia-
ren azken seinale bat bezala, bekhatoros zahar

eta gogortu baten conbersionea. Bacituen lau-
hogoï eta sei urthe, itsua eta paralesiatua cen.
Seietan izana nintzaion jadanic, bainan seietan
gibelarat itzuli nintcen, ikhusi ere gabe. Banoha
zazpigarrenecotz, eta aldi huntan, haren emaz-
tearen eta sehien bortchara, sartcen naiz salu-
neraino. Hainbertcerenarekin aditcen dut eria-
ren boza, dioela bere emazteari : « Bego sartcera
« jaun erretora, bere zucenean da eta bere egin-
« bidea bethetcen du. Nahi dut sar dadien. » Sar-
tccen naiz eta jartcen ohearen aldean; zonbeit
solasen ondotic, eriac erraiten dio emazteari :
« Utz nezazu bakharric jaun erretorarekin. Nahi
« dut mintzatu. » Cerbeit bilhatcen zuela ikhusi-
ric, escaintcen diot bere tabakiera : « Hunen
« bilha zabiltza, jauna ? » — « Ez, jaun erretora,
« zure escua bilhatcen dut. » — « O, jauna ! huna,
« huna; eta gogotic. » — Hartcen daut, eta ez-
painerarat hurbilduric, musu emaiten dio erres-
petu hunkigarribatekin. Denbora berean senditu
nituen bi nigar chorta bero, escuaren gainerat
erortcen : « Jaun erretora, erraiten daut gero
« eri zaharrac, aspaldi handian cofesatu nahia
« dintcen. Bekhatoros handi bat naiz. Badu hi-
« ru-hogoï urthe ez dudala sacramenduric erre-
« cebitu. » Cofesatu cen eta sacramenduc hartu
cituen fede bici batekin. Sei aste iraun zuen
oraino. Eta hil baino lehen, ohearen ingurue-

tara bilduric bere emaztea eta hiru semeac, adichkideac eta sehiac, humilki galdegin cioten barkhamendu bere escandalez. — Horra, cioen acabatcearekin jaun erretorac, horra Andre Dena Maria Bitorietacoaren lehen bitoria. »

Geroztic eliza hartan, bekhatorosen conbertitce harrigarriec eta erien sendatce miragarriec frogatcen dute Birjina Sainduac hautatu duela lekhu hura bere fagoren ichurtceco lur, miseriaz bethe hunen gainerat.

O Andre Dena Maria Bitorietacoa, ardiets-aguzu bicitce bekhaturic gabeco garbi bat, eta ororen buru, gracieta beharrena, heriotce saindu bat.

HAMARGARREN EGUNA

Mariaren hautasun saindua Nazareten eta Jerusalemeco Tenploan

Ebanjelioac ez daizcu aiphatcen, Birjina Sainduaren sortcea eta hautasuna. Zonbatenez ere diamantac eta harri baliosac, ederrago eta arrarogobaitire, hanbatenez barnago, harrizco ingurailu gogor batean gordeac dire. Birjina Saindua, perletan baliosena eta ederrena, behar cen bezaz gordea egon, creaturen begientzat, Anoncia-cioneco misterio handiac agerian eman artino.

Sainduac eta Elizaco Aitec erraiten daucute,

haur garbiki concebitu horrec, hainbertce gracia nasai, eta fagore aberatsizan zuela, nun orducotz Aingeru eta Cerafin guciac baino, sainduago baitcen. Birjina Sainduac, haur ttipia celaric, bazuen arima bat perfeta, gai cena, Jaincoaren maithatceco eta laudatceco. Egunetic egunera emendatuz ehunca Jaincoac igortcen ciozcan gracia, eta guciez baliatcen cen; norc asma beraz nolacoa bilbacatu cen azkenecotz Mariaren saindutasuna!

Maria sorthu cen Nazareten, Judeaco herri ttipitto, ordu artino aiphatua etcen batean. Jalgitcen cen Judaren ethorkitic eta Dabiden familiatic. Mundua creatuz geroz, etcen agertu lurraren gainean halaco sainduric. Jadanic Jainco Aitac ikbusten zuen haren baithan, bere geroco Esposa, bere Seme bakharraren Ama. Concebicione garbiaz geroz Izpiritu Sainduac haren baithan egiten zuen bere egoitza, eta bethetcen zuen bere dohainez eta graciaz. Aingeruen bederatci gradoec miresten, errespetatcen zuten, gerochago heien Erregina behar cena.

San Pascal Bailon, jadanic aiphatu dugun Saindu maithagarri harrec, bazuen debocione bereci bat Mariaren, haurtasun sainduarentzat. Concebicione garbico eta Mariaren sortceco phestei buruz, cartsutasun eta bozcario herri batean sartcen cen. Aurkhitcen cituen fraide lagun gu-

ciac, biltcen cituen, harrekin erraitera belhau-
nico : « Benedicatua, aiphatua, landatua, oho-
« ratua izan bedi Concebicione garbia, edo. gure
« Haur maitearen sortcea. »

Errana da hiru edo lau urthetan eraman zutela
Maria Jerusalemeco Tenplorat, eta han, ichil-
tasunean, lanean, sainduki altchatua izan cela
hamahiru hamalau urthetaraino. « Hiru urthe-
ren heina zuen, dio san Frantses Salescoac,
Birjina Sainduac, Nazaretetic Tenplorat juan
cenean. Bazohan batzuetan oinez, bere aita amen
escutic, san Joachin eta santa Anna loriatcen
baitciren, bide celhai eta eztieta, haren urhats
ttipien ikhusten, bide gaichtoagoetan eta patar-
retan, besoetan hartcen zuten. O Jaincoa! dio
saindu berac, zoin nahico nukeien piaia hura
ikhusi! Tenplora beltcearekin, gogotic igan cen,
aldarearen hamabortz mailei gora, ceren amodio
pare gabe batekin baitzohan Jaincoari, osoki bere
buruaren consecratcera. Iduri zuen erran nahi
ciotela Tenploco emazte sainduci, bere aiticin-
dari berriei : « Huna nun naicen, zuen escuetan,
« ezco phusca bat bezala, egizue nitaric nahi
« duzuena, ez dut seculan zuen nahiari ihardo-
« kico. » Eta egiazki haren obedientciac, ezti-
sunac, behatce amultsnac, oro loriaturic zauz-
can. Ilezco beztimenda arrunt churi bat zabilcan.
Guti jaten zuen, guti lo egiten; ardura Jaincoa-

rekin mintzo, ahal becen guti creaturekin. Aitcinetico praticatzen zuen gerochago Jesus-Haurrari ikhusi behar cion bicitce bera.

Haur jaincotiarrac, zuec ere imita zaitzue Mariaren berthuteac eta bereciki haren othoitceco lebia eta jaincoaren ganaco amodia.

Egun batez, zortci bederatci urtheco nechcaño bat bakharric cen bere ganbaran. Ama sartcen zaio uste gabean. Haurra, belhaunico zagona, chutitcen da gorrituric : « Cer ari hinteen hor, ene haurra? » galdegiten dio amac eztiki. — « Ama, Jainco maiteari othoitcean. — Beraz « ehuen egina goiceco othoitza?—Bai, ama, egina « nuen.—Orduan certaco hago othoitcean? Egin « dana zoubet bekhatu?—O, ez segurki! —Cer- « taco beraz othoitze giten dun Jaincoari?—Ceren « maite baitut, » ihardetsi cion haurrac lañoki. Hitcic erran gabe, besarcaturic bere alaba, jalgi cen laster ama, bere bozcariozco nigarren gordetceco.

Oi ama giristinoac, hola alchatcen bacintuzte zuen haurrac! Gomenda zaitzue Mariari, haren haurtasun sainduaren ohoretan.

HAMECAGARREN EGUNA

Birjina Saindua eta Gabriel Aingerua

Birjina Maria athera zuten Tenplotic, san Jo-

sepe bere ahaide, hura bezala, Judaren arrazatic, Dabid erregearen familiatic, jalgitcen cenarekin ezcon-arazteco. Hamalau urtheren ingurua zuen orduan. Ez dakigu cer adin zuen San Josepec; nola hogoi eta bortz edo hogoi eta hamar urthe bici izan baita geroztic, adinic azcarrenean bide cen. Bere bicia irabazten zuen lanetic, zurgina baitcen. Nazaretan zagon, Mariaren familia bezala.

Maria eta Josepe bici ciren etchea, oraino chutic dagona, errelica balios bat da. Turcuac alde rat lur sainduetz jabetu cirenean, 1291^{an}, Aingeruec etche hura miraculuzki ekharri zuten behin Dalmaciarat eta gero Italia Loretarat. Harat egiten da *Etche-Sainduaren* beila, munduco beila famatuenetic bat. Eliza eder bat egin diote gainetic, etchetto hura barnean daucana errelica-untci handi batec bezala. Andre Dena Maria Loretacoa deitzen den eliza hartan, miraculu handiac gerthatcen dire urthe guciez.

Nazaretan Birjina Sainduaren eta san Joseperen etchea biscarrez mendiccha bati cen, alderdi bat herriari buruz eta bertcea harrocari josia.

Han zagon martchoaren 25^{an}, Birjina Maria othoitcean, berac etzakiela, Jaincoaren Ama izaiterat, preparatcen ari.

Belbetan ceruticaco argi batec etchea hartcen du; Maria chutitcen da. Aingeru distirant bat,

gizon itchuran, agertcen zaio aitcinean errespeturekin. Ceruco armadetaco aitcindari bat cen, san Migelen ondotic, handiena eta botheretsuena, Incarnacioneco Aingerna, Gabriel Aingerna. Heldu cen cerutic Aitaren eta Semearen eta Izipiritu Sainduaren phartez, Birjina garbiaren baimen libro eta osoaren galdegitera, Jaincoac haren baithan, haren bidez eta harekin egin gogo citnen gauza handientzat. Heldu citzaion galdegitera Jaincoaren Ama izaitea onhar cezan.

« Agur, graziaz bethea, diotzo cerutiar mezulariac, Jauna da zurekin; benedicatua zare emazte gucien artean. »

Agur hori adituric, Maria harritua da; bere gogoarekin dago cer erran nahi othe duen.... Bere burua hain aphalt, hain ttipi zaucana, Aingeru batec bisitatcen eta ohoratcen!.....

« Ez beldurric izan, o Maria, erraiten dio Gabriel dobatsuac, ez beldurric izan. Aurkhitu duzu gracia Jaincoa baithan. Huna nun Concebituco duzun eta emanen mundurat Seme bat, Jesus deithuco duzuna. Handia izanen da. Jaincoac emanen dio Dabid bere aitaren erregetasuna, erreginatuco du Jacoben etchearen gainean, eta haren erregetasunac ez du akhabantzaric izanen. — Nola gertha ditake hori? » dio eztitasunekin Birjina Sainduac? Gabriel Aingeruac descantchatu zuen, erranez : « Izipiritu Saindua

jautsico da zure baitharat, eta bere itzalaz inguratuco zaitu. Zutaric sorthuco den Saindua deithuco da Jaincoaren Semea. » Eta gero miraculu hura bertce miraculu batez fincatceco bezala : « Huna nun zure cusina Elizabetec ere concebitu duen Seme bat, nahiz zahartua den. Ez da deus Jaincoac egin ez dezakenic. »

Iklusiric Jaincoaren nahia cela, Birjina Sainduac, eman zuen bere baimena Incarnacioneco misterioarentzat : « Huna Jaunaren nescatoa, egin dakiala, zure hitzaren arabera. »

Aingerua juan cen. Izpiritu Sainduaren, Izpiritu Creatzaile eta Saindutzailaren berthutez, egin cen Incarnacioneco misterio, ecin conprenitua. Berbo eternalac, Jaincoaren Semeac, hartu zuen gorphutz bat gureac bezalacoa, baiuan perfetagoa, Birjina dohatsuaren sabelean; eta Maria bilbacatu cen Jaincoaren Ama! O Maria, egiazco ceru berria, Jaincoaren egoitza! Aingernac berac, haren inguruan ahuspez dagotci!

Comunione Sainduan zorion ber bera dugu, guc ere. O! gauza handia eta Jaincozcoa, comunione saindua, fede bici bat baginu! Gure gorphutcean da Jaincoaren eta Mariaren Semea, Berbo Eternala Mariaren baithan cen bezala.

Bederatci hilabete egon cen Jaincoaren semea egoitza berri hortan gordea. Nola Saindutu bide zuen bere Ama jadanic hain Saindua!

Ohora dezagun guc ere Ama Birjina eta errespetata, Gabriel Aingeruac bezala. Ardura erran dezogun, cerutic Jaincoaren phartez ekharri cion agurra : « Agur Maria, graciaz bethea. »

HAMABIGARREN EGUNA

Agur Maria

Jaincoaren Amari egiten ahal diogun othoitcie ederrena, gozoena, errespetagarriena, zaharrena da *Agur Maria*.

Bi pharte baditu : lehenean Ebanjelioco hitzac dire; bigarrena da, jadanic erran dugun bezala, Elizaren arrapostua Nestoriusen blasfemioei. Biac Izpiritu Sainduaren ganic heldu zaizca : bat Gabriel Aingeruaren eta santa Elizabeten ahoz; eta bertcea, Efececo conciliotic lekhora, Elizaren ahoz.

Gure Altaren ondotic giristino batec egiten ahal duen othoitcie hobereña *Agur Maria* da. Bereciki Birjina Sainduaren bihotzari agradatcen zaio. Berac egun batez santa Mathildari aithortu cioen : « Ene haurra, deuzec ez daut bihotcean atsegin gehiago emaiten, Aingeruac Ceruaren phartez egin zautan agurrac baino.

« Erraiten dautatenean : *Agur Maria*, orhoitcen naiz Jaincoac egin zautan ohoreaz, Aingeruarekin igorritz agur bat hain extia.

« Aditcean : *graciez bethea*, heldu zaut gogora cer gracia nasaiez Jaincoac bethe zuen ene arima, bere Seme bakharraren Amatzat nere gai egiteco.

« Gero, *Jauna da zurekin* entzutean, orhoitcen naiz miraculu handi creatura guciac espan-titu dituen hartaz : Berbo Eternala nitaraino eceztatua, nere ganic sortcen, ene Seme bakhar, Jaincoaren Seme den bezala.

« Aditcearekin : *Benedicatu* zure emazte gu-cien artean, Jaincoaren Ama izaiteco ohorea dutalacotz, ceruan eta lurrean emanac zaiztan laudorio eta benedicione guciac heldu zaizkit bichtala.

« Hitz hautan : *Eta benedicatu* da zure sa-beteco fruitua Jesus. erreberriteen da ene bi-hotcean Jaincoaren Semeari hain batasun ber-tsiari izanez dutan bozcarioa.

« Bigarren phartean Elizac, giristinoen ahoz erraiten daiztan hitzac aditu eta, bortchatua naiz bekhatoros gaichoetz urricalmendu izaitea, heien maithatcea eta heientzat othoitz egitea.»

Gisa hortarat mintzatu citzaion Birjina Saindua Santa Mathildari.

Bertce Saindu batec, Santa Gertrudac, eri cen batez, etcitzazkeien, bethi ohi zuen bezala, erran arrosorio osoco ehun eta berrogoi eta hamar *Agur Mariac*. Nahi izan zuen bederen lehenbicico

bi hitzez chun eta berrogoi eta hamar aldiz ohoratu. Andre Dena Maria agertu citzaion, chun eta berrogoi eta hamar arrosazco corona bat escuetan; eta buruaren gainean ezarriric, errancion : « Bi hitz labur horiec agradatu zaizkit, bakochean *Agur Maria* osoa erran baciun becenbat, ceren ahal duzuna egin baituzu. »

Saindu guciac bereciki maitatu dute othoitz hori. San Alfonso de Ligorio, orenac entzutean, *Agur Maria* batez ohoratcen zuen Birjina Saindua, cioelariac : « *Agur Maria* batec mundu guciac baino gehiago balio du. »

Agur Mariaren gainean bada san Thomas Akinacoaren bician ichtorio bat hunkigarria. Elizaco dotor pare gabecoa izan behar cena oraino haur tipittoa cen. Ama zuen Napleseco andre handi bat. Egun batez eramau zuen berekin mainhatcerat. Amañoc lurrean utcia zuelariac, Andrearen laguntceco, haurrac, nihor ohartu gabe, bildu zuen bere ondoan hatceman paper bat. Amañoc ethorri citzaionean mainhatceco buluzterat, etcion secular escua ideki ahal izan. Nigarrez, oihuca, haurrac bere ukhumilo tipia tinki tinkia begiratu zuen. Obligatua izan cen amañoc hala hala buluztera, mainhatcera eta berriz beztitcera.

Amac, nahiz ikhusi cer cen paper hain tinki haurrac zaindua zaucan hartan, oihuen eta ni-

garren bortchala, zabaldu cion escua. Bainen nola etcen miretsi ikhusiric paper hartan etcela bertceric Aingeruaren othoitza, *Agur Maria* baicic. Geroztic nigarrez hasten cenean, aski citzaion Thomas ttipiari escura emaita bere *Agur Mariaren* papera; berehala cincurinaic ichiltcen ciren. Oroc egin zuten haur horren geroco saindutasunaren eta Mariaren alderaco amodioaren seinale ageri bat bacela hortan. Gazteric ukho eginic munduco handitasunei eta aberatstasunei, Jaincoari eman cen san Domingoren ordrean.

Agur Mariaren bidez conbertitua izan da, duela zonbeit denbora, hamalau urtheco nechca protestant bat, gure errelisionearen gaincan gezurric baicen behinere aditu etzuena. Angles familia aberats batetacoa cen. Uste gabez escuetaratu citzaion catolicoen othoitceco liburutto bat, eta hartan iracurtu zuen *Agur Maria*, behinere oraino aditua etzuena. Protestantec, bere giristintasun erdizcacoan gaitzesten dituzte, idolatria balire bezala, Andre Dena Mariaren alderaco debocione guciac.

Othoitz horrec nechca gaztea hainbertcetaraino hunkitu zuen, nun gogoz ikhasi baitzuen, eta ardura heldu citzaion ahora. Bere lorian bethi bere othoitz maiteaz mintzo citzaioten bere inguruco ahaidei eta adichkidei. Behin irri egiten diote othoitz catolicoaren alderaco haren

amodioaz. Gero garrakzi gaizkitzen dute : Andre Dena Mariaren debocionea idolatria dela. Haurrac atchikitzen du bere *Agur Mariaren* aldea ahal duen bezala ; eta erraiten du belhi gero eta atsegin gehiagoekin.

Trufen eta gaizkien ondotic heldu dire egitate idorrac. Erraiten diote bere buru gogortasunaz familiaco errelisionea laidostatzen duela, aita amac ahalge-arazten dituela.

Gaizki idor horientzat ez du arraposturic biibatzen, ihardesten du choilki bere obrez. Ikhusten dute ethecoec ordu artean baino ez-tiago, cartsuago, obedientago, bere eginbidei jarraikiago. Ardura erranez bere *Agur Maria*, senditcen zuen bere baithan emendatcen bere errelisioe protestantaren higuintza, eta egiaren alderaco guticia handi bat.

Horra certan cen maiatza ethorri cenean. Auzoco eliza catolico batean behar cen cantatu meza eder bat musican. Musicari hanta baitcen, utci zuten ethecoec meza hartarat, bertce josteta batetara bezala. Hamasei urthe cituen orduan.

« Seculan orhoitaco naiz, izcribatcen zuen berac geroztic, ni, protestant tenploan, alki gurienetan behinere belhaunicatu gabe, chutic nindagoena, elizan sartcearekin belhaunicatu nintcen taula idorraren gainean, eta belhaunico

egon mezagucia. Aditu nuen gero predicua atencionerekin. Behinere aditu nituen predicu gucietaric lehena cen nere arimaraino sarthu cena. Geroztic ez nintcen choilki nere errelisionearentzat gosturic gabe, Fliza catolicoa biciki maite nuen. Orduartino hain agradatcen citzaitan beztimendei, dantcei, munduco arinkeriei ez nioten gehiago eskerric. « Ene Jaincoa, cion ene arimac, ez nauzu segurki placer horietaco creatu.»

Handic laster aita hil citzaion, eta amac eraman zuen Franciarat. Hara orduco nechea gazteac lehen lana izan zuen, aphez jakintsun batekin gure errelisionearen ikhastea. Ezagun da gero cer gerthatu cen. Bera conbertitu ondoan, *Agur Maria* ararteco, amarentzat gracia bera ardietsi zuen. Geroztic ama alabac, catolico cartsu, ez dire baratcen Birjina Sainduaren laudatcetic eta ohoratcetic.

Agur Maria! Agur Maria! confidentciarekin eta amodiorekin gure bihotcetic jalgi dadiela : *Agur Maria!*

HAMAHIRUGARREN EGUNA

Arrosorioa

Oroc badakigu segurki haurretic, arrosorioa dela othoitceco molde bat gehienic *Agur Maria* z egina, corona bat iduri : bihi chehe batzu ha-

marca berechiac, eta hamarrecoen artean bedera bihi larriago, hetan erraiten baita *Gure Aita*, eta bihi chehetan *Agur Maria*.

Horra arrosorioa. Baditu arrosorio osoac hamabortz hamarreco edo ehun eta berrogoi eta hamar *Agur Maria*, eta hamabortz *Gure Aita*. Arrosorioaren buruan den curutcean erraiten da *Sinhesten dut*; eta hamarreco bakhotcharen ondotic *Gloria Patri*. Curutcearekin diren hiru bihietan, bedera *Agur Maria*, Aitac, Semeac eta Izipiritu Sainduac Mariarekin dituzten misterioen ohoretan.

Arrosorio ttipia osoaren hiruetaric bat da. Berrogoi eta hamar bihi chehe edo *Agur Maria*, bortz bihi larri edo *Gure Aita*.

Arras aspaldidanic girstinoec bacituzten othoitcen condatceco moldeac. Hiru edo laugarren mendecotz zonbeit ermitaunen ichtorioan iracurtcen dugu bacituztela: bihi chehe batzu hari batean, edo coropiloac socachca batzuetan, edo harri kichcor zonbeit, sakela batetaric bertcerat emailen cirenac.

San Domingoc moldatu zuen othoitz hori, Andre Dena Maria bera zuelaric iracuszaile, eta eman cioten girstinoei haren phartez, duela zazpi ehun urthe.

Alde batetic ehun eta berrogoi eta hamar *Agur Mariae* hamabortz hamarrecotan phartitu

cituen; eta bertcetic, Jesusen eta Mariaren ichto-rioco phundu premiatsuenac eta hunkigarrienac hamabortz misteriotan cerratu, hamarreco bakhotchcan deboki gogoan erabiltceco.

Lehenbico bortz misterioac *bozcariozcoac* dire; bertce bortzac *dolorezcoac*; eta asken bortzac *loriazcoac*.

Hemen icendatuco ditugu choilki.

Bozcariozco misterioac :

1º Anontziacioneco eta Incarnacioneco misterioa;

2º Andre Dena Mariac santa Elizabeti egin cion bisita;

3º Jesus Haurraren sortcea Betelemeco establian;

4º Jesus Haurraren presentatcea Jerusalemeco temploan;

5º Jesus Haurraren causitcea, dotoren artean, temploan.

Dolorezco misterioac :

1º Jesusen agonia eta othoitza Olibetaco baratcean;

2º Jesusen azotatcea Pilatusen tribunalean;

3º Jesusi elhorrizco coroaren ezartcea;

4º Jesusec curutcearen juaitea Calbariorat;

5º Jesusen curutceficatcea, hiltcea eta ehorztea.

Loriazco misterioac :

1º Jesusen lorios hilen artetic phiztea ;

2º Jesusen lorioski cerurat igaitea ;

3º Izpiritu Sainduaren Apostoluen gainerat jaustea ;

4º Mariaren heriotze dohatsua eta cerurat altchatcea ;

5º Mariaren ceruco Erreginatzat coroatcea.

Horra beraz cer den Andre Dena Mariac San Domingori iracatsi Arrosorioa. Aita Sainduec induljentciez aberastu dute, eta hanitz aldiz giristinoeci gomendatu.

San Pascal Bailou cartsuac, egun guciez deboki erraiten zuenac, cioen : « Deitua da Arrosorioa, ceren *Agur Mariac* baitire arrosa churi batzu, ceruco Erregina garbiari escainiac zaizconac ; *Gure Aitac*, arrosa gorri batzu ; Salbatzailearen odolaz thindatuac.

Othoitz horren bidez san Domingoc egiazco federat itzul-araci cituen ehun mila heretico baino gehiago, eta combertitu conda ez diteken becenbat bekhatoros. Hil baino lehen, ikhusi cituen lau miliun giristino Arrosorioco confrarian sartcen. Hari ezker, geroztic lurraren bazter gucietarie, egun guciez ehun miliunca doaci *Agur Mariac* ceruco Erreginaren tronurat.

Giristino egiazco guti da arrosorioa berekin ibiltcen eta guti edo aski erraiten ez duenic. Eta

ez uste izan debocione hori jende chehearentzat dela choilki. Ez, arrosorioa oroentzat da, jakintsunentzat, deus ez dakitenentzat bezala; erregentzat, heien azpicoentzat bezala; gizonentzat, soldadoentzat eta langilentzat, emaztekien edo serorentzat bezala. Arrosorioa gucientzat da, ceren Andre Dena Maria gucientzat baita; ceren *Gure Aita* eta *Agur Maria* gucientzat baitire; ceren Jaincoa eta haren amodioa gucientzat baitire.

Bayard, gerlari famatua, aitoren-some beldurric ez estacururic gabecoac egun guciez arrosorioa erraiten zuen. Etchetic jalgitcean eta sartcean, belbaunico lurrari musu emaiten cion, eta galdatcen zuen Birjina Sainduaren benedicionea.

Luis XIV^{ac} debocione hera bazuen. Behin gorthecho jaun batec othoitz hortan causituric, erregec erran cion : « Ez dut seculan huts egiten, « usaia on hau amaren gauic daucat. »

Ez sinhetstecoa da giristino batzu ahatge dittezkeiela arrosoriaz, fede ttipia eta bihotz guti dukete halacoec. Medicu batec, geroztic giristino on bilhacatu denac, bainan orduan oraino sinhesteric gabe cenac, condatcen du nola harritu cen egun batez adituric Recamier medicu-dotor famatua, balentria bat bezala aiphatcen arrosorioa etzuela huts egiten. « Gazte nintzalaric, dio

medicu horrec, gerthatu nintzen Recamier famatuac bisitatcen zuen eri baten etchean. Ez nuen behinere ikhusia gizon aiphatu hura, choilki oroc bezala haren fama handia aditcen nuen. Sarthu ceu beraz eta hasi solasean lañoki. Bere consulta eman zuen zuhurki eta eztitasunekin. Chutituric canporat zobalaric, betbetan cerbeitez orboitcen balitz bezala, itzultcen da, ezartcen ditu berriz chapela eta khana mahainaren gainean, eta escua sakelan sarthuric erraiten du : « Ahantzter zaut gauza bat seriosa. — Cer bada? » galdegiten dio han cen aphez batec, etche hartaco adichkidea eta Recamieren ezagun handia cenac. — « Malur bat gerthatu zaut, jaun apheza, malur bat zuc bakharric errepara dezakezuna. — Dugun ikhus. — Zerbeit da hautsiric, eta zuc arras ongi arrimatuco duzu. Operacionetto bat galdatcen dautzut. » — Eta medicu jakintsun harrec escua sakelanic atheratcearekiu agertcen du... cer uste duzue? arrosorio pare bat. Harritua nindagon. Cer harrec!... Recamier handiac, Europa gucian famatuac, harrec arrosorioa sakelan, harrec arrosorioa erraiten!..... « Eri batentzat lida ez naicenean, cioen irri batekin Recamierec, ikhusten duanean erremedioac ez direla aski, hel egiten diot oro senda ditazken medicu handiari. Bainan abilki jokhatcen naiz, nola ene egitecoec ez baitautet

« uzten astiric behar den bezala laguntza galda-
 « tceco, hartcen dut Andre Dena Maria ararteco ;
 « erietarat nohalaric erraiten dut hamarreco bat
 « edo bertce arrosoriotic. Deus ez da errechago ;
 « gostuan naiz nere carrosan jarriric, emaiten
 « dut esca sakelan eta hasten naiz othoitcean
 « arrosorioarekin. Nola ardura ibiltcen baitut,
 « jaun apheza, akhitua da, eri da, behar duzu,
 « othoi, ongi etsaminatu, consulta bat eman, eta
 « behar bada operacionetto bat egin, hitz batez,
 « behar dautazu nere arrosorioa sendatu. »

Aphezac hartcen du arrosorio hautsia, hitz-
 emaiten laster arrimatnco duela, eta Recamier
 dotora jalgiten da.

« Adichkidea, erraiten zautan geroago giris-
 « tino handi harrec, arrosorioa chilintcha bat
 « da, edo galdegintza bat. Errege edo ministro
 « baten etchean errecebitua izaiteco behar dire
 « arartecoac, behar da aitcinetic galdegin, behar
 « da mila jestu. Andre Dena Mariaren mintzacea
 « baino deus ez da errechago. Jotcen duzu zure
 « chilintcha, errao nahi baita, hartcen zure ar-
 « rosorioa, berehala athea idekia da ; egiten duzu
 « zure galdea ; eta Ama Birjina hain ona da nun,
 « zonbeit arrazoin bereciz campo, bethi entzuten
 « baitu zure othoitza. »

Ez da deus ezdakitenac edo enuchentac baicic
 arrosorioaz eta debocioneaz truffatcen denic. Eta

bertzenaz hanitz izpiritu balute ere, hortan bature ez dute. Eta bertalde ez da berrogoi e'a hamarretaric bat barnetic eta cinez mintzo denic.

Egun batez, Volney, juan den mendeco inpio famatuenetaric bat, juana cen libertitcera, unctitto batean, bere idurico zonbeit lagunekin, Ameriketari Baltimoreco portutic ez urrun. Haice bat jaiki cen, eta laster tenpesta ikharagarri batec ezarri cituen galtceco menea. Lanjera handitcearekin, heien sinheste escasa tipitcen ari cen, nun gure espantu egileac belhaunico hasten baitire Jaincoari othoitcean, urricalmendu galdez.... botu egiten.... Birjina Sainduari chirio hitz-emaiten.... Volney, arrosorio batzu nunbeit hatcemanic, ari cen erraiten gora gora, batere ahalgeric gabe. Calerna jabaldu cenean, andre batec galdegin cion : « Errazu, jauna, doidoia nori othoitz egiten cinion? — Cer nahi duzu, ihardesten dio Volneyc, pochi bat chifritua, cer nahi duzu; trufac eder dire atherbetic, ez ditake gehiago trufa tenpestan. »

Beraz jarraic arrosorioari, ihil bethi zurekin; erran egun guciez guti edo aski. Andre Dena Mariac emanen dio ceruan corona distirant bat ardura lurrean *Agur Mariazco* corona bat egin dionari.

NANAL AUGARREN EGUNA

Andre Dena Maria Santa Elizabeten etchean
Bisitacioneco egunean

Anontziacionetic laster, Birjina Saindua, Jaincoaren Ama bilhacatua, juan cen Nazaretetic Judecarat, santa Elizabet bere ahaidearen bisitacera.

Gabriel Aingernac Mariari erran cioen bezala, bazuen jadanic sei hilabete santa Elizabetec Jondoni Juani Batista bere sabelean zabilala. Hebron deitzen cen hiritto batean bici cen, Zacarias bere senharrarekin, eta oraino ezagun dire Andre Dena Mariaren eta Berbo Incarnatuaren bisitaz ohoratua izan cen etchearen murrue-taric pharte, Zacariasen etchean sartcean, Mariac agur egin cion bere ahaideari; boz hura aditcearekin Elizabetec senditu zuen bere haurra bere baithan igiteen. Jesus, Mariaren sabelean cena, heldu cen Jondoni Juani Batistaren bekhatu orisinaletic garbitcera. Birjina Sainduaren mintzoa cen harentzat grañazco bathaio hat.

Denbora berean santa Elisabet izan cen Izpiritu Sainduaz bethea eta Mariari ihardetsi cion :
« Benedicatua zare emazte gucien artean; eta benedicatua da zure sabeleco fruitua. »

Emazte benedicatu hau cen Jaincoac Adami eta Ebari beren bekhatuaren ondotic agindu cio-

tena, ciolaric ethorriren cela emazte bat sugearen burua, erran nahi baita, debruaren burua lehertuco zuena. Debruaren burua da bekhatua eta bereciki bekhatu orisinala. Buru madaricatu hura lehertu du Mariac, debrua eta ifernua bentzutu ditu, lebenbicicoric bere Concebicione garbiaz, bekhatu orisinalari gaihenduric, eta bigarrenecoric bere Jainco-Amatasunaz, mundurat emanetz Jesus Salbatzailea, Satanen, ifernuaren eta bekhatuaren garraitzailea.

« Nundic heldu zaut gracia hau, cioen oraino Elizabetec, ene Jaincoaren Ama ethor dakidan ikhustera? (~~Zure mintzoa ene beharriec aditu duteneco, ene haurra nere baituan bozcarioz jauci da.~~) Pohatsua zare Aingeruac erran misterioa sinhetsiric, ecen Jaunac erran-araci daitzunac oro gerthatuco dire. »

Andre Dena Mariac Jaincoari bihurtu ciozean laudorio horiec guciac; eta Izpiritu Sainduaren argiarekin Elizabeti ihardetsi cion, bere bihotz cartsutic jalgi-araciric cantica miragarri hau : « *Magnificat anima mea Dominum. Ene arimac laudatcen du bere Jaincoa.* » — Eskerric humilenac emanic izan cituen gracia handiez, aithortu zuen jende-aracione guciac menderen mende dobatsutzat ezagutuco eta aiphatuco zutela. Adiaraci zuen urgulutsuentzat ez dela salbamenduric, Jaincoaren urricalmenduac umilentzat eta

aphalentzat daudela.— Elizac egun guciez erraiten du cantica eder hori. Cantatcen da chutic Jaincoaren Amaren hitzaren ohoratceco, eta ceren Ebanjeliotic jalgia den. Cantatu behar da beraz bihotz guciaz eta bere boz guciaz.

4 Ebanjelioac ez daucu erraiten zonbat denbora egotu cen Maria Elizabeten etchean. Uste dute etcela Nazareterat itzuli, hiru hilabeteren buruan baicic, Jondoni Juani Batista sorthu-eta.

Egun oroz Elizan gerthatecen da Jondoni Juaniri gerthatu citzaiona; arimac garbitcen eta salbatcen dire Mariaren bidez. Gisa gucietaco miraculuec frogatu dute bethidanic, eta egundaino baino gehiago frogatcen, Birjina Saindua gracien ithurria dela. Huna bat berriki gerthatua, Parisen, Andre Dena Maria Bitorietacoaren elizan.

Escocian bacen ministro protestant bat, biciki buru beroa, bere ahal guciez Eliza catolicoaren contra ari ceta. Gure errelisione saindua deitcen zuen gizonen arrazaren etsaia. Bazuen errabia eta higuintza bereci bat Birjina Saindu onarentzat. Ez dakit certaco. Cer gaizki egin cion bada? Bere predicu gucietan oihuca eta blasfemioca Mariaren contra, — hura ceu haren debocioneric handiena.

Aditu zuen mintzatcen ascotan Andre Dena Maria Bitorietacoaz. Gehiago ecin pairatuz ba-

doha Parisera, Birjina Sainduaren contraco libru-
 ruz carginua, behar duela protestant Ebanjelio
 egiazcoaren argia iracutsi catolicoen ilhunben
 erdian. Heldu da bentzutcecotan edo hiltcecotan,
 bertce orduz apostoluac Salbatzailearen phartez
 paganoen artean hedatu ciren bezala. Parisera
 orduco, joiten du chuchen etsaiari buruz, Andre
 Dena Maria Bitorietacoaren elizara. Sartcen da
 zalhu. Ikhusten ditu murrn paretac miraculuen
 seinalez estaliac; eri sendatuen present, bihotz
 cilhar eta urbe, izcribu, hanitz gracia eta fagoren
 orhoitzapenac : « Huna, huna erran zautatena,
 egiten du bere baithan, ez ninduten enganatu.....
 Bainan nun dute idola?..... »

Badoha zonbeit urhats aiteina, eta helteen da
 Andre Dena Maria Bitorietacoaren potret sain-
 duaren ondora : « Horra idola! horra idola! »
 egiten du coleran.

Eta gero betbetan, berac ez dakiela nola ez
 certaco, belhaunico jartcen da eta nigarrez has-
 ten. Lucez han, ohartu gabe, egonic, chutitcen
 da, diolaric bere buruari : « Catolico egin behar
 naiz. »

Jalgitcen da elizatic. Hotelera denean, gan-
 bara batean bakharric, hasten da bere buruari
 galdatcen cer iragan othe den haren baithan?
 Ahalgetua dago bere flakeciaz, emeki emeki aitci-
 neco ideia hereticoec gaina hartcen diote, Oren

laurden baten buruco behinere becen protestant, behinere becen ministro cen. — Ez segurki etcela catolico eginen !... Zazpi zortci egunez phestaz phesta, placerez placer dabila, Andre Dena Maria Bitorietacoa abantci nabiz. Bainan Pariseco bazterrac eta edergailuac curritcen ditue-laric, bethi heldu da, handi edo hemendic, eliza beraren aitcinera. Sartcen da azkenecotz, eta badoha berriz ere Mariaren aldarearen oinetara. Eta huna nun gerthatcen zaion lehen aldico nahasmendu bera..... Huna nun den berriz ere ahuspez..... Mariaren obra egina cen..... haren bekhatoros gaichoa, haren protestahta hatcema-na cen, conbertitua, salbatua.

Nigar eta othoitzeginic lucez, juaiten da sacristiarat, galdegiten du aphez bat, eta oro laburzki condatcen daizco. Aphez harrec behar bezala argituric, zonbeit asteren buruan ukho egin zuen protestantgoari eta lehen comunionea errecebitu Mariaren aldare hartan berean. Handic laster bere familiari eta bere lagunei izcribatu ondoan, bere ontasun guciac saldu cituen, eta Jesuisten ordrean sarthu cen. Ari da geroztic arimen Andre Dena Mariari eta Jaincoari biltcen.

Akhabatceco aipha ditzagun San Franses Salesecoaren zoubait hitz eder Bisitacioneco misterio hunen gainean : « On eta agrados da arimentzat Andre Dena Mariaz bisitatua izaitea, haren

bisitac ekhartcen baitaucu bethi hanitz lagore eta gracia, santa Elizabeti bezala. Bisita gozo betaz baliatceco behar da izan curaiea eta indarra giritinoki bicitceco. Ez ditazke pratica debocionea eta bertluntea penatu gabe. » Bicitce labur eta deboilatu hontan humil eta mortificatua denac Mariarekin cantatuco du ceruan : *Magnificat anima mea Dominum.*

HAMABORTZGARREN EGUNA

Birjina Saindua, San Josepe eta Jesus Haurra
Betelemen

Augusto enperadorearen manu bati obeditceco, Josepe eta Maria juan ciren Betelemerat; Jerusaleme ondoco hiritto bat cen, Nazarete heien egon-lekhutic hogoi eta bortz lecuetan. Abendoa cen, negu bihotza, hotz cen, eta bideac ere gaichtoac ciren. Josepe eta Maria, biac pobreac, bazohacin oinez edo astotto batean emeki, beren arimac Jaincoarekin cartsuki zauzcatela. Bidean ikhusten cituztenei etzaioten segurki gogoraco emazte pobre hura cela Birjina bekhaturic gabecoa, munduaren hastetic agindua, gizonen Salbatzailearen Ama. Etzuten asmatcen ahal Jaincoaren Semea heien aldean iragaiten cela, here Amaren sabelean. Etzakiketen emazte gazte

hura begiratzen eta gidatzen zuen gizon nekhatzaile arrotz hura izanen dela egun batez bazter gucietan aiphatua, laudatua, ohoratua.

Zonbeit egun ibili ondoan, akhituac, San Josepe eta Birjina Saindua heldu ciren Betelemera, Abendoaren 25^{co} bezperan edo bezperagoan. Alferretan bilhatu zuten phansa lekhu bat ostatueta; pobreac ciren, canpotiar hanitz bacen, etcen beraz heientzat tokiric.

Egizu, dio san Franses Salescoac, egizu ikhus-ten dituzula san Josepe eta Birjina Saindua Betelemerat heltzen, eta orotan bilhatzen atherbe bat, aurkhitu gabe nihor eman nahi diotenic. O Jaincoa! Ger mesprecioa mundutarrec jende jaincotiar eta sainduentzat! Eta nolaco pacienciarekin arima justu horiec jasaiten duten humiliacione hori! Ez dire arranguratzen, ez dute condaten Dabid erregearen ondocoetaric direla. Bainan pairatzen dituzte arbuio horiec eztitasun pare gabe batekin. Eta ni, naicen herbaila, zor zautan edo zor zautala iduritzen zautan ohorean demendren hutsa egiten badautate, gaitcicor naiz, tristatzen naiz eta khechatzen. Horra ene atrebentzia eta urgulua! Noiz ikhasico dut ene buruaren garraitzen, eta handi nahiaren zapatzen?

San Josepec etzuen aurkhitu beraz Mariarentzat bertce atherberic barroki tchar bat, hiritic

campo, baicic. Harpe bat cen aski barna. Dabiden denboracotz artzainec han emaiten cituzten arthaldeac gerizan, garaz eta denbora gaichtoetan. Bisitatcen dute oraino piaiantec eta beilariec Jesus Haurra sorthu cen lekhu. Gilharrezco izar handi bat bada emana harroca paretan, eta hartan hitz hauc : « HIC DEUS NATUS EST : *hemen Jaincoa sorthu da.* » — « Toki hartara cirenean beraz, dio Ebanjelioac, ethorri citaion Mariari haurraren izaiteco tenora, eta eman zuen mundurat bere Seme lehen-sorthua, inguratu zuen chatarretan eta ezarri othalacoan. » Gauerdi cen.

Cer amodiorekin, cer adoracionekin Birjina Sainduac agur egin bide cion bere Seme eta bere Jaincoari, lehen aldicotz bere begiez ikhusi, bere escuez hunki, bere musuez estali, bere bihotzaren gainean tincatu eta berotu zuenean ! Escuetan zuen Ama-Birjinac bere Semea, bai eta ere bere Creatzailea. Botierecoa cen sorthu berria, neurriric ez izariric ez duena haur ttipi egina ! Besoetan zabilcan ceruac eta lurrac atchic ez dioketena ! Chatarretan inguratcen zuen munduaren Nausia. Aingeruen bozcarioa eta loria egiten duena ceruan ikhusten zuen nigarrez ! O Mariaren bihotz garbian ciren ecin erranezco sendimenduac orduan !

Begiac idekitcearekin, Jesus Haurrac ikhusi zuen lehen creatura cen Maria. Bere nigarren

gatic etzuen harentzat irri gozoric baicen. Bere Ama notariac gabe concebituan ez baitzuen aurkhitcen deus pena egitecoric, osoki baitcen garbia, osoki perfeta, osoki saindua.

Gu gare, ni naiz bekhatoros dohacabea ; ene gatic izan dire Jesusen nigarrac. Izan bada errumes eta orotaz gabetua, hoztua othalaco gogorrean eta lastoan, charar latz batzutan inguratua, horiec oro nere gatic, ene urguluaren, handigoaren, nagikeriaren, ene bekhatu gucien borratceco. Nigar egiten zuen, eta ni nintcen nigar egin-arazten nioena, ni esker gabea, ni bekhatorosa ! O Jaincoa ! ez duta bada Jesus maitatuco ! Cer egin dezake bada gehiago ene bihotzaren irabazteco !

Saindu guciec izan dute Betelemeco misterio hunkigarriarentzat debocione eta amodio miragarri bat.

San Felitz Cantaliceco, jadanic aipatu dugunac, emaiten cituen Abendoco lau asteac, Egu-berrira preparatcen. Aurkhitcen cituen guciei galdegiten cioten eia egin gogo cioten egoitza eder bat Betelemeco haur ttipi maiteari. Berac, here bihotceco egoitza cartsuaz canpo, egiten zuen comentuco elizan, Betelemeco harpe eta othalacoaren molde hunkigarri bat. Han ezartcen zuen Jesus Haur ttipitto bat, Birjina Saindua eta san Josepe adoratzaile, Aingeruac eta artzainac

ere bai; deus abantci gabe, ez idia, ez astoa, ez ardiac. Betelemeco Haur ttipi maitearen gatic, haur ttipiac hanitz maite cituen, hetan ikhusiz Jesus Haurraren iduripena. Bazohan boien ganat, pherecatcen cituen, eta haurrac ere gogotic zabiltzan haren ondotic. Etcitekeien geldi Jesus Haurraren icenaren aiphatcetic, ikhusi haur guciei oiñu eginez : « Errazue, errazue, Jesus! » errazue oroc, Jesus! » Nahi zuen becenbat esker Jesusi eta Mariari ecin emanaz, baliatcen cen haurren inocentciac. « Lagun nezazue, haur maiteac, Jaincoari eskerren emaiten. Errazue oroc enekin : « DEO GRATIAS! Eskerrac Jaincoa-ri! »

Jesus Haurraren alderaco amodio hori emendatuz zohan haren baithan adinarekin. Azken urthetan bethi haurrez inguratua zabilan. Baitzakiten plazer egiten ciotela harekin erranez : « Jesus! eta *Deo gratias* », urrunetic ere, ikhusi orduco, laster egiten zuten bari buruz, oiñuca : « *Deo gratias!* aita Felitz; *Deo gratias!* »

Gu ere belhaunico eta abuspez eman gaiten Betelemeco Jesus Haurraren eta haren Ama Sainduaren aiticinean. Escain ditzoguten, ez histen diren loreac, bainan gure bihotzac eta gure amodioa, gure laudorioac eta adoracioneac, othoitzac eta eskerrac. Ardura aipha dezagun errespeturekin Icen saindu hau : « Jesus! Jesus!

Jesus ! » Hori da Jainco maitearen icena lurrean, Jainco gizon egin, gurekilaco Jaincoaren icena. Gure Jaincoa haur ttipi hori da; Birjina Sainduaren Haurra, Jesus Haurra.

HAMASEIGARREN EGUNA

**Artzainac eta Errege Magoac Jesusen eta Maria-
ren oinetan**

Gau hartan, dio Ebanjelioac, Betelemeco larretan bazauden artzainac arthalden zain. Huna nun Jaunaren Aingerua (Gabriel Aingerua cen behar bada, Incarnacioneco eta Birjina Sainduaren Aingerua), agertu cen heien artean; eta argi handi batec inguratu cituen. Artzainac harritu ciren. « Ez beldurric izan, erran cioten Aingeruac, bozcario handi baten berria ekhartzen dautzuet. Egun Dabiden hirian sorthu da Salbatzailea, eta Salbatzaile hura Cristo Jauna da. Huna certaric ezagutuco duzuen. Aurkhituco dozue haur ttipi bat ccharretan trochatua eta othalacoan etzana. Eta ordu berean Aingeru haren gana bildu cen bertee Aingeru ospe handi bat, Jaincoa laudatcen zutela: « Ohore Jaincoari cern goretan, eta bakea lurrean borondate oneco gizoneti. »

Eta Aingeruac esteali cirenean, artzainec er-

ran zuten elgarrekin : « Guacin Betelemerat, eta dugun ikhus cer gerthatu den. Juan ciren berehala, eta aurkbitu cituzten Maria eta Josepe, eta Haurra lastoan etzana. Adoratu zuten fede handi batekin, confidentciarekin eta amodiorekin. Eta gero, gibeleracoan, Jaincoa laudatcen eta benedicatcen zuten ikhusi eta aditu cituzten guciez. Orori condatuz gauza miragarri hoiec, izan ciren, Aingeruen ondotic, Jesu-Cristoren lehen predicatzaileac. Errana da hiru artzain cirela, eta hetaric bat oraino arras gaztea. Badi-take artzain bihotz on hoiec emaiten cioten bicitecoa Jesus Haurrari eta san Joseperi, errege Magoac ethorri artino.

Ceruco Errege handi lastoraino aphalduaren lehen adoratzaileac ciren beraz pobreac. Deithu cituen aberatsac baino lehenago, gizonei iracusteco aberastasunen mesprezatcen, eta bicitce humil eta gordearen estimatcen. Ethorri ciren bere aldian aberatsac ere. Magoac deitcen ditu Ebanjelioac. Errege batzu ciren, eta denbora berean jakintsunac. Jesus Haurraren eta Mariaren oinetara biltcen dire beraz hastapenetic pobreac eta aberatsac, jakitate gabeac eta jakintsunac, azpicoac eta manatzaileac, ceren gizon guciec zor baitiotzote Jesusi fede osoa eta adoracionea, eta Mariari ohore eta laudorioac.

Hiru ciren Errege Magoac ere. Miraculuzco

izar handi eta distirant batec gidaturic ethorri ciren iguzkico aldetic. Ekharri cituen izarrae Betelemera, eta gelditu cen Jesus Haurraren etcholaren gainean. Bozkariorekin sarthu ciren, eta aurkbitu zuten Haurra bere Amarekin, eta ahuspez adonatu zuten. Eta gero idekiric berekin ekharriac cituzten untci aberatsac, escaini cioztoten lastoaren gainean etzan Errege ttipiari urhea, intsentsua eta mirha.

Urheac, hain haliosa delacotz, seinalatcen du amodioa, Jesusec bere fededunetarie igurikitcen duena; Jaincoaren amodioa baita berthuteric ederrena eta perfetena. Intsentsuaren kheia eta usain ona alchatcen dire bethi ceruco alderat, fededunen othoitz cartsu eta usain onecoac Jesusen ganat igan behar diren bezala. Mirhac, bere khirestasunarekin gorphutzac usteltcera ez utciz, seinalatcen du mortificacionea, penitenciac arimac galtcetic begiratcen baititu. Horra Jesus Haurrac gure ganic behar dituen urhea, intsentsua eta mirha.

Eta nola Magoec bere present ederrac Jesus ttipiari eman baitciozcaten Birjina Sainduaren escuz; guc ere orobat, Jainco maiteari emaiten ditugun guciac escain ditzogun Mariaren escuz, gure amodiozco actac, gure othoitzac, gure mortificacioneac.

Andre Dena Mariac ordainez emanen dio Jesus

bere graciekin gure bihotzari. Badire sainduac ardietsi dutenac Birjina Sainduaren ganic ez choilki Jesusen behatce ezti baten fagorea, bainan Jesus bera, haur ttipi baten itchuran, beren escuetara izaiteco zoriona.

Atzo aiphatcen ginituen saindu maithagarri bat, san Felitz Cantalicecoa, eta haren egitate laño eta sainduac. Gau batez othoitcean zagon cartsuki elizan. Betbetan amodiozco bolta batean chutitcen da, badoha aldare nausira; han, ahuspez othoitzen du, errekeritcen Jaincoaren Ama Saindua eman dezon bere Seme eztia, memento hat bederen.

Lakhet citzaion Birjina Sainduari cerbitzari maito horri atsegin egitea; agertcen zaio eta emaiten dio Jesus Haur ttipia besoetara. Hartcen du Felitcec, errespetu handirekin, eta ezartcen bihotzaren aldean amodiozco mila phereca eta musurekin. Cer zorionezco nigarrac jalgitcen diren haren begietaric! Azkenean itzultcen dio Birjina Sainduari bere Jainco Haur maitea, bere bihotceco esker onekin.

Holaco fagoreac saindutasun handi baten sariac dire, ez ditugu beraz igurikitcen ahal; bainan guacin Mariaren ganat artzainen eta Errege Magoen sendimenduekin, eta galdegin dezogun, Jesus Haurra gure baithan ezarriz, egin gaitzan hura bezala humil eta obedient, garbi eta saindu.

O Jesus Haurra, zato, bici zaite ene bihotcean eta bihotz gucietan!

HAMAZAZPIGARREN EGUNA

Birjina Saindua eta Jesus Sacramendu Sainduan

Huna oroz gainetic amodiozco misterioa. Jesus gure artean dago lurrean: iduri du cerua ez duela aski. Hemen da, aldareco Sacramendu Sainduaren bidez, bere gorphutz egiazcoarekin, arima sainduarekin eta Jaincotasun izari gabearekin. Hemen da ostia churi horren itchuran, denbora berean gure begien aitcinean eta gure begiei gordea. Aingeruec ikhusten dute haren loria eta edertasuna ceruan, guc ere, heiec bezala, gurekin dugu, bainan ez dugu oraino ikhusten.

Birjina Saindua Jesusec Ama duelacotz, Ama du aurkhiten den lekhu gucietan; Sacramendu Sainduan ere haren Ama da beraz. Sacramendu Saindua Mariaren Semea da, ogiaren eta arnoaren iduriez beztitua.

Meza Sainduan zarenean, Tabernaclearen aitcinean belhaunico othoitcean zaudenean, egiazki Jesusen oinetan zare, bertee orduz artzainac eta Errege Magoac Betelemen bezala. Artzainec eta Errege Magoec ikhusten zuten Jesus Haur-

raren gizontasuna, Jaincotasuna etzuten ikhusten, bainan sinhesten bere bihotz guciaz. Sinhesten eta adoratcen zuten beraz ikhusten otzuten.

Guc orobat adoratcen eta sinhesten dugu ikhusten ez duguna Sacramendu Sainduan. Ikhusten dugu sacramendua, erran nahi da seinale ageria, Jesu-Cristo hor daucana; haren gizontasuna eta Jaincotasuna ez ditugu ikhusten, ostia churi horrec gordetcen baiteraizcu.

Birjina Sainduac zuen eman mundurat Jesus Haurra eta ezarri othalacoan. Mariac eta Josepec iracutsi cioten eta eman artzainei eta Errege Magoci. Aldarean, Elizac emaiten du mundurat Jesus Consecracioncaren bidez, bere aphecen escuz iracusten giristinoci eta emaiten comunecan. Orai Jesu-Cristoren othalaco loriosa aldarea da, eta Eliza catolicoa Beteleme bat, han baitute gizonec aurkhitcu beren Salbatzailea. « Huna certaric ezagutuco duzuen, cioeu Aingeruac artzainei : « Haur ttipi bat da, chatarrez inguratua, othalaco batean etzana. » Eta artzainec aurkhitu cituzten Maria, Josepe eta Haurra, dio Ebanjelioac. Guri aldiz, Elizac erraiten daucu : « Huna certaric ezagutuco duzuen : Ostia ttipi bat da, ene aphezac iracutsico eta emanen dautzuen; sacramenduco itchura churietan inguratua aurkhituco duzue aldarean. Hura da Jesus Jaincoa, adora zazue! »

Horra certaco Comunione Sainduac Jesus Haurrarekin hain hertsiki bat eginez, deusec baino gehiago Maria Birjinarekin bat egiten gaituen. Comunia zazu, dio san Franses Salesecoac, eta sacramendu hortan errecebituco duzu Mariaren haragitic den haragia, haren odolitic den odola, Salbatzailearen gorphutz baliosa, sacramenduan dena, eginia izan denaz geroz Mariaren sabelean, haren odol garbitic, Izipiritu Sainduaren obrac. Ez gare secular Mariarekin batago comunione cartsu batean baino.

San Gaetanec meza saindua hain fede handiarekin erraiten zuen, nun Jesu-Cristo errecebitcean aldarean, hartcen baitzuen Birjina Sainduaren escutic bezala. Eguberri gauean, 1517^{an}, Birjina Sainduac eta Jesusec egin cioten gracia bereci bat. — Salbatzaile sorthu berriac obacotzat izan zuen Betelemeco othalaco hura begiratu da Erruman, Mariaren eliza nausian. — Eliza hartan zagon Gaetan othoitcean. — Birjina Sainduac Berbo betierecoa mundurat eman zuen orenean, dio berac, hurbildu nintcen othalaco saindu, errelica balios hartarat. Errecebitu nuen Mariaren escutic haren Haur ezti, Berbo haragiz beztitua. Ene bihotza biciki gogorra da, ez denaz geroz orduan phorroscatu eta urthu. »

Ez dezagun beraz ahantz Jesus ona, Birjina Mariaren Semea, gure aldean dugula, eliza bat,

tabernacle bat, ostia contsecratu bat diren toki gucietan. Ez dugu Magoec becenbat bide egin behar haren adoratceco. Ascotan Betelemeco artzainec baino hurbilago dugu. Ez dezagun baharric utz, bertce orduz Betelemetarrec, orai ere hanitz girstino achola, fede, amodio gabec bezala. Cer! hainbertce Sacrificio Saindu celebratcen dire gure aldean, baten aditceco guticia guri ethorri gabe, errechki egiten ahal dugularic! Eta aratsalde lucetan, utcico dugu Jesus choil choila, desertu batean bezala, hanitcec auzo dugularic, juan gabe agur baten egitera, adoracione baten escaintcera, atsegabe baten erraitera, gracia baten galdatcera!...

O Birjina Saindua! emenda zazu ene fedea, ene arimaco begiyc bethi Jesus, zure Semea eta ene Anaia, ezagut dezaten aldareco Sacramenduan!

HEMEZORTCIGARREN EGUNA

Jesus, Maria eta Josepe Nazareten

Jesus Haurra etcen ethorri chuchen Betelemetic bere aita amen etcherat, Nazareterat. San Josepec eta Birjina Sainduac ihes egin behar izan zuten Ejiptorat, Herodes crudelari bere Trezoraren gordetceco. Bi urtheren buruan choilki, Herodes hil-eta, Haur saindu hori itzuli cen bere

Amarekin eta bere aita ordearekin Nazaretco hiritorrat. Han, ichilic eta gorderic, lanean iragan cituen hogoi eta zazpi urthe.

Jesus handitu cen bertce haurrac bezala emeki emeki, ceren Jesus egiazco gizon baitcen, Jainco becen ongi. Nahiz hastetic bacituen adimendua, jakitatea, indarra osoki perfetac, nahi izan zuen bizkitartean iracusterat eman canpoz, bertcei bezala, ahalac lucez eta nekez heldu zaizkiotcila. Sorthu da, oro sortcen garelacotz, handitu da hurriki, oro hala egiten garelacotz. Jan behar izan du, edan, lo egin, hatsa hartu, beztitu, ibili, horiec direlacotz oroen ecin bertceac.

Eta bertzalde, etcituen behar, berac iraganez, saindutu haurtasuna, gaztetasuna, adin jarria?

Ikhus azu arimaco begiz Jesus adin horietan gucietan. Behin Ejiptotic lekhora Nazaretan hiru lau urthelan. Cer Haur ttipi ezti, gozo-eta mai-thagarria! Gero berriz handichago, Mariaren eta Josepen inguruetan, indarrac ethortcearekin, ikhus azu etheco lantoei oharicen, bazterren garbitcen, ithurrirat juaiten, egur kharraiatcen, san Joseperen tresnen ibiltcen. Bethi cen ezti, humil eta obedient; eta gaztedanic ari cen Birjina Sainduaren laguntcen egun gucietaco barne lanetan.

Nazaretan izan bacine orduan, haur maitea, akin izan bacinu zoin cen haur hura, zure auzoa

eta zure laguna, cer eginen cinuen? Etcinuen a imitatu nahico orotan? Hura bezala obedienta eta humila izanez, hura bezala othoitzari jarraikia, eztia, modesta, langilea, urguluric ez arinkeriaric gabea.

Galda zozu beraz zure othoitz onetan Nazareteco Jesus Haurrari handi-araz zaitzan zu ere, berthute berez beztitua eta aphaindua.

Bainan huna cer gerthatu citzaion hamabi urthetan. Jesusen aita amac urthe guciez bazohacin Jerusalemerat Phazco phestetan. Han aditcen zuten legea iracurtcen eta esplicatcen. Han ikhusten cituzten sacrificioac egiten, eta berec ere, bertcec bezala, hetan pharte bazuten. Sacrificio hec Jesusen Pasionearen itchura ciren. Lege zaharreco aldaretan ichurtcen cen bildotzen odola, curutcearen gaineco Odola ichuria izan artino, haren seinalatecco eta iguric-arazteco. Aitcinetic beraz Birjina Sainduac ikhusten bezala zuen bere Haur Jainco Semcaren heriotcea! Hamabi urthetara cencan Jesus, bethi bezala, juan ciren Phazcoz Jerusalemerat; phestac iragan-eta, Jesus Haurra gelditu cen Jerusalem, etheccoac ohartu gabe. Ustez zonbeit eza-gunekin zuten, ethorri ciren gibelerat egun baten bidean. Eta gero bilhatu zuten ahaiden eta adichkiden artean, eta betan ez aurkhituric, itzuli ciren Jerusalemerat. O Mariaren eta Jose-

peren bihotz mina eta nigarrac! Eta bertaco Jesus hain maiteac, behinere bere Amaren ganic urrundu etcenac, holaco pena bidea eman cioten?.....

Bada hor ere guretzat iracuspén bat. Gue hantzetan Jesus galtzen duga, eta gure bihotza ez da zaurtzen, gure begiee ez dute nigar egiten; lakhetzen gare, Jesusen ganic urrun, bekhatuan, gure arima gaichoaren caltetan, eta salbamentuaren hirriscutan. Galda dezogun Birjina Sainduari, harrec bezala, Jesus gabe onic ez izaiteco gracia.

Hiru egun ondotic ibiliric, aurkhitu zuten Tenploan, dotorren artean, heiekin solasean, legeaz mintzo. Miretsiric Amac erran cion: « Ene Semca, cer egin daucuzu? Huna hiru egun zure aita eta ni zure ondotic gabiltzala aubenduac. — Certaco bilhatzen ninduzuen? Etcinakitena ene Aita cerncoaren egitecoetan izan behar ninteela? » — Etzuten conprentu cer erran nahi zuen. Bainan heiekin jautsi cen eta itzuli Nazareterat, — eta obedient egon citzaioten. Ez du Ebanjelioac bertee hitcie erraiten Salbatzaileaz hogoi eta hamar urthetaraino. Jesus oroen Creatzaile eta Nausia Mariaren eta Joseperen azpico, horra Jainco baten ichtorio gucia Nazareteco bicittee gordean.

Zonbat haur obediten diotenac beren aita

amei gorenaz hamalau hamabortz urthetaraino; eta gero iduritcen zaiote handic harat bere bu-ruaren jabe izan behar direla, eta ez bertcen azpico.

Zonbat haur adin hortaraino fidel daudenac beren Jaincoari, othoitzari jarraikitcen direnac, cofesio comuioneac egiten dituztenac, eta gero iduritcen zaiote ez diotela Jaincoari beren aitci-necoei baino gehiago obedientciaric zor. Ez dire Jesus Nazaretcoea bezalacoac. Eta bizkitartean heien Nansia eta Jaincoa da, eta haren obedien-ctiac condenatcen ditu heiec duten libro izaiteco gulicia zoroac.

Gazte maitea, nahi zare izan onhest, eta egon fidel zure eginbidei? Beha zozu Tabernacleari. Han da Jesus, Nazaretco Haurra eta Gizon gaz-tea. Eta erraiten dautzu : « Haurgi ene ganat eta errecebi nezac, nitan dituc gazten berthutea eta indarra; ni nauc san Joseperen aprendiz obe-dienta, nic emanen daiat laneco gogoia. »

O Jesus! O Maria! o Josepe! sor-araz zaitzue ene bihotcean Nazareten praticatu dituzuen ber-thuteac!

HEMERETCIGARREN EGUNA

Birjina Saindua Canaco eztaietan

Egon cen Jesus ichilic eta gorderic Nazareten

hogoi eta hamar urthetaraino, guri iracusteco egiazco saindutasuna ez dela gauza espantagarri egitea, bainan leialki egun gucietaco eginbiden bethetcea Jaincoaren gatic.

San Josepe hil izan cen Jesusen besoetan, Birjina Sainduaren othoitzez, laguntzez eta amodioaz solegitua. Bere saila akhabatua zuen Saindu handi harrec. Murru pareta churi baten gerizan landare balios bat sortcen eta handitcen den bazala, san Josepec begiratu zuen Jesusen Haurtasuna, bai eta ere Mariaren humiltasuna. Ecen san Joseperen egiteco bereci eta ederra cen lurrean Aita Eternalaren orde izaitea Birjina Sainduaren eta Jesus Haurraren aldean. Bainan Jesusec etzuen gehiago zaintzale beharric, hortacotz Ebanjelicoren predicatcera abiatu baino lehen, Ceruco atheac zabaldu ciozcan gizon justu horri.

Bicitce publicoa hasi zuenean, Nazaretetic jalgi-eta laster, Salbatzailea gonbidatua izan cen bere Amarekin, Galilean, Canaco hirittoan, eztaibatzuetarat. Egun hartaco esposa, uste dutenaz, san Bartolome cen; handic zonbeit denboraren buruan Jesusi jarraikirie haren dicipulu izaiteco, Apostolutzat hautatu zuen. Bartolomeren laguna, dudaric gabe, bildu cen Birjina Saindua ganat, bertce zonbeit emazte saindu bezala.

Eztaietaco bazcarian arnoa escastu cela char-

turic, Andre Dena Mariac mintzatu zuen bere Semea : « Arnoic ez dute gehiago. » Ageri dire hitz horietaric Mariaren eta Jesusen Bihotz onac ; Mariarena, ohartcen eta urricaltcen baita jende heien penaz ; Jesusena, ceren Haren bihotz ona ezagutcen duela cotz ; Amac, bertce otboiteic gabe, choilki jende heien beharra aiphatcen baitio : « Arnoa escastu da. » Jesusec amultsuki behatu cion eta ihardetsi : « Emaztea, cer da zure eta ene artean ? » Erran nahi baita, hanitcec uste dutenaz, « nundic ideia berac ditugu ; nic ere gauza bera nuen gogoan. — Ene orena ez da ethorria. » Birjina Sainduac ikhusten zuen entzuna cela. Hortacotz ascori iduritcen zaiote, Jesusec bere lehen miraculua, egin gogo zuen baino lehenago, conplitu zuela, bere Amac galdata ciolacotz.

« Egitzue horrec erranac oro », erran cioten Birjina Sainduac sehiei.

Bacituzten etchea, dio Ebanjelioac, sei harrizco untei, apairu aitein ondoetan ikhusteco. Ehun edo chun eta berrogoi eta hamar litra atchikitcen cituen bakhotchac. « Bethe zaitzue untei horiec urez », manatu cioten Jesusec. Eta bethe cituzten gaineraino. « Har zazue orai hortaric eta eman cerbitzarien aiteindariari. » Harrec jastatu zuenean ur arno bilbacatua, harritua zagon nundic othe cen arno on hura.

Sehic beren begiez eta beren escuetan ikhusia baitzuten miraculua egiten, condatu cioten espo-sei eta eztailiarrei. — « Eta hura cen, dio Eban-jelioac, Jesusen lehen miraculua, eta dicipuluec sinhestea hartu zuten haren baithan.

Aphezac ikhusten du, egun guciez, miraculu bat handiagoa conplitcen bere escuetan, ogia eta arnoa aldarean canbiatcen Jainco Semearen gorphutcera eta odolera.

Mariac ardietsi miraculu hortaz mintzatcean, san Franses Salesecoac erraiten derancu : « Itzul gaiten beraz Andre Dena Mariari buruz, gure behar orduetan, hain botheretsu denaz geroz bere Semearen aldean. Gonbida dezagun Jesus Jaunarekin. Nun ere baita Ama, han izanen da Semea, eta Jaincoaren graciën arnoa etzaucu escastuco. Erranen dio Mariac Jesusi : Ene Jauna eta ene Semea, ene haur eta zure cerbitzari hu-nec ez du arnoric. Eta Jesusec emanen deraucu.

Eta gero nahi badugu Andre Dena Mariac gal-degin dezon Jesusi gure epheltasunaren ura car-tsutasunaren arnorat canbia dezan, behar di-tugu egin Jesusec erranen daizcunac. « Harrec erranac egitzue, dio Mariac. Bethc zuen bilhotzac penitentciaren urez, Jesusec gracienco eta amo-diozco arnorat canbia dezan ur hura. »

O Birjina ezta, egizu ez dezagun secular abantz zure iracuspén labur eta baliosa : « Egi-tzue Jesusec erranac. »

HOGOIGARREN EGUNA

Birjina Saindua Calbarloan

Jesusen Amac, emazte saindu batzuekin, segitu zuen zonbeit aldiz bere Semea, predicatzen zabilanean; bainan Pasioneco oren luce eta latzgarrietan hurbildanik jarraiki citzaion, Jondoni Joanirekin, santa Madalenarekin eta bertce emazte lagunekin. Oren laurden batea heina da Pilatusen tribunaletic eta Calbariora. Ageri dire oraino Jesusen eta Mariaren oin sacratuez hunkituac izan diren harriac. Marcatua da zoin tokitan Birjina Sainduac ikhusi zuen iragaiten curutcearekin bere Semea, eta nundic hasiric segitu zuen Calbarioraino, curutcearen oinetan egoiteco ortcirale Sainduco egun ikharagarri gucia.

Jesus, bertce orduz haurrean, besoetan ibiltcen zuena, dilingan cen, zurezco curutce baten beso dorphe eta latzei itzatua. Haren buru eta begitarte adoragarriac, lehen bere musu amultsuez estaltcen cituenac, orai elhorrizco coroarekin, odolez eta thuz estaliac ciren; eta gorphutz sacratu hura, Birjina Sainduac eztiki chatarrez inguratcen zuena, azotec sarraskitua, itce icigarri batzuec curutceari lothua zaucaten.

Maria chutic zagon, Jesusen curutcearen oinetan, escuineco aldean, Jesusen eta ohoia onaren artean. Haren ondoan zauden Jondoni Joani,

santa Madalena, eta bertxe emazte sainduac. Escuineco aldean dire bethi Mariarekin hautatuac : eta eskerrean aldiz, Maria ez den alderdian, ohoin gaichtoa bezala, arima galduac.

Curutcearen ondoan chutic zagon, iduri apheza aldarean, ofreitcen zuela, bihotcez eta amodio-ekin harrec ere, Bitima Saindua munduaren erosteco. Nahiz haren dolorea gure dolore guciac baino biciki handiago cen, egon cen azcar eta cordocatu gabe, Semearen odolezco sacrificioac cirauo.

Eguerdiri huru, ilhunbe miraculuzco batzu hasi ciren hedatcen lurraren gainean. Behaco batez Jondoni Joani iracutsiz, Jesusec erran cion bere Amari : « Emaztea, horra zure Semea ; » eta Jondoni Joaniri : « Horra zure Ama. »

O Jaincoa, cer trucada ! Jaincoaren Semearen, Jesus Saindu eta Adoragarriaren orde, Mariac behar du beraz semetzat gizon choil bat ! Ez du bizkitartean arbuiatcen ; eta Jondoni Joanirekin batcan hartcen ditu semetzat Salbatzaile curutcelicatuaren haur guciac. Memento hartan, bihotz-minen eta lazduren erdian, bilhacatu cen gure Ama, giristinoen egiazco Ama, gure arimaren Ama, Elizaren Ama.

Geroztic giristino bat ikhustean, bereciki cartsua bada, Birjina Saindua orboitcen da Jesuseu hitzaz : « Horra zure Semea, » eta baditu

harentzat mainaric amultsuepac eta hunkigarrienac. Guc ere, Mariaren potret bat ikhustean, edo hartaz orhoitcean, erran dezakegu, eta erran ere behar dugu : « Horra ene Ama! ene arimaren, ene salbamenduaren Ama. »

Birjina Saindua agertu citzaion santa Coletari, othoitcean zagolaric bekhatorosentzat : « Ene haurra, erran cion Mariac, iracusten ciolaric Jesus curutceficatua eta zauriz estalia; izan ezan urricalmendu nitaz eta ene Semeaz. Ikhus-an girstino gaichtoec nola dabilcaten ene Semea, berriz bere bihotcean curutceficatuz eta hilaraciz. »

Ez dezagun beraz gehiago bekhaturic egin. Ez dezogun gehiago Mariari sofri-araz, Jesus curutceficatuz. Oi! zombat mila arima, Jesusentzat eta Mariarentzat, egun guciez Calbario berri bazu diren, bekhatu becenbat curutce Salbazailuari eginez! Guc, gure obedientciatz, amodioaz, othoitceez contsola dezagun Birjina Saindua, eta ahantz-araz ditzogun girstino esker gaben ganic dituen atsegabeac.

Gorphutceco sofricarioetan ere, gogoan erabil dezagun Jesusen Pasionea, beha dezogun curutceficari, aiseago jasanen ditugu gure oinhaccac. Zombat Saindu, zombat girstino jaincotiar, beren eritasun luce eta ikharagarrietan, pacientciarekin, curaierekin, sainduki sofritu dutenac, Jesus

curutcean eta Maria haren oinetan consideratuz.

O Ama ona! Calbarioco sacrificioa berritcen denaz geroz egun guciez aldarean, ardiets diezadazu Meza Sainduaren bethi ongi aditceco gracia.

HOGOI ETA BATGARREN EGUNA

**Birjina Saindua Pasco, Jondoni Salvatore eta bere-
ciki Mendecoste egunean**

Bere Semearen Pasione eta doloretan pharte izan ondoan, zucen ceu Birjina Sainduac pharte izan cezan ere haren Pizte lorioseco bozcarioan. Nahiz Ebanjelioac ez duen aiphatcen, Jesus piztuaren lehen bisita, ez da dudatceco, Amac izan zuen; eta lurrean egon ceu berrogoi egunetan ardura ikhusi zukeien.

Jondoni Salvatore egunean, Apostoluekin eta bortz ehun dicipuluekin, segitu zuen Salbatzailea Jerusalemec Olibetaco mendirat, eta heiec bezala, ikhusi cerurat igaiten.

Handic Mariac eraman cituen berriz Jondoni Petri eta Apostoluac, eta zonbeit dicipulu ere *Cenacleat* Badakigu oroc *Cenacles* cela Salbatzaileac, bere azken apairuaren ondotic, Sacramendu Saindua establitu zuen tokia. Handic abiatu ceu dolorezco Pasionearen pairatceco;

han herean, Pazco egunean, agertu citzaioten Apostoluei, gordeac zaudelarie Juduen beldurrez, eta berriz zortci egunen buruan, Tomas sinhets-gogorra egiazki piztu cela segurtatceco. Han Mariarekin Apostoluec, ichiltasunean eta otboitcean, iguriki zuten agindua citzaioten Izpiritu Saindua.

Mendecoste egunean Izpiritu Saindua jautsien, suzco mihien itchuran, Elizaco lehenbicio Aitcindarien gainerat, Jondoni Petri, lehen Aita Sainduaren ganat eta bertce Apostoluetarat. Eta Eliza catolica, ordutic hasia, abiatu cen berehala Jesu-Cristoren predicatcen, sacramenduen emaiten, bekhatuen barkhatcen, Mezaco sacrificioaren ofreitcen, munduaren saindutcen eta salbatcen.

Izpiritu Saindua lehenic Mariaren ganat jautsirie, haren ganic phartitu cen Apostoluetarat; lehenago Jesu-Cristo, cerutic haren baitharat jautsirie, haren ganic mundurat ethorri cen bezala. O Mariaren handitasuna! Elizac dituen guciac Jesusen ganic dauzca, Mariaren bidez.

Hortacotz, ez diteke izan Birjina Sainduaren haur, Elizaren haur leial izan gabe. Bere haurren ezagutceco marca bereci bat Mariae hori dauca. Eliza maite badute, Aita Saindua maite badute, Elizaren aldea balin badaucate, Birjina Sainduac bere haurzat dauzca. Bainan acholaric ez badute

Elizaz, ez haren Aitcindarietz, ez haren ohoreaz, ez haren beharrez, holaco erdi-giristinoac Mariac ez ditu ezagutcen bere haurtzat eta Jesusen anaiatzat.

Beraz maita dezagun Jesusen eta Mariaren Eliza, ez baita hartaz canpo Eliza egiazcoric. Maita Eliza, izan catolico on eta leial, hiltcecotan ere, behar balitz, fedeari ukho eginen dugun baino lehen. Iracuts, copeta goraric, ohore zaucula giristino catolico izaitea. Higuin ditzagun, Jesusec eta Mariac hastio dituzten bezalà, Elizaren contraco solas eta egitate guciac.

Santa Juana Chantalec bortz urthetaco iracusten zuen Elizaren amodioa eta hereticoen higuintza. Egun batez entzun zuen aitoren-seme protestant bat Eliza catolicoaren ete bereciki Gorphutz Sainduco sacramenduaren contra mintzatcen. Etzuen geroztic haren pherecaric ez mainaric nahi. Nola baketceco escaintcen baitciozcan zonbeit oniza, haurrac hartu eta surat aurthiki ciozcan, ciolaric : « Horra nola erreco diren hereticoac ifernuco suan, ez dituztelacotz sinhesten Jesu-Cristoren erranac. »

Ez ditugu gure haurrac segurki goicegi ohararacico Elizaren beharrez eta hersturez ; ez dugu goicegi emanen heien bihotcean Eliza Ama Sainduaren amodioa.

Hereticoen eta Chizmaticoen iracuspene con-

tra Birjina Sainduac duen biguintzaz becenbatean, Mgr de Segurrec condacten du ichtorio bat espantitcecoa, berari gerthatua.

« Erruman ezagutu dut, 1842^{mo}, dio berac, andre Rusiano bat, chizmaticoa. Pena handitan cen, bere haur baxharra galduric. Jadanic bihotcezen catolico, eta goraki iracusten zuen guticia, bere chizmatico errelisioneaa utciric, egiazco sinhesteari lotceco. Curaiestatceco eman nion Birjina Sainduaren medaila bat, Aita Sainduac benedicatua.

« Handic bi hilabeteren buruan aurkhitu nuen berriz andre hura. Ikhusi orduco erraiten daut :
 « Ez dakizu, jauna, cer gerthatu zautan zuc eman
 « medailarekin? Nahi izan dut alchatu nere gau-
 « zaric baliosenac atchikitcen ditudan untcitto
 « batean. Nola bainuen jadanic hari batean gure
 « Rusianoen errelisioneco saindu baten medaila
 « bat, harrekin ezarri gogo nuen. Lachatcen dut
 « beraz haria, eta bi medailac elgarrekin ezar-
 « tcen ditut untcittoan. Bainan horra nun zure
 « medaila ikhusten dutan ene belhauenen gai-
 « nean. Segurki harian sarthua eta untcian he-
 « tsia naukan bada.

« Berriz ere untcia idekiric, haria lachaturic,
 « egiten dut lan bera. Eta berriz ere, untcia
 « hetsi orduco, medaila ene belhauenen gainean!
 « Ikharatcen naiz orduan. Egiten dut nere bai-

« than, dudaric gabe, Birjina Sainduac ez duela
« nahi Aita Sainduac benedicatu medaila bat
« utci gure sainduekin, ez ditezkeiela naski Eliza
« catolicoa eta Rusianoen sinheste chizmaticoa
« elgarrekin nahas.

« Hirugarren aldicotz egiten dut beraz artha-
« rekin gauza bera. Bainan hirugarren aldian
« ere, akhabatu orduco, medaila ene belhaunen
« gainean cen!

« Harranturic gelditu nincen. Eta concienciac
« arrangura egiten zautan ez nindakelacotz men-
« tura catolico izaitera. »

Horra cer condatu zautan andre gaicho harrec.
Egin abalac egin nituen conberti-araci nahiz.
— « Beldur naiz emperadorearen eta haren men-
decuen, » cioen. Hil cen chizmatico, handic
zortci hamar hilabeteren buruan.

Behar da beraz Eliza maitatu. Eta ez da aski
maitatcea, behar zaio obeditu. Behar zaiote obe-
ditu haren manamenduei, eta hartaco ere behar
da bihotz eta enraie.

Hameca urthetaco muttico bat preparatcen ari
cen lehen comunierat. Aitcincoac cituen, ez
bada inpioac, bainan lazoac; othoitcie ez egiten,
igandeac ez begiratcen, mahe egunac ez atchi-
kitcen...

Haurrac, ikhasiric catichiman giristino guciec
behar diotela, dispensaz caupo, Elizaren legei

obeditu, hartzen du chedea behinere eginbide horri ez huts egiteco. Ondoco ortciralean, eteen mahainean, bethi bezala, jaki gicenic baicen. Escaintzen diotenean, erraiten du ezteki ez duela nahí. « Eri haiza? galdegiten dio amac. — Ez, ama. — Ehaiza gosc? — Bai, ama. — Etzauca on hori? — Bai, ama. — Orduan, certaco ez due jaten? — Debecatua delacotz. — Nola, debecatua? — Bai, ama. Eguu ortciralea da, eta ortciraletan, eri ez bada, mehe egin behar da. Elizac manatzen du. » Aita khechatzen da : « Cer deasac? jan ezac ukhana, edo bertcenaz habil oherat, jan gabe. » Haurra chutitzen da, eta badoha ezti ezti, hitcic erran gabe.

« Bizkitartean ama urricaltzen zaio, eta ichilic juaiten dio cerbeit jateco, gaizkitzen duelaric amultsuki certaco hola thematzen den. — « Ez, ama, erraiten dio haurrac, ez diot desobeditu nahi aitari, ez dut themaz utci gicena, bainan debecatua delacotz. Aitac manatu dau jan gabe oherat joaita, hori egin dezaket Eliza desobeditu gabe. » Eta ama gaichoaren bihotz onari eskerrac emanic, besarcatu zuen.

Ama hunkitua, badoha, nigarra begian, senharrari oroen condatcera. Aitac ere miresten du haurraren curaiea eta contciencia. « Haur horrec guc baino gehiago balio du! » Badoha berehala semearen gana, besarcaczen du, eta hitz-

emaiten dio handi harat mehe egin. u. Lutela.
Eta hitza atchiki zuen.

Lehen comunionecko eguncan, haur dohatsu
harrec bere aita amac, conbertituac, bere aldean
cituen mahain sainduan.

Othoitz egin dezagun Elizarentzat; eta galda
dezogun Birjina Sainduari bethi giristino leial
izaiteco gracia.

HOGOI ETA BIGARREN EGUNA

Birjina Sainduaren heriotzea eta Cerurat altchatce
loriosa

Mendecostez, Izpiritu Saindua errecebitcean,
Birjina Sainduac berrogoi eta zazpi urtheren in-
gurua zuen.

Bici izan cen oraino zonbeit urthez lurrean.
Eliza hasi herriaren laguntceco eta gidatceco,
lehenago Jaincoaren Semea, hurrean, altchatu
eta begiratu zuen bezala. Lehenbicio giristinoac
consolatcen cituen Ama on harrec, eta geroztic
ere bethi Jesu-Cristoren arthaldearen begira-
tzaile hoberena Birjina dohatsua da.

Ez dakigu segur cer adin zuen lur huntaco
desterrua akhabatcean. Erran zahar baten ara-
bera, hiru-hogoi eta hiru urthetan hil cen; ber-
tee batzuen ustez aldiz, hiru-hogoi eta hamabi-

ruetan. Haren heriotzea etcen, gurca bezala, bekhatuaren gaztigua, Maria osoki garbia cen. Bainan Jesus Saindua hil cen bezala gure ga ic eta gure bekhatuentzat, haren Ama garbia hil cen Jesusen gatic eta gure gatic. Jesusen gatic, haren iduricoa izaiteco, bere heriotzea harenarekin juntatceco, bere bicia harenarekin sacrificatceco. Gure gatic, heriotce on eta ezli baten, eta memento lotsagarri hartaco consolacionen guri ardiesteco.

Birjina Sainduaren heriotzea gozoa izan cen haren bicitzea bezala; bici izan ondoan amodioz, hil cen amodioz, Saindutasunic espantagarrienera helduric, haren arimac eztiki utci zuen bere gorputz garbia. Azken amodiozco hatsberapena eman orduco, Aingeruec eramán zuten Jaincoaren gana. Aita cerncoac jar-araci zuen bethiereco lorian; Semeac errecebitu zuen bere Ama bezala; Izpiritu Sainduac graciaren eta amodioaren obra miragarriena bezala.

Jerusalemen cen Birjina Saindua, lurra utci zuenean Parabisurat igaiteco. Oraino martirioa paraitua etzuten Apostolu guciac haren inguruan ciren, salbu san Thomas, Ebanjelioaren predicatcen Indietaco zolan ari cena. Jesusec eman nahi izan cioten contsolacione hori, bai bere Amari, bai bere Apostoluei. Mariac benedicatu cituen beraz azken aldicotz eta contsolatu. Badi-

take Jondoni Petric eman cion Comunione Saindua, bertcenaz egun guciez Jondoni Joaniren escutic errecebitcen zuena. Eta gero, batere erizan gabe, nekheric ez oinhaceric gabe, bere arima, amodioz sustatua, eman zuen Jesusen eta Aingeruen escuetan.

Elizaco Aitec condatcen dute, hil berria aditu-eta, ospeca bildu cirela Jerusalemeco giristinoac bere Ama Sainduaren ganat, eta hanitz miraculu gerthatu cirela haren gorphutz garbiaren inguruan. Asco hil piztu; asco itsu, enbaitu, eta bertce eri suerte sendatu, Jaincoaren Amaren gorphutza hunkitcearekin.

Apostoluec, errespeturekin inguraturic hil mihise churietan, ezarri zuten hobi berri batean, Getsemanin, Jerusalemecic hurbil. Eta, bethi bezala, harri handi batekin hetsi zuten hobia.

Hiru egunen buruan ethorri cen san Tomas Apostolua. Jaincoaren nahiz cen berantegi heldu Mariaren loriaren ager-arazteco, bertce orduz Salbatzailearen piztearen are hobeki segurta-teco baliatu cen bezala. Galdegin zuen nahi zukeiela harrec ere, azken aldico. Jaincoaren Amaren begitarte amultsua ikhusi. Idekitcen dute hobia, harria khenduric. Gauza miragarria! gorphutza ezarri tokian etcen gehiago oihalac baicic, eta ceruticaco usain on eta ezti bat jalgitcen cen hobitic, Jesus bezala, bere Semearen bothe-

rez, Ama ere piztua cen hirugarren egunean, eta Aingeruec eremana zuten ceru gorenerat.

Egun batez, Cristina, Italiaco presuna saindu bati, Salbatzaileac iracutsi cion bere Amaren loriatie cerbeit. Distiraduraz inguratua cen, eta haren beztimenda cen erran ahal ditaken baino aberatsagoa eta argiaren parecoa. Bozcario eta alegrancietan, Aingeruec eta Sainduec ahal cituzten ohoreac eta errespetuac emaiten ciozcaten. Beztimenda distirant hura haren garbitasun bereciaren seinalea cen : bakharric izan baita bada notha gabea, bakharric Birjina eta Ama, bakharric Jaincoaren Ama, Ceru lurren Erregina.

Jesus maitearen graciarekin eta Birjina Sainduaren laguntzarekin, helduco gare gu ere Parabisura. Ikhusico dugu gure Amaren loria; laudatuco eta benedicatuco dugu Aingeruekin eta Sainduekin menderen mendetan.

HOGOI ETA HIRUGARREN EGUNA

Jondoni Joani eta Mariaren haurrac

Apostolu eta dicipulu gucien artean, Salbatzaileac Jondoni Joani hautatu zuen eta egin berac Mariaren haur. — Bici zuen oraino bere ama, ecic Ebanjelioac aiphatcen du Pasionc ai-

tcinean. Bainan handic harat, Jondoni Joaniren Ama berecia, haren arimaren Ama, Maria izan cen, Jesusec emana, erran cionean curutctic : « Horra hire ama. »

Egin ahalac egiten cituen Jondoni Joanic, bere eztitasunaz, amodioaz eta obedientciaz Mariari atsegin egiteco, bere Semeaz gabetua izanez zuen penaren eztitceco. Cer eginbide eder eta gozoa zuen Mariari buruz bethetceco! Cer lehia eta ohoreekin cerbitzaten zuen! Eta nola Ama Saindu haren ahotic jalgitcen ciren solaz ezti eta jaincotiarrec bihotza bozcarioan igeri atchikitcen cioten!

Hiltceco eta cerurat igaiteco tenora artino, Maria Jondoni Joanirekin egotu cen. Eta geroztic ere Apostolu hori Mariaren seme maite eta berecia da. Hortacotz Mariaren baurren aitcindaria da. Mariaren berecikiago cerbitzatceco, ohortceco eta maitatceco, haren congregacione eta confrarioetan sartcen direnen patroina.

Probetchos da Confrario eta Congregacionetan sartcea. Hetaco obra onetan eta othoitcetan phartalier direnec elgar sustatcen eta laguntcen dute, bide galgarrietaric aiseago begiratcen dire, sacramenduetarat bere tenoretan hobekiago jarraikitcen, hitz batez Birjina Saindua, mercedu en bezala, cartsukiago dute ohoratcen.

Gaztedanic bozcario eta amodiorekin san

Franses Salescoac Mariaren alderaco debocionea segitcen zuen. Pariserat ethorri cen bere ichtyrdioen akhabatcecotan. Hara-eta berehala, Andre Dena Mariaren congregacionean sartu cen, eta confrarioan asco cargu ere eman ciozcaten. Cargu hetan, hainbertce ezlitazun laño iracusten zuen, nun bere lagunec biciki maitatcen eta estimatcen baitzuten, eta harren urhatsai jarraitkeco guticia bihotcean sortcen baitelitzaioten. O! Mariaren haur congreganist guciac san Franses gaztearen iduricoac balire! Zonbat Sainduen landareac ginituzkeien. Cer ongi handiac, eta cer berthuteac heda litezken girstinoen artean.

Mariaren egiazco haur izaiteco, behar da Ama amultsu hura abal guciac maitatu. Cer ditake bere ama maite ez duen haur bat? San Estanilasec galdatcen cion Birjina Sainduari benedicionea, lanean hastean, eta othoizten zuen begien aitecinean izan balu bezala. Galdegin cioten egun batez zonbatetaraino maite zuen; huna cer ihardetsi zuen saindu gazteac: « Ene Ama da. Cer erran dezaket gehiago? »

Bigarrenecoric, Mariaren haur batec behar du jakin bere buruaren garraitcen, bere gogoari eta nahiei ukho egiten, Othoitzac eta bertce Jaincoaren alderaco eginbideac bethe gostu dugunean, obedi eta lanean ar, gure gogoraco ma-

nuac direnean; ocasionci ihes egin, haraco guticiaric ez dugunean, nor nahic egin dezake hori. Ez da baitezpada hortaco Mariaren haur izan behar. Bainan bere guticia eta aisien bortchala, bermatuz eta nekhatuz bere eginbidetara heltzea, hura da egiazco merccimendua. Hura deiteen dugu *sacrificioa*; eta *sacrificioa* bethi gostatcen da.

Ger da *sacrificio* baten egitea? cioen aldi batez muttico batec bere amari. — *Sacrificio* bat due, comparacione, osabac atzo eman daucan bortz liberacoa, jostetetan eta onicetan chahutceco orde, Jesusen eta Birjina Sainduaren amorea gatic, haur pobre edo ama familiaco, jatecoric edo beztitcecoric ez duen, batentzat begiratcea. » Haurrac etzuen deus erran, bainan gogoetan zagon.

Biharamuncan heldu zaio lorietan : « Ama, *sacrificio* bat nahi dut egin, nahi diot eman ene bortz liberacoa, juan den egunean ikbusi dugun etche pobre hartaco eritto hari. » — Gero eguerditan, apairuaren akhabantzan, bazterrera! uzten du bere ophil phartea. — « Khaiza gose, haurra? — Gure pobre ttipiarentzat daucat, ama. — Janzac, emanen daiat bertce bat harentzat. — O ez, ama, ez du bardin balio. Ez litake orduan *sacrificioa*, ez litake Jaincoaren eta Birjina Sainduaren gatic jan gabe uztea. » Bozcariozco ni-

garrec bethe ciozcaten begiac amari, eta etzuen segurki gibelatu bere sacrificioaren egitetie.

Eta gero, Mariaren haur batec ez du izan behar arin eta canbiacor. Batzu badire dena su eta khar hastean, eta emeki emeki lazatcen direnac. Hartu othoitzac eta bertce urhats sainduac uzten dituzte. Iraupenic gabeco debocioneac, funts ttipico giristinoac.

Escola batean, muthil gazte batec Birjina Saindua hanitz maitatu ondoan, ahantcia bezala zuen, othoitceco eta bere pratica sainduetaco lehia gucia galdua, nagikeria nausituric. Gau batez amets bat izan zuen. Iduritu citzaion ikhusten zuela Ceruco Erregina jausten bere escolarat, begitartea distirant, eta beztimenda churia eder batekin. Haren lagunen aitecinean iragaitean, bakhotchari emaiten ciozcan satisfacionezco eta amodiozco marcaric amultsuenac. Lariatua, bere aldiaren beha zagon. Bainan horra nun, begiac ere haren ganat itzuli gabe, aldean gaindi iragaiten zaion. Tristatua, oihuz hasten da, certaco ez duen bertceac bezala benedicatcen. Hire lazokeria delacotz, ihardesten dio Jaincoaren Amac. Ez nauc gehiago othoitzten, ez haiz nitaz gehiago orhoitcen, ez nauc maite, ez due Arrosorioa erraiten, ez abitu saindua ibiltcen. Nundic nahi ditue izan ene amodioaren marcac? Iratzartu cen harritua, eta conberlitu berehala.

« Maria maite dutenac, cioen Saindu batec, se-
 « gur da Mariac maitatuco dituela. Ahal dugun
 becenbat eginic ere, ez dugu maitatuco harrec
 gu maite gaituen becenbat. Salbatceco segurta-
 menic hoberenetic bat da Mariaren maitatcea.

HOGOI ETA LAUGARREN EGUNA

Birjina Saindua graclaren eta misericordlaren Ama

Egungo Mariaren laudorioac ez ditzazkegu deusetaric hobeki has, Elizac ardura erraiten duen eta giristinoec hanitz maitatu behar duten othoitz huntaric baino : « *Salve Regina, mater misericordiae*. Othoitz hunkigarria, atsegabetan bihotzez eta ahoz erraitea arras on dena ; bainan bereciki norbeit agonian denean, memento handi hartan, arimaren laguntceco hoberenetic bat.

« Agur, Erregina, misericordiaren Ama, gure
 « bicia, gure bihotzaren gozoa, gure esperantza,
 « agur. Zuri oihuz gaude Ebaren haur dester-
 « ratuac. Zuri gaude hats-berapenez eta auhe-
 « netan, nigarrezco lur huntan. Othoi beraz,
 « zure begi amultsu horiec itzul zaitzu gure ga-
 « nal. Eta Jesus, zure sabeleco fruitu benedica-
 « tua desterru huntaric lec ra iracuts-aguzu.
 « O Birjina Saindu ona, urricalmendutsua, amul-
 « tsua! »

Lurreco amac berac misericordiaz eta urricalmenduz betheac dire. Haurrec badakite amaren bihotza hausten dela aitarena baino lehen. Zonbat fagore eta gracia ama batec edekitcen dion aitari, emaiteco gogoric ez badu ere. — Eta gero, bere bihotz onarekin, cer lanac dabilzan haurren hutsen estaltceco, heien urhats makhurren gordetceco! Eta agertcen direnean, cer othoitzac, eta zonbeit aldiz, nigarrac, barkhamenduairen ardiesteco! Iduri baitu ararteco dabilan ama horrec, bera dela hobenduna.

Eta baldin gure ama maiteac holacoac badiugu, cer erran diteke ceruan dugun misericordiazco Amaz? Biciki bihotz gehiagorekin oraino ararteco baliatcen zaucu Ceruco Aitaren aitcinean. Gure hutsac ez ditzazke gorde, bainan giristino achola gabec Jaincoa hasarra-arazten dutenean beren gaichtakeriez, han da bethi gazti-guaren gibelatceco eta barkhamenduaren ardiesteco.

Errana da bi fraide saindue ikhusi zutela, gau batez, Birjina Saindua, begitartea nigarrez bustia, ahuspez othoitz luce eta cartsu baten egiten gizonentzat. Eta gero, Jaincoaren Amac buruairen gainean zuen bela, iguzkia baino distirantagoa, khendu zuela, eta lurraren gainerat hedatua atchiki bere escu benedicatuez.

Birjina Sainduaren bela hura bethi hedatua

dago Elizaren gainean; hura da gure Amaren urricalmendua eta misericordia. Cern urdina gure burnen gainean ikhusten dugun bezala, hain eder, hain handi, hain ezi, Jaincoac bere Amaren bihotz ona danca hedatua munduaren gainerat, bela handi begiratzaille baten pare.

San Domingo eta san Franses, bat Dominicanoen eta bertzea Francizcanoen aita, Erruman ciren Jondoni Petriren Elizan. Biec denbora berean ikhusi zuten Jesu-Cristo bere tronuan; begilartea hasarri zuen, eta escuan zauzcan hiru lantza lurrerat aurtikitceco. Birjina Sainduac, abuspez haren aitecinean, errekeritcen zuen, urricalmendu izan cezan gizonez, bere odolaz erosi cituenaz geroz. Jesusec ihardesten cion bere Amari: « Ez duzuia ikhusten zoubat laido egi ten dautaten? Ene justiciac ez diro gehiago jasan hainbertce bekhatu, gaztigatu gabe. — Egia da, cioen Ama urricalmendutsuac, bainan badakizu, ene Semea, oro baitazkitzu, misericordia-rekin bakharrie bilduco ditutzula. Baditut bi cerbitzari leial, igorrico ditutzu jenden arterat, predicatuco dute zure hitza orotan, arimac conbertituco dire, eta guciec bilhaturen zaituzte, zu gucien Salbatzailea zarena. Jesusec, Mariaren mintzoac eztituric, galdegia ciotzon bere bi cerbitzariac. Birjina Sainduac eraman ciozcan berehala san Domingo eta san Franses.

Biharamunean bi saindu horiec, behinere elgar ikhusi etzutenece, elgar ezagutu zuten elizan. Geroztic beiec establitu cituz'en bi Ordrec bethi Mariarentzat amodio handia iracutsi dute.

Bainan ama batec zonbat ongi ez dio egiten, haurrac jakin gabe, zonbat aldiz, min hartetic ez du begiratcen, hura ohartu gabe. Gure Ama cerucoac ere zoin ardura hedatcen duen bere escu begiratzailen, ikhusten ez dituguan hiris-cuetarie gure zaintceco!

Franciaren eta Prusiaren arteco azken gerlan 1870^{na}, berari cer gerthatu citzaion condatcen du soldado ondo batec :

« Pariseco aldean ginen, hiria sethiatua celaric. Lurrezco pareta batzu egin nahi ginituen gure tokiaren zaintceco, eta etsaiaren tiroctaric begiratceco. Bainan etsaiac ez ginituen uzten geldiric; tiratzaile hoberenac hantaturic, gordeca ihiztari batzu bezala igortcen cituen; eta gure langiletarie hanitz aurthikitcen zaucuten. Balac heldu, gizonac erortcen, eta tiratzailleric ez ageri. Orduan gure aitecindariac ere ordainez egin nahi izan zuen gauza bera. Tiratzailleric abilenetarie igorri cituen bederazca, ichilic, zokhoz zokho, balaric ez bolborarie alferretan galdu gabe; etsaiaren tiratzaile gordetarie bat ikhusten zutenean, berac agertu gabe, illici bati bezala tira cezoten. Nic ere nere burua eskaini nuen, eta

hartua izan nintzen. « Zoazte, erran zaucun
« aiticindariac, begiac eta beharriac erne. Ez
« ahantz nun nahi zuen inguruetan badituzke-
« tzuela, ohartcen bazaizkitzue, zuentzat urri-
« calmenduric izanen ez dutenac. »

« Beraz, argia baino lehenchago, abiatcen naiz.
Sartcen naiz ur erreca agortu batean, eta banoha
hartan barna, herrestian, belhaunen eta escuen
gainean bermatuz. Chichpa nuen bizcarrean, eta
oficieraren larga-bichta gerrian, bichecotcha bat
sakelan, eta chahacoa cafez bethea. Debecatua
cen pipatcea, chutitcea, dremenden harrabotsic
egitea.

« Gelditcen naiz arbola ondo baten gibelean,
sasi baten itzalean. Baionetarekin c'ho bat egi-
nic, eta lurrez eta hosto eiharrez gerizatto bat,
arrimatcen naiz bazter gucien ikhusteco gisan,
nihoni agerta gabe. Aitcinean nuen, aski lurbil,
landa bat iraul'a, eta landaren erdian iragaiten
cen bide bat, han hemenca hesi plusca batzuec
estaltcen zutena.

« Bazuen oren bat han nindagoela, eta etsitcen
hasia nuen ez puela ihiciric ikhusico, noiz eta
ere iduritcen baitzaut, bide erreca, arbola ba-
ten gibelean, escu bat ager eta gorde dabilana.
Hartcen dut larga-bichta, eta ikhusten dut, al-
dean banu bezala, Aleman soldado bat. Zotz
batekin lurraren khitcikatcen ari cen, Gazte

emaiten zuen, begitarte ezti, eder, eta ile hori batekin. Ezagun cen zobeit laborari seme citekeiela soldado arropa hartan, behar bada memento berean bere etchea eta bere landac gogoan cituena. Pena nuen, bainan nere eginbidea nuen erbi bat bezala hiltcea. Preparatcen naiz beraz: hartcen dut chichpa, belhauna lurrean ezarriric giñatcen dut; nahi nuen bulharretan erdiz erdi hatceman, sofri-araci gabe hiltceco. — Bainan tiratcera nindohalaric, altchatcen du burua, behatcen du inguruan alderdi gucietarat; eta deus ez ikhusiric, jalgitcen du larruzco zacuchea batetaric arrosorio pare bat, ceinatcen da eta hasten belhaunico othoitcean. Chuchen nuen ene chichparen puntan, geldi geldia, eta begiac cerurat itzuliac..... Cer gerthatu cen orduan ene baitan? Ez dakit; bainan ene giristino odol gucia igitu cen ene zainetan. Iduritcen zautan ikhusuten nuela soldadoaren othoizta cerurat igaiten, eta Jaincoaren beso begiratzailea haren gainerat hedatcen..... Chichpa pausatu nuen.

«Dudaric gabe, soldado Alemana itzuli da herriat, eta seculan ez du jakinen, bere othoiztaren gatic, bicia begiratu dioela Birjina Mariac.

«Gibelera:cean bi bala iragan eiren chichtuz ene aldean, bainan ui hunkitu gabe; gizon haren othoiztac zaintcen nindukeien.

« Bizkitartean ondoco gauean, contcientciac

arrangura egiten zautan, ez nuela dretchoric eno herriaren etsaiari hola barkhatceco. Biharamu-
nean gudu bat izan ginuen; eta hartan ez nin-
teen geldiric egon, bezperaco eguna erreparatu
nuen. Colpatua, odoletan eraman ninduten arra-
tsean, eta medaila irabaci nuen. »

Mariaren misericordiac begira ditzala gure
arima eta gure gorputza ageri diren eta ageri
ez diren lanjer gucietaric.

HOGOI ETA BORTZGARREN EGUNA

Nola behar don Mariaren laguntza galdegin behar
orduetan

Jadanic ikhusi dugu amari dagola haurren
lanjeretaric begiratcea eta lanjeretan direnean,
handic atheratcea. Ikhusi dugu ere nola Birjina
Sainduac eginbide hori Jesusen alderat bethe
zuen, bai Betelemen, bai Ejipton, bai Nazareten.
Orai gu garenaz geroz, Jesusen orde, haren haur-
rac, bathaioac eginac, Maria gure Amari dago
gure laguntcea hertstura gaichtoetan.

Erraiten dugu ardura gure osagarria eta gure
bicia phiru batec dauzcala, hain guti aski dela
cotz baten ala bertcearen galtceco. Arimaren
bicia ez da gutiago minbera eta galcor.

Jadanic erran dugu Mariac bi bici horiec, ari-
marena eta gorputzarena, begiratcen daizcula,

ascotan gu ohartu gabe, eta behar bada orobat miraculuac eginez.

Egun oraino etzaucu sobera gisa hortaco zonbeit gauza espantagarriren aiphatcea, Mariaren ganaco gure confidantziaren eta amodioaren emendatceco.

1855^{mo}, Aphiirilaren 12^{an}, Pio IX, Aita saindua, ceremonia bat eginic santa Aiñesen elizaa, Erumaco murruetaric canpo, harren aldeco comentuan cen, goiti igana, barne handi batetara. Han ciren, Aita Sainduarekin cardinaleac, hanitz aphez, eta Propagandaco colejioco aiteindariac, eta ehun eta berrogoi eta hamar escolier.

Dudaric gabe ernaiac zubirinduac ciren; betbetan aditcen da ikharagarrico carrasca, eta tronadura erditic egiten da buruen buru. Ichil eta hatsic hartu gabe daudelaric oro, oihu bat bakharric entzuten da, Aita Sainduarena, dioela : « O Maria bekhatuic gabe concebitua ! » Memento berean Aita Sainduaren tronua macurtcen da aiteinerat, eta guciac erortcen dira eta suntsitcen erhautsezco lanho batean.....

Iduri zukeien oro galduac citezkela, Aita Saindua hila citekeila, guciac mescaratuac..... Paterc; ichtant baten buruan, Aita Saindua chutitcen da, deusic ez du, ez colpe bat, ez carramitcha bat; soinecoac berac ez ditu urratuac. Escuan dauca bere tabakiera, Birjina garbiaren

potreta gainean duena. Eskerrac diotzo Mariari; eta ikhusten ditu erhauts-petic jalgitcen batzu berteen ondotic, batere min hartuac izan gabe, Cardinale Bicarioa, bere sotana eta capa gorria choilki urratuac; cardinale Antonelli, zur bati lothuric dilingan gelditua; bertee cardinale guciac, aphezac, Propagandaco escolierac. Batere eteen zaurthuric. Bakharric bi escolierec, leihotic jauci eginic, min hartu zuten maha's phachet batzutan. Iduri zukeien bada halaco estropu ikharagarrian, hainbertee jenderen azpian tronadura bat lehertcearekin, hanitcec behar zuketela min hartu, eta zobeitec hil ere.

Aita Sainduac othoiztu zuen Birjina garbiac, lanjerean begiraturic, utci cion bere laguntzaren seinale eta orhoitzapen bat. Errau dugu Aita Sainduac bere tabakiera, Mariaren potretarekilaoca, escuetan zaucala. Potreta estaltcen zuen berinac choilki izan zuen cascatto bat, Mariaren buruaren gainean; eta handia dena! buruaren inguruan cituen, hamabi izarren gainean gaindi chuchen egin ciren, hamabi arrailadura ttipitto berinan, izar heien argi distirantac izan balire bezala. Geroztic Pio IX^o artharekin eta deboki begiratcen zuen Mariaren laguntzaren orhoitzapen hura.

Orai duela zobeit denbora hil da Erruman aphez saindu bat, don Piaggio deitcen cena. Pre-

dicatcen ibilia cen lucez bertce misionest cartsu batekin, Gaspard del Bufalo, bere superiorarekin, Don Piaggioc gauzaric espantagarrienac condatcen cituen, haren Superioac, Mariaren alderaco confidentciaren bidez, ardietsi fagoren gainean.

« Egun batez misione baten hasiera giuohacin herri batetara, cion aplez horrec. Hara gabe, aditcen ditugu, bide bazterrean, oihu samin batzu, eta ikhusten dugu jende multzo bat bildua. Hurbiltcen gare. Ciphu baten aldean, emazte bat deboilatua, marrascas lurrean ibauzteca zabilan. Escuetaric utci zuen bere haur ttipia ciphurat erortcera, eta ciphua barna cen. Haurra galdua zaucan beraz.

« Ene superiora, Gaspard del Bufalo, badoba ciphuaren ondora, eta ni ere jarraitcen nitzaioc: « Izan dezagun confidentcia Maria baithan, » dio gizon sainduac, mintzo ezti eta serios batekin. Eta belhaunicaturic erraiten du gora *Agur Maria*. Ama ichildu cen, oro belhaunico ciren. Othoitza eginic, Del Bufalo chutitcen da, eta begitarte maiestatedun batekin erraiten daut: « Ene anaia, lacha zazu zure gerricoa, eta atchikiz jauts azu ciphurat. Obeditcen diot, eta berehala senditcen dut gerricoaren buruan carga bat. » Orai julgi « zazu haurra eta eman bere amari. » Haur ttipia heldu da canporat, gerricoti dilingan. Ama,

bozcarioac choratua bezala, ahuspez musuca ari cen Del Bufaloren oineri. Gizon saindu harrec han ciren jendei adi-araci cioten cer confidentia osoa behar duten giristinoec izan Jaincoaren Amaren baithan. Orduan ciphuti jalgi haur ttipi hura duela zonbeit denbora bici cen; baditake ez den oraino hila. »

Huna nola condatcen zuen don Piaggioc bertee gauza bat, espantagarriagoa, berari gerthatua :

« Eazuen bortz edo sei egun misione handi baten predicatcen ari ginela hiri batean. Goiz batez, othoitcean nindagolaric, Del Bufalo heldu zaut letra bat escuan. Ene familiaren ganic cen letra. Gaztiatcen cioten superiorari ene ama hiltcera zobala, eta guticia handia zuela ene ikhusteco. — « Cer egin behar dut, galdegiten diot, ez de-
« zaket misionea hasia utz ? » Ihardesten daut :
« Othoitz egin dezogun Birjina Sainduari. » Eta belhannicatcen da ene aldean. 'chtant bateo buruan chutiteen da, diolaric : « Eman dezagun
« aitecina gure misionea. »

« Nahiz obedientcia laketzautan, e a confidentia handia nuen Mariaren eta haren cerbitzariaren baithan, ene bibotza ilhun cen. Misioneco ene eginbideac ahal becen ongi bethetcen nituen, bainan ez nincen hargatic baratcen amarentzat othoitz egitetie.

« Zortci lecua ciren ene amaren etchotic eta gu

ginen lekhura; eta bideac gaichtoac ciren. Egun guciez berrien aiduru nindagon, eta etcen deus ageri. Ez nakien cer asma.

« Sei egunen buruan bakbarric, orduan ere othoitcean nindagolaric, sartcen da Del Bufalo, begitartea alegeraric, eta irri ezti batekin emaiten daut berriz ere letra bat, diolaric : « Ikhus-
 « azu, ene anaia maitea, ez denetz zucen Maria
 « baithan confidentcia izaitca. » Hartcen dut letra. Ene anaia baten ganic cen, eta hupa cer igortcen cion ene Superiorari : « Ene Aita, es-
 « kerrac deraitzugu ceren nahi izan zaren gabetu
 « gure anaia don Piaggioz, guri igortceco. Aski
 « goiz ethorri zucen. Gure amac izan du zoriona
 « haren ikhusteco, eta haren besoetan eman du
 « asken hatsa. Guciac edificatu ditu hemen.
 « Orai oro akhabo direnaz geroz, lehen bai le-
 « hen gibelarat bidaltcen dautzugu. » Ez nuen
 dens comprenitcen, iracurtcen dut letra behin,
 bietan. Eta bizkitartean nahi becen ecin sinhe-
 tsia izanic ere, etcitekeien izan enganioric. Ene
 Superior sainduac othoizturic, Pirjina Sainduac
 dudaric gabe bidali zukeien ene Aingeru begi-
 ralca, ene orde, ene ama hil harranaren gana,
 Cer gracia harrantzat, eta cer consolamendua
 enetzat! »

Izan dezagun confidentcia bera. Andre Dena Mariac ez gaitu lagunduco behar bada miracu-

luckin, bainan izanen da guretzat Ama on bat. Emanen daizcu pacientcia, fede bici baten argiac, arimaco indarrac eta oroz gainetic Jesu Cristo-rentzat amodio handi bat.

HOGOI ETA SEIGARREN EGUNA

Consolatrix afflictorum, Salus infirmorum

Arrazoinekin deithua dela Birjina Saindua nahi-gabetan direnen solegizailea eta erien osagarria.

Norc erran dezake zombat liburu egin litezkeien bildu nahi balire, edo hobeki erraiteco, biltzen ahal balire Maria guciz botheretsuaren arartecotasunac ardietsi sendatce guciac. Ama maite horren elicetan ikhusten ditugu murrnac estaliac, giristinoec, ardietsi gracientzat, beren eskerren agerian seinalatceco, emaiten dituzten orhoitzapenez.

Ezagutu dut Parisen escolier prestu bat, hama-sei urthetan eritasun handi batetarie betbetan sendatua izan cema, Andre Dena Maria Bitorie-tacoari egin botu baten ondotic. Aita, gizon zuen bat, juje zuen; ama emazte saindu bat cen, mendiac altcha ditzakeien fede bici batekin. Beren semea eritu citzaioten Aphirilaren 21^{ean} 1863^{an}; eta laster charkitu. Medicuac causitu ciozcan bulharrac lanjeroski hartuac. Zonbeit oreuen

buruan, ethorri cen berriz bertce medicu bat biciki famatua, baiuan osoki sinheste gabea. Aithortu cioten aita amei clarki, eriac etzuela escapuric, eta denbora gutiric barnean harenac egina zuela. Arratseco hamecac eta erdiac ciren.

Ama gaichoa, abantzu burna galdua, chutitcenda belbetan, eta belhaunicatcen gelaren erdian, diolaric : « O Birjina Saindua, Bitorietaco Andre Dena Maria, ni baino gehiago ene haurraren Ama zare, emaiten baitautzut. Behar dautazu sendatu. Bihar goicean, medicuac sendatua causitcen badu, eta jaikitcen ahal bada, botu egiten dut emanen dutala cerbeit baliosic zure elizarentzat. » Hitz horiec aditcean, senharrac erraiten dio : « Sobera galdatcen duzu, galdegizu zure semearen bicitcea, ongi dohatsuac izanen gare ardiesten badugu. » Bainan emazte gaichoac berriz ere cion : « Ez ez; nahi dut Birjina Sainduac berehala senda dezadan. »

Ichtant baten buruan eria, arraz ttipitua cena, lokhartu cen. Eta hatsa biciki khechu zuena, ez-titu citzaion. Gauerdi cen. Lo egon cen goiceco sei zazpi orenac artino. Familian ibiltcen zuten medicua, Parisetic campo cena haurra eritu cenean, itzulia cen etcherat gau hartan. Heldu da beraz, mezua izan becen laster. Eriaren gana denean, hartcen dio pholtsua. Escuan atchikiric ichtant bat, erraiten du : « Bainan haur hunec ez

du sukharri. » Gero miatzen diozca bulharrac, escuina, eskerra, gainean, beherean, aiticinetic gibeletic. « Bainan ez du deus bulharretan, haur hau ez da eri; cer cioten char cela? » Hitz horiec aditcean, aita nigarrez hasten da, ez aiticineco gauan bezala, etsimenduzco nigarrekin, bainan bozcariozco nigarrekin. Ama belhaunicatzen da, eta escuac juntaturic, ikhara batekin dio: « Er-raiten nautzun. » Medicuac aiticina: « Muthico horrec jaten abal du, hascaritceco, haragi zathi bat, eta juaiten abal da bihar escolarat. »

Egun hartan berean familia gucia izan cen Andre Dena Maria Bitorietacoari ahuspez eskerren emaiten.

Zonbeit egunen buruan, medicu sinheste gabeari condatu cioten cer gerthatu cen. Bainan soñac uzcurtu cituen, ciolaric: « Gisa hortaco gaitzac ez dire hola khentzen. » Nahi izan zuen berac escolier gaztea ikhusi. Harritu cen, eta deus erran gabe, juan cen, ezpainekin cerbait murmuricateen zuela.

Egun hetan beretan, Parisen oraino, bertce sendatce miragarri bat gerthatu cen ene ezagun batzutan. Boriz hilabetetaco haur bat, bi medicu abilec etsitua, hiltcera zohan. Lau egun hetan etcezakeien bulharric har. Amachoren altzoan zagon, bere aho ttipia chabaldua, eta beltch beltcha egina.

Eguerditan medicua juan cen, erranic bi ore-
netaco akhabo izanen cela. Amachori heldu zaio
burura behar duela botu bat egin. Bertee barn
batean cen ama; hari ere denbora berean gauza
bera ethortcen zaio gogora. Biec beraz, cartsuki
belhaunicaturic, haur gaichoa Jaincoaren Amari
consecratcen diote. Chutitu direia bai, ikhusten
dute haurra beren escuetan, arroga becen fresco,
espainac eta ahoa garbi eta gorri, gaitzaren idu-
riric ere gehiago gabe. Deitcen dute amañoa.
Liste du behin hartaz trufatu nahi direla. Hur-
biltcen da emeki, behatcen dio haurrari, hunki-
tzen du, eta gero izituric, beldurrez bertee mun-
dutic helduden, badoha oihuca. Lanac izan ci-
tuzten berriz haren ganat biltzen. Haurragotic
lothu cen bulharrari. Bi orenetan ethortcen da
medicua; iracusten diote haurra pliztua; nigar-
rez hasi cen, cioclaric : « Jaincoaren escua!
Jaincoaren escua da hor! »

Behar dugu huntan gelditu. Rainan noiz bada
fededunec hartuco dute gogoan eta ezarrico bi-
hotcean, Birjina Sainduaren litanietan erraiten
diren hitz hauc : « Nahi-gabetan direnen solegi-
« zailea; erien osagarria, » egiaric handienac eta
baliosenac direla? Beraz gisa gucietaco nahi-
gabetan eta gorphutceco oinbacetan, orhoit Ma-
riaz, othoitz egin Mariari, hitz-eman cerbeit, eta

gero hitza atchic leialki, eta ez ahantz eskerren emaita.

Consolatrix afflictorum, Salus infirmorum, ora pro nobis.

HOGOI ETA ZAZPIGARREN EGUNA

Refugium peccatorum

Birjina Saindua bekhatorosen iheslekhua dela

Balín badu hainbertce urricalmendu Birjina Sainduac gure gorphutzaren gaitcentzat, gehiago du oraino gure arimacoentzat, gure arimac biciki gure gorphutzac baino gehiago maite baititu. Ama amultsu haren escuetaric badariote Jesu-Cristoren graciec eta jausten dire gure arimetara ceruco izar-ihitz balios bat bezala. Memento gucietaoac dire haren laguntzac, eta nabiz gordeac diren, eta ez diren ezagun miraculu espantagarri batzu bezala, bardin segurac eta egiazcoac dire.

Birjina Sainduac, hobenic ez duelacotz, osoki saindua delacotz, mercei du bere Semeac entzun dezan. Ardiesten du bekhatoros hobenduen-tzat, heiec secular mercei ahal ez lezaketen barkhamendua. Santa Gertrudac aditu zuen behin Salbatzailea erraiten bere Amari : « Ene Ama, badakizu, bekhatorosez orhoitcen banaiz, zure gatic egiten naicela. »

Eta ceruac erraiten duen gauza bera dio Ifernuac ere.

San Domingoe gora aithor-araci cion debruari Jesusen Amac duen indar ocin gaihenduzcoa bekhatorosen conbertitceco. Misione handi baten ondotic, jende ospe baten aiticinean egin zuen Satanec here aithorra. « Birjina Saindua ene etsai handia da. Hura ez balitz, jadanic aspaldi Fliza garraitua izanen duen. Egun guciez edekitcen daukit, ene nstex, neureac danzcadan arimac. Artharekin othoitz egiten diotenetarie bat ez da galdua. »

Eta bizkitartean gizona libro delacotz, Birjina Sainduac ez du bortchatcen conbertitcera. Hortacotz ere sobera maiz ikhusten ditugu, Mariari gomendatcen ditugun bekhatorosac lucez eta berant artino ez conbertitcen. Zonbeitec ihardokitcen diote abantzu azken hatseraino. Ez da beraz behar lotsatu, ez othoitcetie gelditu. Nihoren conbersioneaz ez behinere etsi; Birjina Sainduarekin baditake bethi lot-bide hat.

Hemen oraino ez litezke aski zonbeit lerro. Liburu handiac eta hanitz behar litezke Birjina Saindu amultsu horren urricalmenduzco obren condatceco.

Ez duela biciki denbora, haccen gizon dohacabe bat, gaizkian mailca mailca zolaraino jautsiric, galduac cituena guciac, ohorea, fama,

ontasunac, osagarria, familia. Etzuen gehiago federic ere, bederen bere ustez. Ohartu gabe, berac ez dakiela nola, sartcen da Andre Dena Maria Bitoretacoaren elizan. Lotsamenduzco eta colerazco sendimendu khirets batzu bihotcean, trufazco irri trichte bat ezpainetan, beha gelditcen zaio aiticnean duen Mariaren potretari.... Eta bere gisaco othoitz hau jalgitcen da haren ahotic : « Deus egiten ahal baduzu, lagnu nezazu ! » Betbetan barnea asaldata, belhaunicatcen da... Haren bihotz gogor eta gaichtoa conbertitua cen. Sacramenduec garbituric eta azcarturic, giristino on bilhacatu cen; eta bere aferaguciei ere buru egin ahal izan zuen.

Huna bertce conbersione bat eliza berean gerthatua, eta ez gutiago espantagarria. Saboiaco aphez-gai bati bere bocacionea utz-araci cion bere ahaide batec, diruaren eta negocioaren gostua eta guticia emanic. Etchecoec eta semenarioco aiticndariec alferretan ahalac oro egin cituzten zorokeria hartaric harren gibelatceco. Pariserat ethorri cen, eta comercioan hasi. Diru hanitz ere irabaci zuen. Bainan lagan gaichtoec bide onetic ceihar-araciric, iracurtu cauen liburu zarrac eta gaceta zarrac, lekhu galgarrietan ibili cen; zonbeit hilabeteren buruco, galdua cen osoki. Jaincoa ahantci zuen, othoitzac oro utci, salbu Mariaren othoitz hau : *Orhoit zaite usaiac*

erraiten zuena, hitz-eman ciolacotz bere seminarioco aitcindariari, canporacoan.

Hiru edo lau urthez aisian bici izan cen, bainan zarki. Orduan tokia galdu zuen, eta emeki emeki arras errumes bilhacatu cen. Hain ecinbertce lotsagarriratu cen, nun chedea hartu baitzuen bere buruaren funditceco. Badoha beraz ur handiari buraz, eta hautatcen du lekhu gordetto bat. Bainan, gauza bitchia! lehenic belhaunicatcen da, *Orhoit zaitte*, bere usaiaco othoitzaren erraitceco. Eta gero chutituric, bi urhats gibelerat egiten dituelaric, boltaren hartceco, aditcen ditu, oraino ohartu etcen untei batetlaric oilu hauc : « Casu ! casu ! » Gelditcen da, untcia bichtatic juan aiduru. Bainan arte hartan fedezco orhoitzapenac eta barneco arrangura bat pizten dire haren baihan. Itzultcen da gibelerat, badoha carricaz carrica, airerat eta chederic gabe. Helteen da ezagutcen ez duen eliza baten aitcinera, eta sartcen da. Lorez eta cirigo piztuez aphaindua cen aldare baten inguruan hauitz jende othoitcean zauden.

Aldaretic hurbil ikhusten du aphez adineco bat, confesatcen ari dena. Igurikitcen du oro iragan artino, eta gero badoha hura ere, bertcen ondotic, aphezaren gana. Berac etzakicla, Andre Dena Maria Bitorietacoaren elizan cen, eta murde Desgenettes, hango erreter errespetagarriaren

oinetan. Etcen confesatu, bainan bere bihotz lotsatuaren solegitceco, condatu cion bere ichtoria. Akhabatu duenean, aditcen ditu hitz hauc aphez saindu eta ezti haren abotic : « Eta orai badut, nic ere, cerbeit zuri erraiteco. Duela zoubait hilabete, Saboiaco aphezpicu bat eliza huntan predicatcen ari cen. Aipatu cioten bere aditzalei, heien othoitzei gomendatcen ciotelaric, gizon gazte bat, bere haurra bezala maitatu zuena, semenarioan haren aiticindari celaric, galdu zuena, bainan ahantz etcezakeiena. « Hemen da, cioen Aphezpicuac, hemen da Parisen; « ondotic nabilaio, eta gordetcen zaut. Bainan « Ama Birjinac ezagutcen du, badaki nun den. « Othoitze egin dezagun itzul-araz dezan Jaincoaren ganat. » — Hanitz othoitze egin dugu, errancion oraino aphezac. — Bada Aphezpicu hura zure aiticindari ohia cen, zure aita, zure adichkidea; eta haur galdu hura, zu zare. »

Gizon gaztea, begitarte bere escuetan gorderic, nigarrez hasi cen, eta gero confesatu. Conbertituric juan cen bere aita amei, bere aiticindari ohiei, Aphezpicu saindu hari barkhamendu escatcera. Oroen baimenarekin comentu batean sarthu cen.

Birjina Saindu amultsua, bekhatorosen iheslekhua, othoitze egizu guretzat; ardiets-aguzu Jesusen ganic haren amodioan bicitceco eta hil-

tecco gracia. Othoitz egizu gu bekhatorosentzat, orai eta heriotceco oruean.

HOGOI ETA ZORTCIGARREN EGUNA

Andre Dena Mariaren agertce urricalmenduzcoa
Saletan

1846^{ean}, Buruilaren 19^{an}, bi haurtto zauden, abere zain Saletaco mendian, Grenobleco diosesan. Bat muthicoa, Maccimin deitcen cen, hameca urthe cituen; bertcea hamalau urthetaco nechca bat cen, Melania zuen icena. Larunbata cen egun hura, Andre Dena Maria zazpi Doloretacoaren bezpera. Bi haurrac, beren jatecoarekin mendirat ethecoec igorriac, han elgarretaratuac ciren. Eguerditan, urrunera *Angelusa* adituric, jarri ciren beren apairnttoaren egiteco, orduan agortua cen ithurri baten aldean. Eta gero, bat hunatchago, bertcea haratchago, biac lokhartu ciren.

Melania iratzartu cen lehenic, eta Maccimin deithu zuen. Abereac bichtan ez ikhusiric, abiatu ciren heien ondotic, beren jateco pochia-
ren chacuac ithurri bazterrean utciric. Urrun
juan gabe, aurkhitu cituzten abereac. Gibelerat
heldu circlaric beren chacuen hartceco, bethe-
tan Melaniac ikhusi zuen ithurriaren ondoan
iguzkiaren pareco argi distirant bat : « Haugi,

Maccimin, haugi laster, oihu egin cion lagunari; ikhus-ac argi hura, hantchet. » — « Nun da? » galdegin cion Maccimin ttipiac, lasterca heldu ceciaric. Melaniac iracutsi cion erhiarekin ithurricoa aldea.

« Ordnan argi hura urratu bezala cen, diote haur heiec, eta erdian ikhusi ginuen Andre bat, harri baten gainean jarria, zangoac ithurricoa erreca agortuan. Han zagon burua escuetan, eta ukhondoac belhaunen gainean. Iduri zuen tricheteria handian citekeiela. Escuac khendu citueñean, begitartea nigarrez bustia ikhusi ginion; bainan nigar chortac distirantac ciren, eta lurrrerat erori gabe, suntsitcen ciren su pindarrac bezala. »

Andrearen begitarteco argiac lilluratcen cituen haur heien begiac. Macciminec etciozoken beha, Melaniac behatcen cion, bainan nekez. Soineco guciac cituen churiac, izar, arrosa, eta urhe edergailuekin. Gathe distirant bat, hiru erbi trebes zabal lephotic, eta bartaric dilingan, bertce gathetto ttipiaco batekin, urhezco curutcefica bat, eta curutcearen escuin ezkerretan, martailu bat eta trukesac.

Ikhusgarri horrec haurrac icitu cituen. Melaniac utci zuen makhila lurrrerat, ciolaric: « Ai Jaincoa! » — « Atchican hire makhila, erran cion Macciminec, nic atchikiten dinac nereca. Deus

egiten badauco, emanen cionat ukhaldi bat onna. »

Andrea chutitu cen, eta besoac uztarturic, mintzo ezti batekin erran cioten : « Ez beldurric izan, ene haurrac. Zatozte, badut berri handi bat zueri erraiteco. » Hurbiltcen dire beraz bi abere zaintzaile ttipittoac, eta gelditcen dire haren aitcinean, bat bertcearen aldean.

Misericordiazco Ama bethi nigarrez zagon; erran cioten haurrei :

« Ene populuac ez badu conbertitu nahi, ene Semearen besoa erortcera utci beharco dut. Hain pisua da nun ez baitirot gehiago atchic; badu hainbertce denbora zuentzat jasaiten dutala!

« Eman deraizkitzuet sei egun laneco; zazpi-garrena nerelzat naucan, eta ez dautazue eman nahi! — Abere-orgekin dabilzanec bethi ene Semearen icena juramentu eta blasfemiocin dabilcate. — Bi gauza horiec ene Semearen besoa hainbertce pisutcen dute! Lurreco fruituac galteen badire, ciharec dukezue hoben. »

Gero Birjina Sainduac ezagut-araci cioten cer cigorradae Jaincoac igorrico cituen gizonen gainerat, bereciki blasfemioen eta igandearen ez-atchikitcearen, gaztigatceco.

Eman cioten oraino bakhotchari secretu bat. Nabiz gora mintzo cen, Melaniac etzuen aditcen Maccimini cer erraiten cion, ez Macciminec cer

erraiten cion Melaniari. Ikhusten cituzten choilki haren espainac ibiltcen.

Bi secretuac, Grenobleco aphezpicnaren manuz izcribaturic, nihori salhatu gabe, igorri ciozcaten Aita Sainduari. Pio IX^o *re. pap.*, iracurtu-eta, oihu egin zuen : « Gaicho Francia ! » Bi secretu hec daucate cirela bat Franciaz eta bertcea Errumaz mintzo. Gaztiguac eta cigorradac agintcen cituzten, mundua ez bacen conbertitcen.

Francia gaxtigatua izan da, bainan ez da oraino conbertitu, cer othe dauca ondotic Jaincoaren justiciac ?

Birjina Sainduac galdegin cioten gero : « Egiten duzue ongi othoitza, ene haurrac ? — Ez, Andre, ez soberaric, » ihardetsi cion lañoki Macciminec. — Ene haurrac, ongi egin behar da bethi othoitza, goicean eta arratsean. Ez baduzue aicinaric, errazue *Gure Aita* eta *Agur Maria*; eta aicina duzucenean gohiago. »

Birjina Saindua mintzatu citzaioten gero hainbertce giristinoec duten achola ttipiaz igandearentzat, meza sainduarentzat, mebe eta barur egumentzat. Eta akhabatcean, begitarte scrios batekin erran cioten : « Ene haurrac, eramanen diozue berri hori ene populuari. » Bietan eman cioten manu bera.

Zonbeit urhats aicina abiatu cen gero. Lerian bezala zohan, belharric ere zaphatu gabe. Haur-

rac jarraiki zaizcon gibeletic. Ordnan lurretic hiru piaren heina airaturic, gelditu cen aphiur bat. Behatu zuen behin cerurat, eta berriz begiac lurrerat itzuli cituen : « Gero, cioten haurrec, ez ginuen gebiago bururic ikhusi, gero ez besoric, gero ez zangoric. Urthu cen airean. » Maccimin ttipiac laster egin zuen nahiz escuarekin hatceman. Melaniac erran cion : « Ez dic bere burua ikhustera utci nahi, jakin ez dezagun norat dohan. Sainda handi bat izan behar duc. » —«Jakin izan baginu Sainda handi bat cela, ihardetsicion Macciminec, erranen ginionan eraman ginitzan berekin. » Eta biac, bihotzac alegeraric, elgarrekin erabiltcen cituztela ikhusi cituztenac, juan ciren aberen zaintcera.

Horra Saletaco Andre Dena Mariaren agertce famatua. Jakina izan cen laster Francian eta mundu gucian. Eliza eder bat egin zuten, Birjina Saindua, haurrac utciric, cerurat igan cen tokian. Gracia handiac, sendatce espantagarriac ardietsiz, beilariec bazter gucietaric ikhasi zuten Saletaraco bidea. Ithurri agortu hura, ordu artino zombeit aldiz baicic uric etzuena, hasi cen gebiago gelditu gabe, bethi emaiten, eta miraculu salbagarrienen egiten. Herri hura hanitz canbiatu cen, bereciki igandearen, juramentuen, eta Elizaren manamenduen gainean.

Mirets ditzagun, guc ere, bekhatorosentzat

Birjina Sainduac egiten dituen nigarrac. Conberti-araci nahi lituzke, ez ditu mehatchatcen salbatceco baicen.

Ikhusten ditugu mehatchu horien ondorioac gure onthasunetan eta bazterretan. Gaztigu horien urrun-arazteco gure ganic conberti gaitecen, eta has gaitecen baxhotcha gure ganic.

Har dezagun chede azcar bat behinere igande phestetan ez lanean artececo, ez ar-arazteco; meza eta bertce elizaco officioetan eta predicuetan ibiltceco, eta han deboki egoiteco; juramenturic, eta bereciki blasfemioric Jaincoaren Icen sainduarekin ez egiteco. Gehiago dena, bidetan, landetan, placetan, nun nahi Jaincoaren Icen saindua gaizki erabiltcen aditcen dugunean, pena har dezagun. Eta bekhatu latzgarri horren erreparatceco, berehala bihotcean bederen, eta ahal bada ahoz ere, erran ditzagun hitz hauc : « Jaincoaren Icen saindua izan bedi benedicatua! » Edo : « Jauna, ibil bedi sainduki zure Icen! »

HOGOI ETA BEDERATCIGARREN EGUNA

Nola Birjina Sainduac debruac icitcen dituen

Aingeruec eta Sainduec maite dute Birjina Saindua beren Nausi, Errege, Salbatzailearen Ama dutelacotz. Debruec eta damnatuec hastio

dute Jesu-Cristo, eta Hura becen hastio dute haren Ama, Harekin hain bat delacotz.

Jesu-Cristoc garraitu ditu Satan eta haren debruac, zuten da beraz beldur izan dituen Jesusentzat eta Jesusekilaco gucientzat. Hortacotz debruac icitcen dituzte Aingeruec eta Sainduec; icitcen ditu Elizac, icitcen dituzte aphecec, gauza sainduec, ur benedicatuac, curutcearen seinaleac. Bainan oroz gainetic Birjina Mariac ditu icitcen. Bai, Jesusen Amaren, oroen baino beldurrago dire.

Herra, errabia eta beldurtia debruac, suge enganatzaileac, hain handiac ditu oraino Birjina Sainduarentzat, Maria delacotz Elizaren eta giritinoen Ama, arimac bere aztapar ikharagarrietaric zaintcen eta edekitcen daizcolacotz.

Icitcen dute Mariaren medailec, abituec, potretac berec. Fraide batec bazuen, bere gelan, Birjina Sainduaren potret bat, han'tz ohoratcen zuena; othoiltzean zagon ardura haren aitcinean.

Biciki atacatcen zuen etsaiac tentacione suerte guciekin. « Certaco hainbertce atacatcen nauc? » galdegin cion egun batez fraide sainduac. Debruac ibardetsi cion: « Deusic ez duc nic hiri jasan-arazten daicalana, hic niri sofri-arazten dautacanaren aldean. Cin egin-ezadac ez ducala salhatuco, eta erranen daia't cer egin tentacionen geldi-arazteco. Bakearen izaitecotan, fraideac

secretua hitz-eman cion : « Nahi diat, erran cion ordnan debruac, ez dezocan gehiago beha gelan ducan Andre Dena Mariaren potretari. »

Ahalgetua, bere hutsaz harritua, juan cen fraidea oroen aithortcera bere Superiorari. Superiorac segurtatu zuen haren cinac etzuela deusic balio, eta aski zuela behinere baino gehiago Birjina Sainduari gomendatcea. Obeditu zuen ; ahal cituen ohore guciac egin ciozcan potret saindu hari, othoiztu zuen lehen bezala, eta oraino hobeki. Bethicotz garraitua, debrua etcen gehiago ethorri.

Gure tentacionetan ez dezakegu sobera ihes egin Mariaren ganat, bereciki garbitasunaren, gure inocentciaren contraco tentacionetan. Frangotan Mariaren icenaren aiphatceac berac ecczatcen du gogota gaichtoa.

Presuna jaincotiar bat gisa orotara tentatcen zuen etsaiac. Alferretan ur benedicatua, curutcearen seinalea, eta bertce asko bide hartu cituen bakea nahiz ; azkenecotz juan cen gizon saindu eta zuhur baten gana : « Tentacioneari ohartu orduco, ihardetsi cion gizon zuhurrac, altcha zaitzu escuac cerurat eta errazu : « Birjina Saindua, lagun nezazu ! » Ikhasi bezala egin zuen, eta debrua etcen menturatu gehiago haren ataccera.

San Bichintcho Ferrierec, gazte celaric oraino,

galdegin cion Birjina Sainduari, ardiets cezon bethi garbi egoiteco gracia. Boz bat aditu zuen : « Ez, ez. » Harrituric, nigarrez, othoitcean hasi cen. Agertu citzaion orduan Jaincoaren Ama, eta erran cion amultsuki : « Ez ici, ene haurra, aditu ducana debruaren enganio bat duc, nahi hau lotsa-araci. Hartu ducan chedea atchicac; aski duc confidentcia izaitea ene baithan, begiratuco haut. Nahico hau debruac eror-araci bere artetan, bainan ene laguntzarekin bethi garraituco duc. » Eta san Bichintcho Ferrier hain garbia eta hain saindua jalgi cen, nun iduri baitzuen Aingeru bat, eta ez gizou bat.

Sainduac egin duten bezala egin dezagun guc ere. Aspaldi errana da lurraren gainean bethi gudu bat dela gizonaren bicia. Eta gudu hura batzuetan goicic hasten da Satanen eta haurraren artean. Alde batetic Satan da jakintsuna, ernea eta azcarra, eta bertce aldetic haurra, gerlaren berri ez dakiena eta flacoa. Eta bizkitartean, nahi balin badu, giristino haur hura bethi gaihenduco zaio Satani. Lehenic gerlaco goiti-beheitiac iracatsico diozca bere cofesorac; iracatsico dio Satanen ezagutcen, heldu zaionean enganatcerat, bere begitarte beltza gorderic, aphainduric, choragarri egina, loren eta atseginen giblean estaliz bekhatuaren ondorio sistatzaileac. Bainan ez da gerlan jakitea aski, garrait-

ceco, behar dire oraino indarrac. Indar hec, ikhusi dugun bezala, bereciki Mariaren laguntzac dire. Lebertu du hastetic suge gaichtoaren burua Birjina garbiac, eta geroztic ifernua ikharan dauca. Ikhas beraz haurretic Mariaren ganat ihes egiten. Eta nola gudu horrec, haurrean hasiric, iraunen baitu gisa batera edo bertcera heriotceraino, ez ahantz, adin gucietaco gure indarra, eta azken oreneco gure bitoria dela Maria Birjina Saindua, Jaincoaren eta gure Ama.

HOGOI ETA HAMARGARREN EGUNA

Birjina Sainduac laguntcen dituela bere haurrac heriotceco orenean

Heriotcea bekhatuaren gaztigua da. Creatzai-leac, ez deusetaric jalgi berria zuen, gizonari erran cion : « Obeditcen banauc, bicico haiz ; ene manua hausten baduc, hilen haiz. » Gizonac bere Nausi eta Jabecaren manua etzuen begiratu ; eta haren bekhatuarekin heriotcea sarthu cen munduan. Bicitceco egina cen gizonarentzat zoin icigarri, lotsagarri eta ikhara arri den heriotcea ! Jesu-Cristo Gure Jaunac, bekhatuaren gatic ethorri denean lurrerat, heriotcea, bekhatuaren gaztigua, pairatu nahi izan du. Odol gucia ichuriric, curutcearen gaineco agonia luce eta dor-

phearen ondotic; azken hatsa eman du, gaztigu hortarat condenatuac diren gizon hobeadunei heriotcearen eztitceco.

Birjina Sainduac ere, bicirie cerurat heltceco orde, onhetsi du Jesusec bezala hiltcea. Heriotce saindu eta mercecimendutsu haren bidez, Ama on horren bihotzac ardietsi du oren handi hartan bere haurren laguntceco, fededun jaincotiar othoizten dutenen solegitceco botherea eta cargu gozoa.

Bainan heriotceco orena oren handia da oraino guretzat, gure arima ez delacotz hilcor, heriotcea delacotz choilki athe bat lurreco bicitce hau hesten duena, eta eternitatecoa idekitcen. Zucen da beraz, Maria Sainduac heriotce on baten egiten laguntcen gaituelacotz, Elizac deith dezan : « Ceruco Athea, *Janua celi*. » Egia hori giristinoec etcezaten ahantz, san Carlos Borromeoc manatu zuen eliza gucietan, athearen gaineco aldean, azar cezaten Andre Dena Mariaren potret eder bat. « Nahi dut, cioen aphezpicu saindu horrec, ene populua orhoit dadien ez daitekela sar ceruco loriaco tenploan, Elizac « Ceruco Athea » deitzen duenaren medioz baicen. »

On eta gozo bada Birjina Sainduaren amodioan bicitcea, eztiago da oraino Ama haren besoetan, haren behatce amultsuaz eta laguntza salbagarriaz solegitua izanic, azken hatsaren emaitca.

Jaincoari esker, miresten dire nun nahi Mariac heriotceco orenean bere cerbitzari cartsuei emaiten diotzcaten amodiozco frogac eta seinaleac. Condatcen ahal baginitu bada Elizaco ichtorioan eta Sainduen bician aiphatuac diren heriotce consolagarriac, bai eta ere familia girstino eta Jaunaz benedicatuec beren artean hanitcetan ikhusten dituztenac!

Berriki oraino bacen gizon gazte prestu bat, hurbiletic ezagutu duten gucien arabera, saindu hil dena. Andre Dena Maria hanitz maite zuen. Bere burua eta cituen guciac consecratuac ciozcan, eta egun guciez emaintza hori erreberritcen cion. Eritu cen, eta galdegin cion bere ceruco Amari, hura bezala, Agorrilaren 15^{an} hiltceco gracia. Aithortu ere cion bere cofesorari fagore hura igurikitcen zuela. Bainan medicuec zaucaten etzuela ordu artino iraunen. Uztailaren 22^{eco}, bazohala ikhusiz, olia-araci zuten. Bizkitartean erran tenoreraino heldu cen. Andre Dena Maria egunean, cofesorac galdatu cion : « Bagohacia bada cerurat? — Bai gogotic, othoitz egin dezagun hortaco, » ihardetsi cion eriac. Erran cituzten Ama Birjinaren litaniac, eta eman cioten heriotce onaren Induljentcia. Agonian, ezti eztia othoitcean ari cen : « O Birjina Saindua, har nezazu, har nezazu zure hurrekin. » Besoac

curutzatu cituen, eta Jesusen eta Mariaren ice-
nac erranic, azken hutsa eman zuen.

Huna bertce muthil gazte bat, Birjina Sain-
duaren Congregacionean sarthua cena, huni
bere Ama cerucoac gracia bereciago bat oraino
egin izan dio. Hiltcera zohan, eta oinhaceric
saminenac pairatcen cituen. Astezken batez,
ikhusten ditu bi Aingeru eder bere aiticinean.
Batec erraiten dio : « Hire Aingeru begiralea
nuc. » Bertceac : « Eta ni, sarthua haicen Con-
gregacioneco Aingeru gidaria, Congregacioneco
phundu guciei hain jarraikia izan haicelacotz
lau urthe huntan, saritzat, Jaincoaren Amac
igortcen gaitic hire oinhacen solegitcera, eta
hiltceco mementoan hire laguntcera. Ez hugu
utcico, hire arima Maria hire Amaren aiticinera
eraman artino. Heldu den larunbatean hilen
haiz, herrico elizan bezperetaco ezkila jotcen
denean. » Gizon gazte hiltcera zohanac, hitz
consolagarri horiec condatu ciozcaten cofesorari
eta bere aita amei. Hil cen, Jaunaren bakean,
Mariaren mezulariec erran egun eta orenean.

Ohora dezagun guc ere, egun guciez, Birjina
Saindua, cerbeit othoitz bereciz, izaiteco zoriona
haren besoetan hiltceco. Elizac, Mariaren othoit-
cic handienean eta baliosenean, ezarri ditu hitz
hauc : « Maria saindua, othoitz egizu gu bekha-
« torosentzat, orai eta gure heriotceco orenean. »

Erraiten baditugu ardura eta cartsuki hitz horieci, nundic Ama amultsu hura, hain usu deithua, ez da gure aldean izanen, gure bicico azken oren handi hartan?

Izan dezagun oraino artha Birjina Sainduaren othoizteco agonian direnentzat. Behar-orduan denari laguntza emaita, amodiozco eta merecimenduzco obra bat balin bada, zoin da behar-orduric heriotceco orenaren parecoric? Cer graciac ez ditugu beraz merecituco gure azken ore-neco, bertceac memento latz hartan lagunduz?

Maria Saindua, othoitz egizu enetzat eta giristino gucientzat heriotceco orenean!

HOGOI ETA HAMECAGARREN EGUNA

Egun berritu behar diren chede onac

Mariaren hilabetea acabatcen da egun, bainan ez haren alderaco debocionea.

Gaur, gure amodiozco azken canticac gure Amari cantatcearekin, behar diozcagu berriz ere gure buruac hari consecratu. Galda dezogun bore benedicionca, eta berri ditzagun haurretic haren alderat hartu giuituen chede onac. Eta ascotan hoztasuna eta lazokeria gaihenduric, chede hec gaizki bethe baditugu, orai da tenora, gogo azcar, cartsu eta irauncor batekin, heien hobeki atchikitcerat gure lehiatceco.

I. — Iracurtu ditugu liburu huntan, medailen, abituen, Mariaren potreten gainean chehetasunik hunkigarrienac. Ez ditzagun galtcerat utz iracuspén balios horieci. Nahi dugu, guc ere, Birjina Sainduac lanjeretan eta errecontru gaichtoetan begira gaitzan, bician eta heriotcean lagun gaitzan; ibil ditzagun beraz artharekin eta errespeturekin Mariaren medaila benedicatuac eta abitu sainduac. Galtcen direnean, ez gaiten lucez gabe egon lazoki; orduan izan dezakegu beharri handiena.

Ohacoan berean, ama giristinoa, emozu zure haurrari lephotic medaila bat, edo Birjina Sainduaren bertce zonbeit marca, eta izan-azu artha, handitcearekin ere bethi ibil dezan, horrela bici gucico usaiaren har-arazteco eta segurtatceco.

Bainan ez da aski baxhotchac berekin debozionezco seinale horien ibiltcea, gure egoitzac berac behar ditu Mariaren begitarte sainduac zaindu, aphaindu eta benedicatu. Andre Dena Maria etche gucietan behar da izan familiaco norbeit bezala.

Ez da gisa batera choilki fedea hozten, ttipitcen, ahanzten ari. Sar zaite etche batean; aberatsa izan dadien edo ez, ikhusico dituzu ardura gauza ederrac, ikhusico dituzu barne aphainduac. Bainan ethecoac, ala diren giristino catolicoac, ala protestantac, ala juduac, batzuetan

deusetaric ez da ageri. Ez duzu ikhusico errelisione marca bat, ez curutcefica, ez ur benedicatu untci, ez Ama Birjina Saindu onaren potret. Hanitcetan, orai saltcen diren, funts-gabeco potret batzu, choilki paretan beztitceco, eta batere ez Jaincoaren eta Sainduen ohoratceco, fedezco gaucez eta eternitateaz orhoit-arazteco. O familia giristinoac, gure etchetaco aphaindurac eta edergailuac izan ditecela, lehenago gure aitcinecoec cituzten bezala, curutcefica, ur benedicatu untcia, ur benedicatuarekin eta erramu benedicatuarekin, Sainduen potretac, Bihotz Sacratua eta san Josepe, bainan oroz gainetic Mariaren potretac, hec nahi badugu, ahal becen ederrac. Egunaz eta gauaz benedica gaitzan; eta guc eta gure haurrec pausua eta loa har ditzagun gure ceruco Amaren behatce ezti eta begiratzaillearen azpian.

II. — Hilabete huntuaco iracuspenetan ikhusidugu oraino zoin probetchos den Mariaren alde rat zonbeit pratica bereciren atchikitcea. Birjina Sainduari hauitz agradatcen zaio egun guciez, behinere ahantci gabe, hartaz orhoituz, cerbeit berecirie egitea, den gutiena baicic ez izanic ere: hala nola, *Agur Maria* bat edo bertce..... *Orhoit zaitte* bat..... Arrosorioac berekin ibiliz, hamarreco bat..... Bainan hortaco, gure egungo chedeac eta cartsutasuna ez ditu biharco haiceac eramam behar. Zonbat ez da, Jesu Cristoren Imi-

tacioneac dioena, beroki hasten denic, eta gero iraupenic ez dutenic! Ez gaiten sobera gure buruari fida, eta hortacotz ere, ez gaiten izan, batzu diren bezala, debocione berricari. Berriec zaharac ahantz-arazten dituzte, eta gero berriac ere laster galtcen dire. Mariaren alderaco gure debocioneac, bai othoitcen, bai comunionen usaia sainduac har ditzagun zuhurki, gure estatuaren arabera; eta gero, behinere utci gabe, bethi atchic ditzagun.

